



DEBA  
IBARRETIK

EUSKARAREN  
HERRIRA

**koldo zuazo eta**  
**Badihardugu**  
Euskera Alkartia

**Egileak:**

Koldo Zuazo eta Badihardugu Euskera Alkartia.

**BADIHARDUGU Euskera Alkartia:**

Badihardugu posta zerrendia: [badihardugu@yahoogroups.com](mailto:badihardugu@yahoogroups.com)

143 posta-kutxa · 20600 Eibar

**Azalaren diseinua:**

Naiara Errasti.

**Maketazioa:**

Maite Rementeria.

**I.S.B.N.:****Lege Gordailua:**

Deba Ibarra. 2002.

DEBA  
IBARRETIK

EUSKARAREN  
HERRIRA

KOLDO ZUAZO eta  
BADIHARDUGU  
Euskera Alkartia



Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta  
Udal hauen dirulaguntzarekin argitaratutako liburua:



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



ANTZUO-  
LAKO  
UDALA



ARAMAIOKO  
UDALA



ARETXABALE-  
TAKO  
UDALA



ARRASATEK  
O  
UDALA



BERGARAKO  
UDALA



DEBAKO  
UDALA



EIBARKO  
UDALA



ELGETAKO  
UDALA



ELGOIBARKO  
UDALA



ESKORIATZA-  
KO  
UDALA



GATZAGAKO  
UDALA



MALLABIKO  
UDALA



MENDAROKO  
UDALA



MUTRIKUKO  
UDALA



OÑATIKO  
UDALA



SORALUZEK  
O  
UDALA

***Euskara da gure territorio libre bakarra***

(Joseba Sarrionandia)

***Euskalkixa da hizkuntziarekin jolasteko eta gozatzeko  
barrutixa***

# AURKIBIDEA

## LEHEN ATALA: HIZKUNTZA EGITASMOA

Peorako jarduna . . . . .	10
Helburura iristeko oinarriak . . . . .	13
Helburura iristeko bideak . . . . .	38

## BIGARREN ATALA: HIZKUNTZA EZAUGARRIXAK

Liburuaren edukia . . . . .	56
Fonetikia eta ortografixa . . . . .	63
Morfologixa . . . . .	72
Morfosintaxia . . . . .	92
Aldaerak . . . . .	99
Hiztegixa . . . . .	111
Ume berbetia . . . . .	146
Esapidiak . . . . .	151
Bibliografixa . . . . .	176

Hizkuntza sortzeko eta... edozein umek er...  
dio rompi... deia... horixe da Euskal Herri...  
heta...

it -> itt ind -> indd -> hild  
-gitten yira, C us...  
mila indarra... xetari... baia...  
ind, ... IL -> IR

iturrixa -> mila...  
ikasten egun batetik best...  
indarra... gozetik



# Hizkuntza egitasmoa

# 1. PEORAKO JARDUNA\*

**H**erri izatera iristen ez den herria da gurea; herri zatitua eta desegituratua. Baina, aldi berean, aspaldikoak eta ugariak izan dira herria osatzeko ahaleginak, eta garbi daukagu, gainera, zein den osatu beharreko herri horren bihotza: *hizkuntza*. Euskara da, ezbairik gabe, Euskal Herriaren oinarria eta ardatza.

Euskara bera ere, baina, desegituratuta dago, eta hizkuntza osatzea eta antolatzea da gure lehenengo eginkizuna. Helburu hau ere ez da oraingoa, eta, Deba ibarrean bertan, aspalditik egin dira bide horretan zenbait urrats.

1983an, esate baterako, *Arrasate euskaldun dezagun* Elkarteak sortu zen. Arrasateko euskaldunak batzea, eta lagun horien jarduna bateratzea zen elkartearen asmoa. Ona izan zen emaitza, eta, tankera horretako elkarteak Euskal Herri osoan zabaldu ziren ondorengo urteetan.

1988an, berriz, *Arrasate press* herri aldizkaria sortu zen. Euskara esparru berrietan sartzea, eta, euskararen inguruan, sare zabalagoa eta sendoagoa sortzea ziren aldizkariaren helburuetako batzuk. Ona izan zen emaitza, eta, tankera horretako aldizkariak Euskal Herri osoan zabaldu ziren ondorengo urteetan.

Azken aldi honetan, oster, beste urrats bat egin beharra ikusi da. Gaur egun, herri barruko egitasmoak ez dira nahikoa, eta *eskualdeka* jardun beharra dago ezinbestean. Deba ibarrean bertan, herri jakin batzuk elkartu, eta *Goiena* hedabide sarea sortu zen 2000. urtean, eta urte horretan bertan agertu zen BADIHARDUGU Euskera Alkartia.

\* Eibarko hitza da *peoria*, eta 'ataria' da bere esanahia. Eibarko peora horretatik egin nahi dizkiot neure gogoetak Euskararen Herriari.



Deba ibarreko hamazazpi herriak batu ziren elkarte horretan: Arabako Aramaio, Gipuzkoako Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Antzuola, Bergara, Elgeta, Soraluze, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Deba, eta Bizkaiko Ermua eta Mallabia. Deba ibarra osatzen duten herriek betidanik izan dute euren arteko hartu-emanak: ekonomia eta azpiegitura kontuak direla-eta, gehienbat; baina 2000. urteko azaroaren 25ean, euskarak batu gintuen, aspaldiko partez.

Hiru ziren elkarteak sortzeko arrazoi nagusiak: euskara suspertzea, euskararen osasuna hobetzea, eta euskaraz gustura eta eroso jardutea. Geure alderdian, Deba ibarrean, hasi gara lanean, baina argiro ikusten dugu, euskara guztiona denez, BADIHARDUGU Alkartek ere Euskal Herri osoari begira, eta euskaldun guztiakin batera, jardun behar duela lanean. Azken batean, Deba ibarrean oinarria jarrita, Euskararen Herri osoari eskaini nahi diogu geure ikusmoldea eta geure indarra. Horixe da, hain zuzen, gure goiburua: DEBA IBARRETIK EUSKARAREN HERRIRA.



BADIHARDUGU Euskara Alkartia

*BADIHARDUGU Euskara Alkartia Eibarren egindako aurkezpenean (2000-11-25) izan ziren lagunak.*



**DEBA IBARRA**

MARRAZKIA: Andoni Elordui

## 2. HELBURURA IRISTEKO OINARRIAK

**H**elburuak bete nahian, hiru ardatz nagusi ipini ditugu geure estrategiaren oinarrian: a) euskara batua, b) herriko hizkerak, eta c) hizkuntzaren gainerako osagaiak.

### **Lehen ardatza: euskara batua**

Inolako zalantzarik gabe, euskara batuari eman nahi diogu geure laguntza eta geure babesa. Euskararen egoera normaltze aldera, sekulako asmakizuna izan da euskara batua, eta hauexek dira ekarri dizkigun onura nagusiak:

1. Euskara batuari esker, alderdi guztietako euskaldunok ulertzen diogu batak besteari.
2. Euskara batuari esker, edozein gairen inguruan —baita gairik jaso eta teknikoenen inguruan ere— euskaraz jardun dezakegu gaur egun.
3. Euskara batuari esker, hizkuntza eta herria bere osotasunean ikusten hasi gara. Gainditu egin ditugu herrialdeen eta euskalkien mugak, eta nork bere herrialdearen eta bere euskalkiaren gainetik, Euskal Herria eta euskara ikustera eta onartzera iritsi gara. Nolabait esateko, **EUSKALDUN EGIN GAITU EUSKARA BATUAK**.
4. Euskara batuari esker, ikaragarri hazi da euskara ikasi dutenen kopurua.
5. Euskara ikasi dutenei esker, hautsi egin dira geroz eta estuagoak eta geroz eta meharragoak ziren euskararen mugak. Euskal Herriko edozein bazterretan dira, gaur egun, euskaraz dakitenak, eta Euskal Herrian ez ezik, mundu zabal osoan ere badira. Hori dela-eta, “Euskal Herria” hitza bera ere txiki geratu zaigu, eta euskaldunen multzo osoa izendatzeko, **EUSKARAREN HERRIA** erabil dezakegu.

6. Euskara batuari esker, “hizkuntza” izatera iritsi da euskara. Hizkuntza txikia da, beti ere; baina hizkuntza da, hala ere. Eta, jakina, prestigioa eman dio hizkuntza izateak. Geroz eta gutxiago dira, gaur egun, euskaldun izateak lotsatzen dituenak.

### **Bigarren ardatza: herriko hizkerak**

Euskalkiak, hainbatek gutxietsita eta zenbaitek gaitzetsita egon dira joan den aspaldian, eta handia da, ostera, euretatik atera dezakegun etekina. Onura hauexek ekar ditzakete, behar bezala erabilita:

1. Euskalkiei esker, guraso eta seme-alaben arteko transmisioa, edo hizkuntza lotura, sendotu egin daiteke.
2. Euskalkiei esker, sena eta sormena indartu egin daiteke.
3. Euskalkiei esker, euskara hobea, zuzenagoa eta indartsuagoa eraiki daiteke.
4. Euskalkiei esker, euskalduntzea errazago eta lasterrago egin daiteke.

Astiroago eta xeheago aztertuko dugu ezaugarri hauetako bakoitza.

### **I. BELAUNALDIEN ARTEKO HIZKUNTZA LOTURA**

Deba ibarrean, oso makalduta dago guraso eta seme-alaben arteko hizkuntza lotura, eta aspaldikoa da, gainera, makaltze horren hasiera. 1960ko hamarkadan gertatu zen ibarreko herri batzuetan: Eibarren, Elgoibarren eta Arrasaten, batez ere. Frankismoak euskarari jarri zizkion oztopoak, alde batetik, eta, sasoi hartan, Espainiako zenbait probintzietatik etorri zen inmigrazio uholde ikaragarria, bestetik, izan ziren horren arrazoi nagusia. Behin 1970eko hamarkadaz gero, gainera, Deba ibarreko herririk gehienetara iritsi zen inmigrazioa.

Kalean, erdara nagusitu zen ia erabat, eta, etxe batzuetan ere,

gurasoek ozta-ozta zekiten gaztelaniaz, eta seme-alabek, ozta-ozta ulertzen zuten euskara. Beste etxe batzuetan, berriz, gogor eutsi zitzaion euskarari, eta etxe horietan izan ziren, hain zuzen, euskararen “territorio libre bakarrak”, gerra osteko sasoi beltz eta beldurgarri hartan.

Baina transmisioa etetearen eragile nagusiak egoera politikoa eta egoera sozioekonomikoa izan ziren arren, ezin dugu alde batera utzi garai hartan euskararen baitan gertatu zen iraultza. Euskara batua izan zen iraultza hartako ardatzetako bat, ikastolekin eta gaueskolekin batera. Teknikoki, zuzen eta egoki egituratu zen euskara batua, baina eredu hura erabiltzeko eta zabaltzeko orduan, hain zuzenak eta hain egokiak ez ziren bideak urratu ziren. Hauxe da, esate baterako, Deba ibarretik begiratuta, labur-labur esango nukeena:

Lehenengo eta behin, oso kontuan izan behar dugu euskara baturako hartu zen hizkuntza eredia, eta Deba ibarrean erabiltzen dena, oso desberdinak direla. Egoki zen bezala, erdialdeko euskalkian oinarritu zen euskara batua, eta mendebaleko euskalkia da, gehienbat, Deba ibarrean egiten dena. Beste alde batetik, berriz, euskara batua lasterregi zabaldu zen, eta ia esparru jaso guztietara hedatu zen.



EGOITZ UNANUE

*Deba Ibarreko Herri Aldizkarietarako, informazio eremuan leku duina hartze bidean doa euskara.*

Eliza izan zen salbuespen bakarra: aurreko mendeetako tradizioari jarraituaz, euskara giputza erabiltzen zen, oro har, elizan.

Honek guztionek ere izan zuen bere arrazoia. Euskara batua frankismo garaian egin zen bete-betean: laguntza eta bitarteko gutxirekin, eta etsai eta oztopo ugariarekin. Jakina, egoera zail hartan ez zen egitasmo egoki eta zehatzik taxutzeko aukerarik, eta, gainera, hiltorian zegoen euskara bera. Ahal zena, ahal zen bezala egin zen, eta, egia esan, uste baino hobeto aterata zen.

Baina iragana gabe, oraina da, eta, batez ere, etorkizuna, guri arduratzen diguna, eta etorkizunari begira, badira hobetu beharreko zenbait gauza. Alde batetik, *herri euskaldunetako ahozko jarduna* bertako euskalkian oinarritu behar delakoan nago, eta lau ardatz nagusi ikusten ditut horretarako: etxea, kalea, eskola eta herri barruko hedabideak.

Etxea eta kalea oraingoz alde batera utzi, eta eskolaren eta herri barruko hedabideen gainean jardungo dut hemen.

Euskara batua eta euskara jasoak irakatsi behar da eskolan, ez da zalantzarik horretan. Baina ez dut uste euskara batua eta jasoak irakasten umeak hiru-lau urte dituenetik hasi beharra dagoenik. Herri euskaldunetan, bertako euskalkia izan behar da abiaburua, eta irakasle ezagatik-edo ezin bada, begirunea izan behar zaio, behinik behin, bertako hizkera horri.

Beraz, Deba ibarrean *eguna* esaten badu lau urteko umeak, ezin zaio hori gaizki dagoenik esan. Ezta hori baino egokiagoa *osteguna* denik ere: *eguna* zuzena eta egokia da, besterik gabe. Azken batean, *euskalkien ezaugarriei erabateko begirunea izan behar zaie irakaskuntzako lehen epean*. Ondorengo epeetan ere begirunea izan behar zaie, jakina, eta euskalkien ezaugarriak gutxietsi eta gaitzetsi gabe, euren *osagarri* diren beste egitura batzuk irakatsiko dira pixkanaka eta epeka. Horrela lortuko da Deba ibarreko umeak, Deba ibarrekoak izateari utzi gabe, Euskal Herrikoak ere izan daitezen, eta, azken batean, horixe besterik ez da helburua: arrasatearra, eskoriatzarra, mutrikuarra, elgetarra... izatearekin batera, euskalduna ere izatea.

Hedabideek ere laguntza handia eman dezakete zeregin honetan. Euskara batua da, jakina, Euskal Herri osoko hedabideetan erabili behar dena, baina, herri barrukoetan, beste era batera jokatu behar da, batez ere herri euskaldunetako hedabideetan. Horrelakoetan, bere lekua izan behar du herriko euskarak: handia, ahozkoetan (irratia eta telebista), eta txikiagoa, ziurrenera, idatzizkoetan (egunkariak eta aldizkariak).

Zer da horrekin lortuko dena?

Ezinbestekoa den gauza bat: gure euskara txarra eta kaskarra den uste ustela baztertzea, eta geure euskara horretan konfiantza eta ziurtasuna hartzea. Hori lortu ondoren, ez dugu erabiltzeko lotsarik izango, eta ez dugu geure ondorengo belaunaldiei irakasteko beldurrik ere izango.

Hain zuzen, guraso eta pertsona nagusi askok, behin baino gehiagotan entzun behar izaten dugu, eskolatik datozen neskatomutikoen ahotik, ez dugula euskaraz ondo egiten, edo ez dakigula euskaraz batere. Gazteek horrelako salaketak egitea ona da, alde batetik. Euskarak kezkatu egiten dituela esan nahi du horrek. Batzuetan, gainera, arrazoia ere badute. Esate baterako, nagusiok, *bentania*, *jugetia*, *bakaziñuak* esaten dugunean, bidezkoa da gazteek gure utzikeria salatzea. Baina ez da batere bidezkoa, nagusiok, *eguen*, *mendixa*, *noia / nixe / nijua*, *gustaitten xako*, *emungo dotset*, *fango naz* esan, eta hori ez dela euskara zuzena eta egokia entzun behar izatea. Egia da hori ez dela euskara batua, baina euskara bada. Horrela hitz egiten duenak ez du jakingo, beharbada, euskara batua, baina euskaraz badaki. Eta ez dezagun ahaztu, *hizkuntza*, euskara dela, eta, euskara batua, berriz, hizkuntza horren zati bat, hizkuntza horren *hizkera bat* besterik ez dela. Zati inportantea eta ezinbestekoa, zalantzarik gabe, baina ez hizkuntzaren osotasuna, eta ezta hizkera on bakarra ere.

Kontua da, seme-alaben salaketak entzunda, eta herriko jardun jaso guzti-guztietan euskara batua ikusita, guraso askok erabat sinetsi dutela euren euskara txarra, kaskarra, baldarra eta zatarra dela, eta mututu egin dira. Ezkutatu egin dute euren euskara, eta ez dute transmititu. Seme-alabek edozein trakeskeria esanda ere, ez dira —

badaezpada ere!— ezer zuzentzera ausartu. Gu nor gara, ba, eskolan irakasten den euskara zuzentzeko?, pentsatu du zenbait gurasok. Eta zuzen dagoena okertzen badugu, zer?, pentsatu du beste askok.

Eta kontua da, hiztun gazteen hizkerak beti daukala zuzendu beharra. Ez bakarrik Euskal Herria bezalako herri desegituratueta, baita Frantzia eta Espainia bezalako herrietan ere. Jakina denez, hizkuntza ez da ikasten egun batetik bestera. Hizkuntza sortzeko eta gobernatzeko arauak ez dira menderatzen goizetik gauera. Pixkanaka ikasten dira, eta ikasi bitartean, egitura okerrak sortzen eta erabiltzen dira. Guadalajarako herri erdaldun peto eta elebakar batean, esate baterako, *se me ha rompido la bici* esango du bertako edozein umek, eta gurasoak esan behar dio *rompido* ez dela zuzena, eta *roto* esaten dela. Horixe da, azken batean, hizkuntza lotura, eta lotura horixe da Euskal Herriko leku askotan —Deba ibarrean, besteak beste— eten edo, behintzat, makaldu eta nasaitu egin dena.

Euskarak bizirik eta osasunez iraungo badu, ostera, ezinbestekoa da belaunaldien arteko lotura. Hain zuzen, lotura hori egon delako iraun du euskarak gaur arte bizirik eta osasunez, zeren euskara ez da sekula eskoletan irakatsi, eta euskara ez da sekula Administrazioan erabili. Gurasoak etxean, lagunak jolasean, apaizak eta fraile kongregazio gutxi batzuk elizetan eta, noizean behin, bertsolariak herriko jaietan, horiexek izan dira euskaldunon eredu eta irakasle.

Orain hogeita hamarren bat urte, euskara eskolan eta telebistan sartzen baldin bazen, salbatuta izango zela esaten zen. Sartu da, ba, euskara eskolan, eta sartu da euskara telebistan, baina ez dago inondik inora ere salbatuta. Orain hasi gara ikusten non dagoen geure okerra: eskola eta telebista bitarteko onak dira, ezinbestekoak ere badira, baina ez dira bakarrak eta nahikoak. Etxea da, familia, lehenengo irakaslea, eta bera da, beharbada, denetan oinarrizkoena eta inportanteena.

Laburbilduaz, ba, hauxe da hizkuntza lotura sendotzeko bidea. Deba ibarra bezalako alderdi euskaldunetan, bertako hizkera indartu eta erabili behar da ahozko jardunetan, eta lagunarteko esparruetan ez ezik, esparru jasoagoetan ere bai.



## II. HIZKUNTZA SENA

Zerikusi zuzena dute belaunaldien arteko hizkuntza loturak eta senak. Gaitasun bi sartzen ditut, batez ere, senaren barruan. Alde batetik, *hizkuntzaren gainean iritzia izatea* da sena, eta, bestetik, *hizkuntza sortzeko ahalmena* izatea ere bada.

Beraz, zer den polita eta zer zatarra, zer den egokia eta zer desegokia esaten digu, alde batetik, senak. Deba ibarreko egoerari begiratuta, gaitasun hau ihartu samartuta daukagula iruditzen zait. Gaur egungo hiztun gehienok ez daukagu hizkuntzaren gaineko iritzi garbirik. Entzuten eta ikusten duguna errepikatu besterik ez dugu egiten ia beti, eta irudi bat erabiliaz, benetako hiztunak gabe, loroak garela esango nuke. “Beroarena” kenduta, horixe da nire iritzia.

Hiru gertakaritan oinarritzen naiz hori esateko:

1. Geure euskalkitik abiatuta, ez daukagu lagunarteko hizkeraren eta hizkera jasoaren arteko muga garbirik. Edozein arrunkeria erabiltzen dugu euskalkiaren izenean. Geure eguneroko



BADIHARDUGU Euskara Alkartia

*BADIHARDUGUko kide batzuk Oiñatin egindako lan-bilera batean.*

jardunean *tt* → *tx* egiten dugula, eta *aitta* → *aitxa*, *maitte* → *maitxe*, *ohittura* → *ohitxura*, *dittugu* → *ditxugu* esaten dugula, ba uste dugu horixe dela gure euskalkiaren ezaugarri peto jatorra. Geure eguneroko jardunean *d* → *r* egiten dugula, eta *edan* → *eran*, *bide* → *bire*, *dakidan* → *dakiran*, *pagadi* → *pagari*, *harrikada* → *harrikara* esaten dugula, ba uste dugu horixe dela euskalkiaren izenean aldarrikatu behar duguna. Geure eguneroko jardunean *asike*, *derrepente*, *derrigor* moduko hitzak, eta *jo ta fuego*, *alla kuidaos*, *lo ke pasa*, *por zierto*, *uno kon otro*, *ke (propina) ni ke otxokuartos* moduko esapideak esaten ditugula, ba uste dugu horixe dela indartu eta lau haizeetara zabaldu behar duguna. Eta hau gauztiau ez da inondik inora ere egia eta zuzena. *Euskalkiaren barruan zer den lagunartekoa eta zer jaso da bereizten jakin behar dugun lehenengo ikasgaia.*

2. Euskalkia eta euskara batua ere ondo bereiztea komeni da. Argi dago indar bateratzailea dela batua, eta hitz eta esapide berri asko batutik hartu behar ditugula. Batutik hartu behar ditugu *eztabaida*, *lehia*, *maiztasun*, *zerga* tankerako hitzak, eta baita horiek baino aruntagoak eta lagunartekoagoak direnak ere. Baina euskalkian dihardugunean, euskalkian ez dagoena da batutik hartu behar duguna. Ezin dugu euskalkian betidanik egon dena baztertu, eta, haren ordeztu eta hari ezikusi eginez, batukoa hartu. Beste era batera esateko, *euskalkiaren osatzaile izan behar da batua; ez euskalkiaren hondatzaile eta itotzaile.*

Izan ere, ez da hizkera egokia Deba ibarreko aldizkari batean ikusi nuen hurrengo esaldia:

*Harresixa erortzear zauen, Berliñen izan giñanian*

Beste hizkera modu bat erabili behar da Deba ibarreko jardunean. Esate baterako, hauxe:

*Berliñen izan, eta handik lasterrera jausi zan harresixa*

Batua eta euskalkia ganora gabe nahastea ez da gertatzen batere gozagarri, eta adin jakin batetik beherakook euskalkian dihardugunean, sarriegi egiten dugu akats hori.

3. Erdara eta euskara ere sarriegi nahasten ditugu batere premiarik gabe. Deba ibarreko aldizkari batetik hartutakoa da adibidea:

*Gure herrixan emoten diren errealitate desbardiñak euki bihar dittugu kontutan*

Horrelako euskalgaiztoa ere ez da izaten gozagarri. Konponbidea, gainera, ez da batere zaila: geure guraso eta jende nagusiak nola hitz egiten duten ikusi eta ikasi besterik ez dugu egin behar. Eta halakoen hizkera ikusita eta ikasita, honela geratzen da esaldia:

*Geure herriko egoera guztiak izan bihar dittugu kontuan*

Erraza izan da konponbidea, eta sekulakoa da, ostera, esaldi batetik bestera dagoen aldea. Azken batean, hizkuntza bi dira: euskalgaiztoa da bata, eta euskara, bestea.

Laburbilduaz, hauxe da esan nahi dudana: sen apurren bat bageneuka, belarrietan min egingo liguke horrelako jardunak, baina honetara ekarri gaitu hizkuntza lotura eten izanak eta, jakina, erdarari diogun begirune eta miresmen mugagabeak.

Senarekin lotuta dago hizkuntza sortzea ere, eta, hizkuntza sortzearena, benetan da arazo larria. Izan ere, etengabeko sortzerik gabe, ez dago hizkuntza bizirik: hil edo bizikoa da, beraz, auzia. Deba ibarreko egoerari begiratuta, gaitasun hau ere ihartu samartuta daukagula iruditzen zait. Gaur egungo hitzun gehienok ez daukagu sortzeko ahalmen handirik. Erdaratik kopiatu edo kalkatu besterik ez dugu egiten ia beti, eta zer edo zer sortzen dugunean ere, badaezpadako eta ganorabako gauzak sortzen ditugu sarri. “Beroarena” kenduta, horixe da nire iritzia.

Erdaratik kopiatutako eta kalkatutako adibideak, ugariak eta era guztietakoak direnez, aipatzea ere ez du merezi. Badaezpadako sorkuntzen gainean egingo ditut, ba, gogoeta zenbait.

Geure ibarreko leku izenetatik abiatuta, aspaldi esan nuen *Deba garaia* eta *Deba behea* baino askozaz geureagoak eta jatorragoak izan zitezkeela *Debagoiena* eta *Debabarrena*. Toponimia gaietan

aditua eta aritua izan gabe ere, senak esaten zidan *prakabarrenak*, edo *pasillobarrena*, edo *solobarrena* bezala, *Debarrena* izan behar zela zuzena. Eta neure senak esaten zidan, era berean, *barrena* horren aurkakoa, *guena* edo *goiena* moduko zer edo zer izan behar zela.

Azken bolada honetan, Deba ibarreko aldizkarietan aurkitu ditudan “sorkuntzak” dira ondorengoak. Has gaitzen behin eta berriro azaltzen den *ahalbidetu* hitzetik. Berria da niretako, eta desegokia nire belarrirako. Ez dut neure bizi guztian *\*etxetu*, *\*herritu*, *\*kaletu*, *\*ohetu* tankerakorik entzun, eta ezta *\*bidetu* tankerakorik ere, eta horrexegatik esaten dit neure senak, hobe dudala *ahalbidetu* hori baztertu: *bidetu* hitza onartzen ez badut, *ahalbidetu* ere ezin dut onartu.

Sarri entzuten eta irakurtzen dut *bideragarri* hitza. Hau idazten dihardudan une honetan bertan, Hondarribiko aireportua zabaltzea *bideragarria* ote den entzun dut irratian. Hitz berria da, eta nire belarrirako desegokia. Ez dut neure bizi guztian *\*etxeragarri*, *\*herriragarri*, *\*kaleragarri*, *\*oheragarri* tankerakorik entzun, eta horrexegatik esaten dit neure senak, hobe dudala *bideragarri* hori ez erabili: *kaleragarri* onartzen ez badut, *bideragarri* ere ezin dut onartu.

Neure senak esaten dit, era berean, *harremandu* ez dela egokia, sekula santan ez dudalako *\*emandu* hitza entzun, eta neure senak debekatzen dit *\*ezaugarritu* erabiltzea, sekula santan ez dudalako *\*zoragarritu*, *\*harrigarritu* tankerakorik erabili. Garbi dago, azken batean, *harremandu* eta *ezaugarritu* horiek erdarazko *relazionatu* eta *karakterizatu* besterik ez direla, eta behin erdara erabiltzekotan, hobe, nik uste, erdalgaiztoa gabe, erdara garbia erabili. Aukeran, hobe da *relazionatu* eta *karakterizatu* erdaldun zuzenak eta jatorrak erabili, ez erdara ez euskara ez diren *\*harremandu* eta *\*ezaugarritu* baino.

Gure sen apurra salatzen duten beste sorkuntza batzuk ere aurkitu ditut Deba ibarreko hedabideetan, baina laburtze alde, *ekidin* hitza hartuko dut adibide. Gaur egun barra-barra entzuten eta irakurtzen dugu hitz hori, eta kontua zera da: hitz hori ez dela inongo euskaratakoa. Ez Zuberoan, ez Nafarroan, ez Gorbeia edo Aizkorri

aldeko artzainen jardunean ez da ezaguna. Inon ere ez! Literatura idatzian, behin edo bestetan agertzen omen da, baina ez Euskal Herri osoko literaturan: leku jakinen bateko idazle jakinen batek baizik ez omen du erabili. Eta niri, hain zuzen, hauxe da neure senak esaten didan lehen gauza: ahalik ete eremu zabalenerako hitzei eman behar diegula lehentasuna, eta, aldiz, inon erabiltzen ez diren hitzak, edo eremu txikietan baizik erabiltzen ez direnak —erabiltzekotan ere—, kontuz eta neurritz erabili behar ditugula.

Baina *ekidin* hitza baztertzeko beste arrazoi bat ere esaten dit neure senak: ez dela *gardena*. Zer da *gardena*? Edozein euskaldunek berehala harrapatzen duena. Nik neuk, neure gaztaro guztian, sekula ere ez dut entzun *saihestu* hitza, baina, baten batek, *arazoari aurre egin beharrean, saihestu egin diagu* esango balit, asmatuko nuke esanahia. Nik, neure gaztaro guztian, sekula ere ez dut entzun *saihesbide* hitza, baina, baten batek, *Arrasate erditik ez pasatzeko, saihesbidea egin ditek* esango balit, hori ere berehala asmatuko nuke.

Zer dela-eta, ba, asmatuko nuke hitz berri horien esanahia? Gardenak direlako, *saihets* eta *saiheski* ezagutzen



*Ahozko transmisio naturalean dago hizkuntzen ditudalako, eta osasun onaren ardatz nagusienetarikoa bat.*

*saihets* eta *saiheski* ezagututa, *saihestu* eta *saihesbide* zer diren erraz eta laster antzeman dezakedalako.

Aldiz, inork ere ez du erabiltzen ez *ekidin* ez horren antzekorik: zeharo arrotza da. Hitz euskalduna gabe, Martekoa-edo ematen du.

Garbi dago herritarrek hizkuntzarekin bat egingo badute, herritarrek hizkuntzarekin jolas egin eta gozatuko badute, hizkuntza gertukoa, Euskal Herrian eta euskaldunok sortutakoa izan behar duela. Bestela ez da errotuko, ez da indartuko, eta ez da gozagarri gertatuko. Horixe da, azken batean, gaur egun zabaldu den euskara berriarekin gertatu zaiguna: Marten sortutakoa, eta Martetik ekarritakoa ematen duela.

Aspaldi ohartu zen Xalbador bertsolaria, hizkuntza eta herria bata bestearengandik bereizi ezinak zirela. Artzaina zen, eta ez hizkuntzalaria, Xalbador Aire urepeldarra, baina bazuen sena. Eta sen horrexek esanarazi zion honako bertsoa:

herria da gorputza, hizkuntza bihotza;  
bertzetik berextean bitarik baxotxa,  
izaite horrendako segura hil hotza.

Gauzak ozenago esan daitezke, baina ez argiago eta zehatzago: geure eguneroko hizkeratik aldentzen bagara, ziurra da hizkuntzaren heriotza.

Sena sendotzea ez da, inondik inora ere, zeregin samurra, baina gauza bat izan behar dugu gogoan: sena ez da bakarrik berezkoa, landu eta garatu egiten da. Oso lagungarria da, hain zuzen, norbere etxeko eta norbere herriko ereduak izatea. Nik neuk, esate baterako, zalantzaren bat dudanean, beti ekartzen dut gogora neure etxeko eta neure gaztetako euskara. Baditut neure erreferentziak eta neure ereduak: *ahalbidetu* erabili ala ez erabaki behar dudanean, *bidetu* erabiliko ote nukeen galdetzen diot neure buruari. Beti egiten dut ariketa hori, eta denok ere ariketa horixe egitea komeniko litzateke. Baina gaur egungo gazteei, etxeko eta herriko ereduak ez direla “onak” ikusarazten badiete eskolan, zer sen izango dute nagusitzen direnean? Gaur egungo gazteek etxekotik urruna den hizkera ikasten eta ikusten badute alderdi guztietan, zer sen izango dute etorkizunean?

Euskara Londresen edo Bartzelonan ikasi duenak, eredu gutxi

izango ditu eskura. Irakasleak esandakoa, liburuetan irakurritakoa, non edo non entzundakoa izango dira haren eredu bakarrak. Baina Antzuolan edo Aramaion jaioak, baditu bere ereduak, eta horrexegatik diot, herri euskaldunetan bertako hizkera indartu behar dela, eta horrexegatik diot, era berean, herri euskaldunak izan behar direla euskararen eredia, eta euskararen gunea.

### III. HIZKUNTZAREN ZUZENTASUNA

Esandakoak esan ondoren, begibistakoa da, geure herrian eta geure arbasoengandik ikasitako euskarak beti izango duela kalitate maila jakin bat. Izango ditu, bai, bere akatsak, eta izango ditu hobetu eta osatu beharreko alderdiak, baina, gaur egun ere, euskara bizirik dagoen herrietako hiztunek euskara ona egiten dute, oro har. Euskara ona egiten dute, behinik behin, euren hizkera horretan oinarritzen direnean, zeren herri euskaldunetan ere izaten dira euskara “hobea” egin nahian, goiak eta beheak nahasten dituztenak.

Bada esan nahi dudana argiro azaltzen duen adibidea. Joan den aspaldian, hitzetik hortzera erabiltzen da, gure artean, *zerbaiti edo norbaiti buruz hitz egin* esapidea. Ostera, gure alderdian, *zerbaiten gainean, zerbaiten inguruan, edo zerbait dela-eta berba egin* esan izan da sekula guztian. Eta gure alderditik kanpora ere egitura horiexek erabiltzen dira gutxi gorabehera, *zerbaitetaz hitz egin* egiturarekin batera.

Nik neuk, Euskal Herri osoan zehar ibili ondoren, Ipar Euskal Herrian baizik ez dut entzun *buruz hori*, baina oso bestelakoa da han daukan esangura: *Parisera buruz joan niz, edo neguari buruz egunak laburragoak dira* entzun dut Iparraldean, eta, garbi dago, gure *Pariserutz* edo gure *negurutz* egituren kidekoak direla. Nik neuk uste dut, Iparraldekoa ez zen norbaitek, egitura hori entzun, gaizki ulertu, gaizki ikasi, nola edo hala hedatu, eta, harrezkero, denok gaizki erabiltzen dugun horietakoa dela. Eta sarri gertatzen dira horrelako huts egiteak norberaren betikoak eta jatorrak baztertu eta, *hobe beharrez*, inorenak erabiltzen ahalegintzen garenean: ez inorena, eta ez zuzena ez dena, erabiltzen dugula azkenean.



Nik neuk, egia esan, iritzi garbia daukat kontu hauen inguruan: baten batek *buruz* hori, edo *buruz* hori bezalako beste edozer gogokoa eta ezinbestekoa badu, erabil dezala lasai asko, baina jakin dezala, era berean, orain arteko guztian erabili diren hitzak eta egiturak ere zuzenbide eta egokitasun osoz erabil ditzakeela. Orain arte euskara izan dena, hemendik aurrera ere euskara izango da, eta ziur nago, gainera, geure gurasoengandik jaso dugun hizkeran oinarritzen bagara, eta geure senaren aginduei jarraitzen badiegu, orain hobe beharrez egiten dugun euskararen aldean, hizkuntza hobe, zuzenagoa eta biziagoa egingo dugula. Eta hau ez da nire uste ustela; logika hutsa besterik ez da.

Gainera, euskalkiak alde batera utzi, eta ez inongoa ez inoizkoa ez den hizkuntza egiten badugu, ez da izango inorendako gozagarri, eta bai, ostera, denondako gozakaitz eta gozaezin. Hizkuntza gozagarri izango bada, hurbilekoa, gertukoa izan behar da. Euskara *afektiboa efektiboa* dela esan eta idatzi izan du Fernando Muniozguerenek, Eibarko euskara teknikariak, eta egia biribila da hori, ez dago dudarik.



GOIBEKOKALE

*Euskaltegiek Euskal Herri osora eta Euskal Herritik kanpora zabaltzeko*

#### IV. EUSKALDUNTZEA ERRAZTU

Aspaldiko denboretan hasita izan dira euskara ikasitakoak Euskal Herrian. Esate baterako, euskara ikasitako idazle bi ziren Lapurdin, XVII. mendean: Materre eta Pouvreau. Eibarren bertan ere, gerra aurretik etorritako denak —edo asko, behintzat—, bertakotu egin ziren. Euren jatorria eta euren deiturak gorabehera, beste edozein bezain eibartar egin ziren, eta, jakina, Eibarko euskara jakiteak egin zituen eibartar, ez beste ezerk.

Joan den hogeita hamar urteotan, baina, ikaragarri hazi da euskara ikasitakoen multzoa. Nonahi agertu dira, gainera, euskara ikasitakoak: Nafarroako Erronkarin eta Erriberan, Araba osoan, Bizkaiko Enkarterrian, Lapurdiko Baiona-Angelu-Miarritze hiribilgunean, eta baita Bartzelonan, Madrilen, Bordelen, Parisen, Londresen, Buenos Airesen, Renon, San Franciscon, Tokion... ere. Eta hori, jakina, euskara batuari, ikastolari eta gau-eskolei esker gertatu da.

Baina honetan ere badela zer hobetua begitantzen zait. Zalantzarik gabe, euskara batua irakatsi behar zaie ikasten hasi berriei, baina garbi dago euskara batu hori ezin dela berdina izan Tafallan eta Lesakan, Baigorri eta Baionan. Bereizi egin behar dira herri euskaldunak eta herri erdaldunak, eta herri erdaldunen artean ere, ez dira berdin Tafalla eta Baiona. Baionan, esate baterako, Lapurdin eta Nafarroa Beherean egiten den euskaratik gertuko eredia irakastea da zentzuzkoa. Tafallan, ostera, Nafarroa aldean egiten denetik gertu ibiltzea da egokia. Azken batean, euskara ikasten duenak, norekin erabiliko duen, eta norekin izango duen hartu-emanan izan behar dugu beti gogoan.

Nire iritzian, ostera, euskaldun berriak *Euskal Herri abstraktu batean* txertatzea izan da orain arteko jokabidea, eta hori, jakina, ez da inondik inora ere jokabide zuzena. Euskaldun berriak herri jakin eta zehatzetan bertakotu behar dira: eurak bizi diren herrietan. Beste era batera esanda, *euskaldun berriak sortzea* gabe, *euskaldunak sortzea* izan behar da gure helburua.

Zer egin hori lortzeko?

Deba ibarra bezalako alderdi euskaldunetan, oso kontuan izan behar da bertako hizkera. Aukeran, gainera, bertako hitzei eta bertako egiturei eman behar zaie lehentasuna, baina hori bai, *bertakoak eta batukoak* izan behar dira, aldi berean.

Zer da honekin esan nahi dudana?

Ba, *txokokeriak saihestu eta alde batera utzi* behar direla. Elgoibarko euskaltegian, esate baterako, Elgoibarren bakarrik gabe, Elgoibarren eta, aldi berean, Euskal Herriko eremu zabalean erabiltzen den euskara irakatsi behar da. Konparazio baterako, *aukeratu* eta ez *hautatu*, *zuk erosi duzun alkandora*, eta ez *zuk erosi alkandora*, *nonbait ere bero egiten du*, eta ez *bero egiten duke* irakatsi behar lirateke Elgoibarren.

Kontua zera da: aipatu diren *aukeratu*, *zuk erosi duzun alkandora*, *nonbait ere bero egiten du* horiek, Elgoibarkoak izateaz gainera, Euskal Herriko leku zabalekoak ere badirela, eta euskara ikasi duen elgoibartarrak lasai jardun ahal izango du, bai bere herrian, eta baita inguruko herrietan dagoenean ere. Aldiz, *hautatu*, *zuk erosi alkandora*, *bero egiten duke*, zuzenak eta batukoak diren arren, ez dira gure alderdikoak. Jakina, Elgoibarren euskara ikasitakoak ere hitz eta egitura horien *berri* izan egin beharko du euskara ikasteko bidea amaitzen duenerako, baina kontua zera da: hitz eta egitura arrotz horiek ez zaizkiola irakatsi behar ikasten *hasten* den unean eta, bestalde, gauza bat dela egitura horien *berri izatea* eta, oso beste bat, egitura horiek *erabiltzea*.

Hasierako urratsetan, txokokeriak ere ez direla irakatsi behar esan dut, eta *barren* da horren adibidea. Nahiz eta hitz hori Elgoibarren oso erabilia izan (*ez dozu ekarri, barren*), arrotza da Euskal Herri gehienean, eta ikaslea Elgoibartik irteten denean, zailtasunak izango ditu horrelako txokokeriak erabilita. Azken batean, ba, *herriko euskara kontuan hartzea*, *baina txokokeritan ez erortzea*, da, nire ustez, orekagunea.

Baina berriro lehengora itzuliaz, arreta handia izan behar dugu

ikaslea bizi den herrian erabiltzen ez diren hitz eta egiturekin. Ezbairik gabe, bera bizi den herrian esaten ez diren hainbat gauza ikasi beharko ditu, baina ez diezaiogun premiarik gabeko sinonimo eta sasiaberastasunekin burua berotu eta nahastu. Deba ibarrean, esate baterako, zentzugabekeria galanta da tankera honetako euskara irakastea:

*Duela bost egun igorri zidaten inprimaki hau Udaletxetik*

Horrela hitz egiten duena ghettoan bizitzera zigortuta dago. Horren aldean, askozaz egokiagoa da beste aukera hau:

*Orain dela bost egun bi(d)aldu zidaten paper hau Udaletxetik*

Bigarren esaldia ere euskara batua da, eta, Deba ibarrean bertakotzeko, hauxe da egokia. Hitz batzuk edo besteak erabili, sekulakoa da aldea.

Morfologian ere kontuan izan behar dira zenbait ezaugarri. Leku batzuetan, *eginen, joanen* esatea da egokia, edo *baitaki, bainago*, edo *nentorrelarik, nindoalarik*, edo *egona, ikusia*, esate baterako. Deba ibarrean, aldiz, *egingo, joango; daki eta, nago eta; nentorrela, nindoala; egonda, ikusita* dira lehentasuna izan behar dutenak.

Fonetika ere gehiago zaindu behar genuke. Oso inportantea da azentua eta intonazioa, eta orain arte ez da ezertarako ere aintzakotzat hartu. Eibar batean, adibidez, zeharo arrotzak egiten dira *euskára, aurréra, bestétik* bezalako ahoskerak; *éuskara, áurrera, béstetik* dira hangoak.

Zenbait fonetismo entzutera eta esatera ere ohitu egin behar dira ikasleak. Deba ibarrean, esate baterako, <j> ahoskatzera, eta ez <y> (*jan*, eta ez *yan*), eta *etxia, berua, ogixa, neskia*, eta, *jakina, in* → *iñ*, *il* → *ill*, *it* → *itt* entzutera eta esatera ohitu behar dira.

Zer lortuko dugu horrela jokatuta?

Alde batetik, adore handiagoz ikasiko dute euskara. Euskaltegitik irten, eta norberak dioena besteek ulertzea, eta besteek diotena

norberak ulertzea, beti da pozgarria eta bihotz betegarria. Aldiz, euskaltegikoa kalean ez dela erabiltzen ikusterakoan, behera etortzen da aurrera ekiteko gogoia.



*Korpusaren azterketek etorkizunerako oinarri sendoa emango diote hizkuntzari.*

Beste alde batetik, berriz, euskaltegiko euskara eta herriko jardun arruntekoak gertu samarrak badira, lehenago bertakotuko da ikaslea, eta lasterrago —eta, jakina, merkeago— egingo du ikasteko bidea. Euskaltegiko euskara eta kalekoa oso desberdinak badira, ostera, nekezago ikasiko du, eta ikasi ondoren ere, erabiltzeko zailtasunak izango dituenez, errazera joko du, eta, gure gizartean, gehienetan, erdarara jotzea izaten da erraza. Azken batean, horixe da behin baino gehiagotan, euskara ikasi ondoren, ikasitako guztia ahazteko eta galtzeko arrazoia.

Laburbilduaz, euskara ikastea *lana* eta *dirua* da, eta lan hori arintzen, eta diru kopuru hori txikitzen ahalegindu behar dugu. Deba ibarreko bizilagunok ez ezik, euskara irakasten dihardugunok ere badugu, beraz, zer hausnartua eta zer hobetua.

### **Hirugarren ardatza: hizkuntzaren gainerako osagaiak**

Sekulako ahalegina egin da, joan den hogeita hamahiru urteotan, euskara batua aurrera atera nahian, eta ahaleginak izan du saria:

- a. Gauzarik oinarrizkoenak erabakita eta araututa daude.
- b. Euskara lan-tresnatzat darabiltenek zeharo onartu dute.
- c. Euskara batua egin berria den arren, euskaldun askok eta askok bereganatu egin dute, eta zuzen eta eroso darabilte.

Baina, nik neuk, alderdi txar bat ere ikusten dut orain arteko jardunean. Joan den hogeita hamahiru urteotan, eztabaida absurdo eta zentzugabeen murgilduta egon gara: euskara batua ala euskalkiak izan da auzia. Eztabaida absurdoa da, bai euskara batua eta bai euskalkiak hizkuntzaren osagaiak direlako, hizkuntzaren hizkerak. Arazoa ez da, ba, batua ala euskalkiak, bietatik zein erabili. Batua non eta noiz, eta euskalkiak non eta noiz erabili da askatu beharreko korapiloa.

Baina beste arrazoi bategatik ere bada eztabaida absurdoa eta zentzugabea: hizkuntzak beste osagai batzuk, beste hizkera batzuk ere badituelako bere baitan. Badu haur hizkera, badu gazte hizkera,

badu lagunarteko hizkera, baditu lanbideetako hizkerak edo argotak... eta gizarteen eta kulturen arabera, beste hizkera batzuk ere izan ditzake. Eta, hain zuzen, hizkuntza batek zenbat eta hizkera gehiago izan, orduan eta aberatsagoa da, eta hiztunak ere erosoago daude ugaritasun horren barruan.

Guri, baina, batuaren eta euskalkien arteko eztabaidak ez digu osotasun hori ikusten utzi, eta, batuaz gainerako hizkerak, ahaztuta, baztertuta eta, azken batean, ihartuta gertatu dira. Eta horren emaitza ere jasotzen ari gara: hizkuntza ahula, motela eta rakitikoa bilakatu da gaur egungo euskara.

Idazle bati, esate baterako, nobela bat idatzi behar duenean, egoki datorkio lapur eta polizia jendearendako hizkera mota bat izatea, beste bat abokatu eta politikariendako, eta beste bat hiritar arruntendako. Irakurleak ere, jakina, gehiago gozatzen du horrelako nobela bat irakurtzean. Euskal Herri honetan, ostera, badira euskaldun guztiok eta egoera guztietan berdin-berdin hitz egitea nahi luketenak. Noiz ohartuko ote dira euskara pobretzea dela hori? Eta noiz ohartuko ote dira norberarena pobretzat eta ezgauzatzat daukanak, berea utzi, eta beste hizkuntza batera ihesi joaten dela?

Horretaz jabetzeko, gazte jendearen jokabidea ikusi besterik ez dago. Gehienek dakite eskolan ikasita euskaraz, eta eskola kontuetarako, konpontzen dira, nola edo hala, dakiten horrekin. Eskola kontuak ondo eta zuzen egiteko gai direnak ere asko dira dagoeneko. Arazoak, baina, eskolatik kanpo, lagunartean daudenean sortzen dira. Lagunarte giroan ez daude hain gustura eta hain eroso dakiten euskararekin. Gurasoekin etxean ikasi duten euskara jaso ez da lagunarterako egokia, eta askozaz desegokiagoa da eskolan ikasi duten batua eta jaso.

Euskara batua landu eta indartu den bezalaxe, hizkuntza osatzen duten gainerako hizkerak ere landu eta indartu egin behar ditugu, eta horixe da, hain zuzen, BADIHARDUGU Alkartearen egitasmoa:

- a) Sendotu eta indartu egin nahi dugu haur hizkera.
- b) Sendotu eta indartu egin nahi dugu gazte hizkera eta lagunartekoa.
- c) Sendotu eta indartu egin nahi ditugu lanbideetako hizkerak eta argotak.

Umeekin, esate baterako, hizkera berezia erabili ohi da. Deba ibarrean bertan ere izan da, eta bada oraindik, hizkera berezi hori. Ume txiki bati ez zaio esaten ea *ogia* nahi duen, *papa* nahi duen galdetzen zaio. *Ura*, *esnea*, *karameloa*, *automobila* bezalako hitzak ere ez zaizkio esaten ume txikiari, *mama*, *nene*, *mamelo*, *popo* baizik. Eta horrela, hitz laburrak erabiliaz, silaba gutxi eta erraz batzuk errepikatuaz, ikasten du umeak hizkuntza.

Joan den urteotan, ostera, euskara batuaren eta euskalkien arteko eztabaida antzuak itsututa, ez gara haur hizkera zenik ere ohartu, eta, oharkabean, galdu edo, behintzat, moteldu egin zaigu. Bihotz ukaldi galanta izan nuen, Bakioko hondartzan ginela, gure aldamenean etzanda zegoen andrazko batengana, bere lagun bat, ume txiki batekin hurreratu, eta, gure aldemeneakoak, honako agurra egin zionean umeari:

— *Emon besito, kariño!*



*Holan atarako juagu euskeria aurrera, esan nuen neure artean.*

Gazteek ere hizkera berezia erabili ohi dute, eta gazteen hizkera izaten da, gainera, denetan sortzaileena eta emankorra. Gazteak dira hitz eta esapide berri gehien sortzen dituztenak, eta hizkuntza astintzen eta iraultzen dutenak. Joan den ekainean, merkealdi sasoian, honako jardun hauxe entzun nien, hogeiren bat urte inguruko gazte biri, Eibarren:

— *Bi milla pelatan, kriston kamiseta guapua erosi dot, tio!*

Gazte biak euskaraz ziharduten, eta horrek poztu egin ninduen, orain urte batzuk, gazteok euskararik egiten ez genuelako Eibarren. Baina *kamiseta guapua, tio* horrek gure senaz, gure sortzeko gaitasunaz, eta, azken batean, etorkizuneko euskaraz, zer hausnartua eman zidan.

Hor dira, bestalde, lanbideetako hizkerak eta argotak ere. Beti esan ohi da, ikasleena, medikuena eta presoena direla, argotik biziarena eta



EGOITZ UNANUE

*Gazteak dira hizkuntza sortzailerik eta iraultzailerik handienak, eta Euskal Herrian, ostera, gazteak dira euskaraz gutxien egiten dutenak. Nahitaez euskaratu behar da gazteriaren jarduna.*

indartsuena duten taldeak. Hiru talde horietako ordezkari franko dago Euskal Herrian: ikasleak badaude, medikuak badaude, eta presoak ere nahi baino gehiago daude. Argotak dira, osterak, nahi eta behar adina ez daudenak.

Nondik ekin arazoaren konponbideari?

Begibistakoa da konponbidea ez dela samurra. Lehiakide handiak eta indartsuak dira gaztelania eta frantsesa, eta txikia eta ahula da, berriz, euskara. Baina geure mugak ezagututa, esparru bi urratzen hasi behar dugu, beranduegi egin baino lehen.

Alde batetik, geure aurreko belaunaldiek erabili duten hizkera, eta erabili dituzten bitartekoak ezagutu behar ditugu. Horixe da, gainera, guretako zereginik errazena eta erosoena, Deba ibarrean bizirik dagoelako oraindik euskara, eta bizirik daudelako, euren bizi guztian, eta euren bizi guztia, euskaraz egin duten hiztunak. Horixe da, hain zuzen, Euskal Herriari egin diezaiokegun, eta egin behar diogun, ekarria. Ahalegin hori ezin zaio Baionako, Tafallako, Balmasedako edo Lapuebla de Labarkako euskaldunei eskatu. Euskara bizirik dagoen alderdietan egin behar da, batez ere, ahalegin hori.

Bestalde, orain arteko jokabidea ere aldatu eta zuzendu egin behar da. Joan den berrogei urteotan, euskara jaso eraikitzea izan da gure helburua. Helbura baino gehiago, “obsesioa” esango nuke. Erdaren mailan ipintzearen, euskara jaso eta landua egin behar genuen. Baserri eta sagardotegi girotik atera, eta unibertsitate era eman. Sekulako ahalegina egin da hori lortze aldera, eta ahalegin horrek ere izan du saria: unibertsitatean da euskara, eta unibertsitari askok eta askok zuzen eta eroso darabilte.

Unibertsitatea eta kalea, jende heldua eta jende gaztea da, baina, bereizten jakin behar duguna, eta leku eta jende mota bakoitzari, hizkera jakin bat dagokiola izan behar dugu ondo kontuan. Eta sarritan —sarriegitan!—, unibertsitatean eta gai jasoen gainean jarduteko erabiltzen den hizkera berbera erabiltzen dugu kalean eta lagunarte giroan. Hau diodanean, irakasle, kazetari, itzultzaile eta idazle jendea daukat, batez ere, gogoan.

Garbi dago, hizkera zuzena eta jaso erabiltzea dagokiola aipatu den jende mota horri, baina herri barruko eguneroko jardun arruntean ez dago *abantaila*, *biderkatzaile*, *esleitu*, *helegitea* bezalako hitzak erabili beharrik. Ez dut uste, hitz arruntagoak eta herriko hizkera bera erabili arren ere, jende horren prestigioa eta begirunea ezertan gutxituko eta galduko direnik.

Kazetari jendea bereziki, hizkera jasoaren eta hizkera pedantearen arteko mugan ibiltzen da maiz, eta bigarren honetan erortzen da behin eta berriz. Hona hemen egunkari batetik hartutako adibidea:

*Ene aburuz, atzoko partida zuzendu zuen epaileak bost jokalaria, bederen, igorri behar zituzkeen aldagelara.*

Esan dezadan, gauzak bere lekuan ipintze aldera, kazetaria Hego Euskal Herrikoa zela —ez Lapurdikoa edo Zuberoakoa— eta futbol kontuez ziharduela, eta futbola dela Hego Euskal Herriko jende gehienak gogokoen duen kirola. Hori horrela izanda, alfabetatuta dagoen edonor izan behar luke futbol albisteak irakurtzeko gauza. Nik neuk, ostera, ez dut ikusten esaldi horretako euskara, Hego Euskal Herriko edonork ulertzeko modukoa.

- DEBABARRENA
- DEBA ERDIKOA
- DEBAGOIENA



**DEBA IBARREKO HIZKERAK**

© Koldo Zuazo

MARRAZKIA: Andoni Elordui

Itzultzen dihardutenengan ere nabarmena da hizkera pedantea erabiltzeko joera, bai gaztelania eta bai frantsesa oso hizkuntza pedanteak eta barrokoak direlako ziurrenera, eta gu geu ere hizkuntza horien maila berean jartzen ahalegintzen garelako. Euskara erdarekin berdintzea da gure ametsa, ustez eta erdarak direla gauza guztien neurria eta eredia. Hona hemen Eibarren, gurasoak bizi diren etxeko atarian irakurri nuen oharra:

*Datorren asteazkenean argi mozketa bati bide emango zaio goizeko 7etatik 9ak bitartean. Barka eragozpenak.*

Zer esan horrelako “euskararen” aurrean? Ba, eskerrak, aldamenean erdarazko itzulpena zegoena. Akabo bestela!

Esandako hau guztiau laburtze aldera, hauxe da nire iritzia. Ondo dago hizkera jasoa jakitea eta erabiltzea, baina non den eta norekin den izan behar dugu kontuan. Zenbait lekutan eta zenbait lagunen aurrean, egokiagoa da hizkera arruntagoa erabiltzea. Eta ez dezagun pentsa, arrunta, narrasaren eta euskalgaiztoaren berdina denik. Bai zera! Arrunta esaten dudanean, *ahozko hizkeratik gertukoa* esan nahi dut, besterik gabe.

Baina, gainera, hizkuntzaren erregistroak lantzeak, hizkuntza aberastearekin batera, beste ondorio bi ere badakartza: hizkuntzarekin jolas egiteko eta gozatzeko balio du, eta hizkuntza sortzeko ere balio du. Honetaz ere, astiroago eta xeheago jardungo dut.

\* ”Deba erdikoa” deitura baino egokiagoa “Deba artekoa” dela, esan didate zenbaitek. Bertako bizilagunen artean egin dudana galdeketaren arabera, oster, arrotza egiten zaie deitura, eta arrotza egiten zait niri neuri ere.

Galdeketa berean, “Deba ibarra” ala “Deba arroa” zein ote den egokiagoa galdetu dut, eta *arroa* hitza arrotza egiten zaiela erantzun dute askok eta askok. Leintz aldean baizik ez da ezaguna.

Hori dela-eta, *Deba ibarra*, batetik, eta *Deba erdikoa*, bestetik, erabiliko dira liburu honetan.

## HIZKUNTZAREKIN JOLAS EGITEKO ETA GOZATZEKO GAITASUNA

Hizkuntzalariak, hizkuntzak komunikatzeko direla diote, eta arrazoi osoa dute horretan. Komunikatzea da, izan ere, hizkuntzen oinarritzko zeregina. Oinarritzkoa bai, baina inondik inora ere ez bakarra eta azkena. Hizkuntzak gozatzeko eta gustura egoteko ere badira, eta oso inportantea da, gainera, zeregin hori. Gozagarria den hizkuntzak, bereganatu egingo gaitu, eta gozakaitza denak, atzera botako gaitu.

Euskaldun berriak ugaritzea, euskarari esparru berriak zabaltzea, eta euskara jaso egitea izan dira orain arteko hizkuntza politikaren ardatz nagusiak, baina ezinbestekoa dugu laugarren bat ere gehitzea: euskararekin jolas egitea eta gozatzea.

Joan den hiru-lau hamarkadotan, egoera eta esparru guztietan erabili dugu euskara jaso berbera, eta hori, azkenean, gozakaitza gertatzen da. Gozakaitzak gertatzen dira gure testuliburuetaiko asko, gure egunkari eta aldizkarietaiko asko, gure literaturako liburuetaiko asko, gure kaleetaiko ohar eta iragarkietako asko, eta gozakaitz den hori, gozagarri egin behar dugu, hiztunak geureganatu nahi baditugu.

Gorago esan dudanez, euskara eskolarekin lotzen du gazte askok, eta, eskolarekin etena egitearren, eteten du euskararekin ere zenbaitek. Euskaraz irakaslearen aurrean, eta erdaraz lagunartean, horixe da gazte zenbaiten jokabidea.

Jakina, euskara gure bizimoduko esparru guztiekin lotu beharra dago: lagunartearrekin, jolasarekin, kirolarekin, gauza guztiekin, eta, batez ere, gauza atseginekin. Orain arteko eskolan euskaraz, eskolatik kanpo erdaraz hori konpontzeko, esate baterako, *eskolan euskara jaso, eta behin epe jakin batetik aurrera, euskara batua, eta, eskolatik kanpo, herriko eta lagunarteko hizkera* izan daiteke irtenbidea.

Joseba Sarrionandiak *Gartzelako poemak* liburuan egin zuen deiadarra dakarkit honek guztionek gogora: EUSKARA DA GURE TERRITORIO LIBRE BAKARRA zioen, etsita, kartzela zulotik. Nik ere antzeko deiadarra egiten dut Eibarko peora honetatik: EUSKALKIXA DA HIZKUNTZIAREKIN JOLASTEKO ETA GOZATZEKO BARRUTIXA.

### HIZKUNTZA SORTZEKO GAITASUNA

Idazleak, bertsolariak eta itzultzaileak direla hizkuntzaren sortzaileak uste du zenbaitek, eta hori ere egia da, baina ez egia osoa: hiztun guztiok gara sortzaileak. Kontua da egoera jakinetan garela sortzaileak.

Ikasle batek, esate baterako, ez du ezer sortuko eskolako azterketa bat egiten diharduenean. Ezer sortuko badu, gustura eta eroso egon behar du. Eskolako azterketan gabe, lagunartean dagoenean sortuko du. Lagunartean egingo ditu hitz jokoak, eta lagunartean bilatuko die hitzei bigarren adiera. Garbi dago, ba, lagunarteko hizkera, jolasekoa dela hizkuntza sortzeko eta berritzeko benetako



EGOITZ UNANUE

*Deba Ibarretik Euskararen Herrira iristeko bidea urratu behar du eskolak.*

harrobia. Gazteek lagunartean euskaraz jardutea lortzen badugu, berez-berez etorriko da hizkuntza bizia, indartsua eta sendoa. Horixe da, beraz, gure lantegia.



### 3. HELBURURA IRISTEKO BIDEAK

**E**san diren helburuak lortzearren, edo, behintzat, helburu horietara hurreratzearen sortu zen BADIHARDUGU Alkartea. Deba ibarreko hizkerak ezagutzea zen hasierako eginkizuna, eta *Deba ibarreko euskaria* liburua (Eibar: Deba ibarreko udalak, 1999) izan zen horretarako lehen urratsa. Gure euskara ez zela berdina, eta hiru gune nagusi zirela, erakutsi zen bertan:

1. *Debagoiena*: Aramaiok, Leintz ibarrak (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate) eta, aldeak alde, Oñatik osatua.
2. *Deba erdikoa*\* : Antzuolak, Bergarak, Soraluzek, Elgetak, Eibarrek, Ermuak eta, aldeak alde, Mallabiak osatua. Dena dela, eremu hau ez da zeharo berdina.
3. *Debabarrena*: Elgoibarrek, Mendarok eta Mutrikuk osatua. Debak berak ere —ez hainbeste Itziarrek— badu eremu honekin zerikusia.

Azkenengo hauxe da hiruretan bereziena. Debagoiena eta Deba erdikoa mendebaleko euskalki barrukoak dira, eta Debabarrena ezin da, ez horretan, ez bestetan, erabat sartu: mendebalekoaren eta erdialdekoaren tartekoa da.

Egoera nabar honek ez gintuen, egia esan, askorik arduratu. Batetik besterako aldeak gorabehera, gure artean ez da aditu ezinik sekula izan. Gainera, *Deba ibarrerako euskara batu bat egitea ez da inondik inora ere gure asmoa*. Beste batzuk dira urratu nahi ditugun bideak.

Hasteko, gaur egungo egoera hobetzeko, eta euskara normaltasun egoerara ekartzeko, herri euskaldunetan, euskara batuaz gainera, bertako hizkera ere erabili egin behar dela uste dugu. Zein bere esparruan, hori bai, baina biek izan behar dute bakoitzak bere lekua.

Bigarrenik, euskara batua malgua izan behar dela uste dugu, eta zenbait egoeratan eta zenbait jardunetan, *eskualdeko euskara batua* erabiltzearen aldekoak gara.

Baina guk ez dugu hizkera berririk sortu nahi. Ez dugu uste giputz baturik, lapurtar baturik, nafar baturik edo bizkaitar baturik sortu beharrik dagoenik. Ezta, jakina, Deba ibarreko euskara baturik ere.

Astiroago eta xeheago jardungo dugu honetaz guztiaz.

### **Herriko hizkera**

Gorago erakutsi dira herri euskaldunetan bertako euskara erabiltzeak ekar ditzakeen onurak; ez dut, beraz, atzera berriro jardungo horretaz. Beste bi dira askatu beharreko korapiloak. Alde batetik, *non eta noiz* erabili behar ote dugun euskalkia, eta honen erantzuna zehatza da: *ahozko jarduna da euskalkiaren berezko esparrua*.

Euskalkia *nola* erabili da askatu beharreko bigarren korapiloa. Galdera honi erantzuteko, euskalkiaren barruan hizkera bi direla izan behar dugu gogoan: *lagunartekoa* eta *jaso*.

Berez ateratzen zaigun hizkera da lagunartekoa, eta hor ez dago inolako araurik ematerik. Hiztun bakoitzaren esku dago, lagunartean dagoenean, hizkuntza nola erabili. Lagunarteko hizkera noiz eta non egin behar den, berriz, izenak berak esaten digu: lagunartean gaudenean, eta lagunarteko gaiez dihardugunean.

Hizkera jasoak, ostera, baldintza jakin batzuk bete ohi ditu:

- a. Lagunarteko erdarakada gordinak beztertzea, eta, ahal dela, euskarazko jatorrak erabiltzea.
- b. Hitzak osorik esatea eta idaztea.
- c. Idazterakoan, hitzak banan ezartzea.
- d. Idazterakoan, ortografia estandarrari jarraitzea, edo beste era batera esateko: Euskaltzaindiak euskara baturako eman dituen arauak betetzea.

Adibide batzuen bitartez azalduko dut esan nahi dudana.

Erdarakada ugari erabiltzen dugu lagunarteko jardunean, baina kontu handiagoz jokatu ohi dugu hizkera jasoan: premiazkoak direnean baizik ez dira erabiltzen erdarazko hitzak, euskarak dituen hutsuneak betetzeko ezinbestekoak direnean. Premiazkoak dira, esate baterako, *paparazzi* eta *yakuzzi* eta, premiarik gabeak, ostera, gure jardun arrunteko *bentania* eta *kaballua*.



*Eskualdeko irratiek badute gertuko hizkerak komunikazioan duten eraginaren berri. Argazkian Don Pedro Gorostidi (1916-2001), Eibarko "Arrate Irratia" 1959an sortu zuena.*

Hitzak laburtu egiten ditugu lagunarteko jardunean: *beak ei juan*, edo *neuk eitte'ttut konprak* esaten dugu, konparazio baterako. Hizkera jasoan, *berak egin juan*, *neuk egiten ditut* (edo *egitten dittut*) *erosketak* esatea eta idaztea da egokia.

Hitzak batu egiten ditugu ahozko jardunean: *erreikipe!*, edo *bapaño eztoketorri*, esate baterako. Egoki da ahozko jardunean horrela esatea, baina maila jasoan idazterakoan, *erre egik hik be!*, *bat baiño ez dok etorri* da egokia.

Bestalde, gainerako hizkerak bezala, Deba ibarrekoak ere baditu bere ezaugarri jakinak: ez dugu <h>-rik esaten, eta ez ditugu <z> eta <s>, <tz> eta <ts> bereizten. Askok eta askok, <tt> ordez, <tx> esaten dute, eta, <d> ordez, <r> esaten dute batzuek, baina, idazterakoan, Euskaltzaindiak euskaldun guztiondako emandako arauak betetzea da bidea.

Gauza guztietan bezala, honetan ere izango dira salbuespenak, baina, behintzat, horiexek dira oinarrizko irizpideak.

Eta zeintzuk dira hizkera jasoaen esparruak? Gehienbat, jendaurrean, eta jende ezezagunaren eta adinekoaren artean gaudenean, eta gaia jasoa denean, erabili ohi da hizkera jaso, hau da, batzarretan, hitzaldietan, elizkizunetan, Administrazioko langileek herritarrekin dituzten zuzeneko hartu-emanetan, eta herri barruko irrati eta telebistetan. Eskolako hasierako urteetan ere, Haur Hezkuntza zikloan, herriko hizkera jaso izan behar luke lan-tresna. Ondorengo zikloetan egingo da herriko euskaratik euskara baturako urratsa.

Bada oraindik askatu beharreko beste korapilo bat: euskalkia idatzian erabil daiteke ala ez?

Lagunarteko hizkerarako ez dagoela arauak ematerik esan dut eta, beraz, norberaren esku dago nola idatzi, lagun bati, gutun bat, edo e-mail bat, edo beste edozein gauza. Garbi dagoena zera da: gertuko lagunarekin, gertuko hizkera erabili ohi dela, eta ez dirudi zentzuzkoa, lagunarekiko ahozko jardunean, euskalkia, eta, idatzizkoan, euskara batua erabiltzea. Dena dela, zentzuzkoa ez

dirudien hori sarri ikusten da gure artean.

Nik neuk, gainera, esparru jasoko idatzi jakin batzuetan euskalkia erabiltzea ez dela kalterako uste dut. Izan ere, hizkuntzak entzun ez ezik, *ikus*i ere egin egin behar dira. Hizkuntza ikusten ez denean, txarra dela, mugatua dela, ez dela duina pentsatzen du hiztunak, eta horren aurkakoa da, lotsaz eta konplexuz betetako euskal gizarte honetan, zabaldu behar den irudia eta mezua.

Baina *esparru jakin batzuetan* idatz daitekeela euskalkian esan dut, eta lau dira, gehienbat, esparru horiek:

- a. Herri barruko ohar eta iragarki laburrak.
- b. Haurrendako ipuinak eta bestelako irakurgaiak.
- c. Herri barruko aldizkarietako sail bereziak. Esate baterako: herritarrei egindako elkarrizketak, gazteek gazteendako egindako saioak, herriko hizkera jasotzea eta lantzea helburu duten sailak.
- d. Zenbait literatura generotan, ahozkoatasunarekin lotuta daudenetan, batik bat.

Euskalkia idatzian erabiltzeak, dena dela, euskara batuaren eredutik aldentzen diren alderdietarako balio du gehienbat. Hau diodanean, Deba ibarra daukat gogoan, ez Tolosa edo Lezo, esate baterako. Kontua zera da: ahozko hizkera lantzea eta garatzea da, izan, helburua, eta mendebalean, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, ahozko hizkera hori asko aldentzen da euskara batuaren oinarritik. Ahozko hizkera lantzeak euskalkia lantzea dakar, ezinbestean, alderdi horietan.

### **Eskualdeko euskara batua**

Batzuek, nonbait, euskara batua harrizkoa izan behar dela uste dute. Niri, ostera, uste hori osatu eta zabaldu egin behar dela begitantzen zait.

Zalantzarik gabe, unibertsitateko ikerlan bat, edo Euskal Herri osoan

zabalduko den testuliburu bat, ahalik eta euskararik berdinenean egitea komeni da. Leku txikia dauka hor norbere herriko, edo norbere eskualdeko hizkerak. Zabalduen dauden hitzak eta egiturak, euskaldunik gehienek errazen eta erosoan ulertzen dituztenak, erabili behar dira horrelakoetan. Jokabide berbera izan behar genuke, jakina, Euskal Herri osoko hedabideetan, edota Euskal Herri osoko hiztunak elkartzen diren kongresu, jardunaldi eta era guztietako batzar eta ekitaldietan. Azken batean, gauza bat izan behar dugu ondo iltzatuta buruan: Euskara batua dela Euskal Herriko eta, are gehiago, Euskararen Herriko hizkuntza.

Baina beste kontu bat da esparru mugatuetan dihardugunean: geure herri barruan, edo geure eskualdean, esate baterako. Horrelako esparruetan ere sarri izango dugu euskara batua erabili beharra. Euskara batuan egin beharko dira, adibidez, edozein erakundetako agiriak eta txostenak. Eta nolako batua erabili behar da, ba, horrelako esparruetan? Nire ustez, herritarrengandik gertukoa, eta horrexeri deituko diot *eskualdeko batua*.

Adibide batekin azalduko dut esan nahi dudana.

Jo dezagun ohar bat ipini behar dugula Arrasateko lantegi batean, eta jo dezagun alderdi askotako langileak daudela bertan: Leintz aldekoek gainera, Durangaldeko bizkaitarrak, Urola eta Goierri aldeko giputzak, Gasteiz aldetik etorritakoak... eta ezin dugula Arrasateko hizkera bere gordinean erabili. Zer egin, orduan? Ziurrenera, batua erabiltzea izango da zentzuzkoena eta egokiena. Baina, zein batua? Ezbairik gabe, Leintz aldekoa. Eta era honetara idatz liteke oharra:

*Datorren egunean, batzarra egingo dugu arratsaldeko lauretan, aurtengo konbenioaren gainean berba egiteko*

Eman dezagun ohar hori Lesakako *Laminaciones* lantegian ipini behar dugula, eta arazo berbera daukagula han ere: Nafarroako alderdi askotako langileak, giputzak, bizkaitar banaka... eta, erosotasunez eta egokitasunez, euskara batua erabili behar dugula. Han ere, ezbairik gabe, Bortzirietako batua erabiliko nuke, eta era honetara geratuko litzateke lehengo oharra:

*Heldu den ortzegunean, bilera eginen dugu arratsaldeko lauretan, aurtengo konbenioaren gainean solasteko*

Ohar biak, Arrasatekoa eta Lesakakoa, euskara batuan daude, baina oso batu desberdinean bietako bakoitza. Azken batean, horixe besterik ez da euskararen eta mundu zabaleko beste edozein hizkuntzaren izaera malgua, orain artean ezertarako ere aintzakotzat hartu ez duguna, eta batere etekinik atera ez dioguna.

Zer egin gauzak bere onera ekartzeko?

Goitik behera aldatu behar dugu joan den urteotako jokabidea. Euskara batua “inoren” hizkuntza dela pentsatu dugu orain arte. Ipar Euskal Herriko askok, Hegoaldeko kontutzat daukate euskara batua: ‘Hegoaldeko euskara + espāñola’ dela, diote. Hego Euskal Herrira etorri, eta nafarrei, arabarrei eta bizkaitarrei galdetuta, zera diote: ‘euskara giputza’ dela, euskara batua. Gipuzkoara joanez gero, azkenik, han bai, han badira euskara batua oso eurena dela uste dutenak, eta lasaitasun eta patxada handiz, *det, gera, dijua, nere, bezela, eskubi* esan eta idazten dutenak. Baina, jakina, hori ere ez



*Herriko hizkeran egin behar ditu umeak bere lehen urratsak, eta guraso erdaldunen seme-alabak ere hobeto bertakotu dira herriko hizkera hori*

da zuzena.

Giputz ez garenon jokabidera etorriaz, geure hizkera alde batera utzi, eta beste hizkuntza batean jardun behar bagenu bezala aritzen gara sarri. Esate baterako, geure eguneroko jardunean, *kantsauta nago*, eta *etxera noia* esaten dugu, eta euskara batua erabiltzeko orduan, beste hauxe esan eta idazten dugu:

*etxera noa, nekaturik bainago*

Garbi dago, gure *noia* hori *noa* dela batuan, eta garbi dago, gure eguneroko *kantsau* hori baino egokiagoa dela *nekatu*, eta, egokiagoa, ez bakarrik euskara baturako, baita geure herriko hizkera jasorako bertarako ere.

Baina behin *noia* → *noa* eta *kantsau* → *nekatu* aldatu eta gero, ez daukagu beste aldakuntzarik egin beharrik. Zer dela-eta *nekatuRIK* eta *BAInago* erabili behar hori? Ez ote dira, ba, nahikoa batu, geure etxe barruko *nekatuTA* eta *nago ETA*? Ala “bigarren mailako” batukoak ote dira horiek? Besteen aldean menusagoak eta ezdeusagoak?

Azken batean, gaixotasun bat dago jokabide horren azpian: mendeetako konplexua. Eta konplexua daukagulako uste dugu geure etxekoaren aldean hobea dela etxekonekoa, eta etxekonekoa bera baino askozaz hobea, gainera, urrunekoa. Tolosaldeko giputzek erabiltzen dutena, eta Lapurdiko XVII. mendeko idazleek erabiltzen zutena, hura bai, hura, euskara ona! Hura bai euskararen loria eta lorea!!

Etorkizunari begira, konplexu zentzugabe horiek baztertu, eta beste ikusmolde bat sartu behar dugu geure buru-bihotzetan: Euskara batua egiterakoan, geure hizkeran oinarritu behar dugula. Geure hizkerari arau jakin batzuk erantsi, eta horixe besterik ez dela euskara batua. Laburrago, eta goiburu bezala esanda, honela zehaztuko nuke euskara batuaren izaera: NORBERAREN BERBETA, EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK GEHITUTA.

**Herriko hizkerak eta euskara batua**



Azkenaldi honetan, bolo-bolo dabil bizkaitar batua sortu eta zabaldu beharra, baina ba ote da, gaur egun, lapurtar baturik, edo nafar baturik, edo giputz baturik, edo beste edozein euskalki batu eraiki beharrik? Zeharo eta erabat ezezkoa da nire iritzia, eta Deba ibarra bera erabiliko dut iritzi hori arrazoitzeko adibide.

Deba ibarreko hizkerak, Mutrikun hasi eta Gatzaga bitartekoak, nabarmen desberdinak dira, baina hala eta guztiz ere, nork bere herriko hizkera erabiltzen du gutariko bakoitzak geure arteko jardunean. Hala egin dugu orain arte, eta hala egingo dugu hemendik aurrera ere.

Deba ibarretik irten, eta Lea-Artibai eskualdera edo Durangaldera goazenean ere, geure herriko hizkeran jardun ohi dugu, tankera berekoak direlako eskualde horietako hizkerak eta gurea.

Urolaldera edo Goierrira goazenean ere, geurean jardun dezakegu, orain artean jardun dugun bezalaxe. Orain artean bezalaxe, txantxak eta adar jotzeak egingo dizkigute gure <x> (*mendia* → *mendixa*) edo gure <j> (*diat* → *juat*, *nian* → *najuan*) direla eta ez direla. Baina txantxak eta adar jotzeak gorabehera —eta horretan geu ere ez gara atzean gelditzekoak—, ez daukagu batak besteari aditu ezin handirik, eta hasierako oztopoak gainditu ondoren, gozatu ere egiten dugu batak bestearen hizkeraren berezitasunak entzuten eta ikasten. Eta ez dezagun sekula ahaztu, txantxetan eta adar soinuan jardutea, eta euskalkiekin gozatzea, *hizkuntzaren aldeko indarrak* direla.

Baina zer egin urrunago joaten garenean? Urrunago joaten garenerako, badugu euskara batua, edo badugu, bestela, geure alderdiko euskara jaso. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ibiltzeko, euskara batua dugu bidelagun, eta Bizkai barrualdean ibiltzeko, geure herriko hizkera zabaldu, eta laster konponduko dugu ezin aditua.

Berriro esango dut: geure hizkerarekin eta euskara batuarekin, nahikoa daukagu gaur egun. Ez dago herrialdeko euskalki baturik sortzen eta ikasten jardun beharrik. Euskalki batuak, gainera, mesedegarri baino gehiago, kaltegarri direlakoan nago, eta batez ere hiru arrazoigatik esaten dut hori.

## EUSKALKIAK EZ DIRA HOMOGENEOAK

Euskara batuari urruneko usaina hartzen badiogu, euskalki batuekin ere beste horrenbeste gertatuko zaigu. Nafarroan, esate baterako, oso desberdinak dira Baztango hizkera eta Sakanakoa. Zer euskalki batu egin dezakegu han? Nafarroa Beherean ere desberdinak dira Amikuzeko eta Baigorriko hizkerak, eta gauza bera gertatzen da Bizkaian ere. Lezamako hizkera eta Lekeitiokoa, bi dira, eta nola batera ekarri, hain desberdinak diren izaki bi?

Bizkaiari dagokionez, XIX. mende hasieratik izan dira hizkuntza eredu bi: mendebalekoa eta ekialdekoa. Añibarro izan zen bataren burua, eta Mogeldarrak, Frai Bartolome eta Astarloa, berriz, bigarrenaren aldekoak. Batzuen eta besteen arteko eztabaidak etengabeak izan ziren, eta nola ez ziren, ba, izango, hain desberdinak dira-eta bateko eta besteko hizkerak! Lezama eta Lekeitio aipatu ditut arestian, baina beste hainbat bikote osatuko ditut jarraian: Otxandio eta Bakio, Elorrio eta Zeberio, Ondarroa eta Lemoa, Durango eta Berango, Gizaburuaga eta Arrigorriaga, Berriz eta Urduliz, Aulesti eta Zeanuri... zertarako segi? Bikote horiek guztiok ezin dira etxe berean sartu. Hiztegia ez ezik, fonologia eta morfologia ere nabarmen aldatzen da Bizkaiko ertz batetik bestera, eta hartzen den erabakia hartzen dela, beti izango da artifiziala. Eta, hain zuzen, *artifiziala da saihestu behar duguna. Alegiazkoa eta sasikoa gabe, berezkoa eta betikoa da indartu behar duguna.*

## EUSKALKI BATUAK IKASTEAK DAKARREN LANA

Herri euskaldunetako hizkerak indartu beharraz mintzatu naiz, eta horretarako arrazoiak agertu ditut: buru-bihotzetan dauzkagun konplexuak baztertzeko, geure buruarekin konfiantza eta ziurtasuna izateko, euskaraz lasai eta eroso jarduteko eta ondorengo belaunaldiei erakusteko, euskararekin jolas egiteko eta gozatzeko, eta hizkuntzarekin jolas eginaz eta gozatuaz, sena lantzeko eta hizkuntza sortzeko. Horiexek dira, nik neuk, herriko hizkeren alde egiteko ditudan arrazoiak. Ikusten denez, ba, euskalkien alde banago, ez da erromantizismo eta sentimentalismo hutsez. Bai zera! Ezta hurrik eman ere!!

Helburu horiek lortzeko, geure hizkera, betikoa eta berezkoa, baliatu behar dugu. Geure berezko hizkerari atera deiezaiokegun etekina, ezin diezaiokegu batu artifizial bati atera. Adibide bat ipiniko dut.

Zer aurreratzen dugu oñatiar bati, bizkaitar batuaren izenean, *jako* 'zaio' irakatsita? Eta zer aurreratzen dugu, *deutsa* 'dio', *deutsaz* 'dizkio', *neskea* 'neska', *neskakaz* 'neskekin', *erretan* 'erretzen', edo *pasetan* 'pasatzen' irakatsita?

Erantzuna garbia da: ez da ezer aurreratzen, eta dena atzeratzen da. Dena atzeratzen da, euskara batuaz gainera, bizkaitar batua ere ikasi egin behar duelako. Ikasi egin behar du bizkaitar batua, Oñatin ez direlako esaten *jako*, *deutsa*, *deutsaz*, *neskea*, *neskakaz*, *erretan* eta *pasetan*. Oñatin, *xako*, *xau* ('dio' zein 'dizkio' balioarekin), *neskia*, *neskekin*, *erreten* eta *pasaitten* esaten dira.

Garbi dago oñatiarrek euskara batua ikasi beharra daukatena, oñatiar izateaz gainera, euskaldunak ere badirelako. Baina euskara batuaz gainera, bizkaitar batua ere ikasi beharra ez ote da, gero, bazterrak nahastea? Ez ote zaigu guri ere gertatuko Txirrita zaharrari gertatu zitzaiona, betikoa ahaztu eta berria ez ikastea? Ez ote zaigu guri ere gertatuko, jendea, bata eta bestea ikasi beharrezkin aspertzea eta gogaitzea, eta azkenean, ez bata eta ez bestea ikasi ez, eta erdara bakarrera alde egitea?

Bide errazera jotzea da onena eta onuragarriena, eta geure etxean eta geure herrian, oharkabeen, ahalegin berezirik egin gabe ikasi dugun hizkera da bide erraza. Jakina, geure etxeko horren azpian zer dagoen ikasi beharko dugu: geure *ekarri'ttu* horren azpian, *ekarri ditu* dagoela, edo geure *lagunan* horren azpian, *lagunaren* dagoela, jakin beharko dugu. Baina zer aurreratzen dugu, geure etxeko *neskia* eta batuko *neska* jakiteaz gainera, bizkaitar batuko *neskea* ere jakin behar izatearekin? Non dago horren onura?

Gainera, euskara batuari bezalaxe, arau zehatzak eta zorrotzak ezarri nahi dizkio zenbaitek euskalkiari eta norbere herriko hizkerari ere. Zeharo bestelakoa da nire iritzia. Arauak eta hesiak nahi dituenak, nahikoa eta gehiago ditu euskara batuan. Bila dezagun, ba, lasai eta nasai ibiltzeko aukera geure herriko hizkera horretan. Gure

herrian *lagunaz* eta *lagunakin* esaten direla, ba erabil ditzagun biak, eta aurrera. Gure herrian *lagunandako* eta *lagunantzako*, *gorrittuten* eta *gorriketan*, *eban* eta *zeban*, *lagun bi* eta *bi lagun*, *guztia* eta *guztixa*, *naz* eta *naiz*, *ebai* eta *ebaki*, *fan* eta *juan*, *olgau* eta *jolas egin*... denetarik esaten dela, ba erabil dezagun geuk ere denetarik, geure gustuaren eta geure senaren arabera. Izan dezagun, behinik behin, geure herriko kaleetan, geure lagunartean, geure herriko hedabideetan, hesirik eta araurik gabe, hizkuntzarekin jolas egiteko eta gozatzeko aukera! Izan dadila, behinik behin, euskalkia jolas egiteko eta gozatzeko barrutia!!

Dena da orduan libre, euskalkiaren izenean?

Ez dena. Zuzena eta zuzena ez dena da muga jakin bakarra: *lagun bi* eta *bi lagun* biak dira zuzenak, baina ez *\*bat lagun*. Horixe da erabili ezin dena.

Kontua da, azkenaldi honetan, belaunaldien arteko hizkuntza lotura behar bezala egin ez denez, euskara ere ez dela behar bezala aldatu. Eta ni neu aldakuntzaren alde nago zeharo, aldatzen ez den hizkuntza hilda dagoelako, baina ezer aldatzeko, hizkuntzaren egitura ezagutu behar da, eta hizkuntza sena izan behar da.

Baldintza bi horiek bete ez direlako, zabaldu dira, bolada honetan, *atzo ikusi neutsun*, *zeuk be egin leikezu*, *ez dakit etorriko bada* tankerako egiturak. Egitura horiexei, zuzenak ez direnei, ipini behar zaie hesia. Atzera begira jarri, eta betiko *atzo ikusi zintudan*, *zeuk be egin zeinke*, *ez dakit etorri dan* berreskuratu behar ditugu.

## HIZKUNTZAREN BATASUNERAKO OZTOPO

Lan luzea eta neketsua izan da euskaldunok hizkuntza baten inguruan batzea, eta hizkuntza bakar bat eraikitzeke egitasmoan bateratzea. Herri zaharra da gurea, hasierarik ez omen duena, behialako apologiagilearen esanetan, baina, aitzindariak aitzindari, euskaldun guztiok hizkuntza egitasmo berberaren barruan lanean jarduteko, 1968a arte itxaron behar izan dugu.

Urte esanguratsua da, ba, 1968koa; gure historia luzeko esanguratsuenetakoa, zalantzarik gabe, eta dena hondatzeko eta dena galtzeko arriskua daukagu, zentzuz eta jakitez jokatzen ez badugu. Euskararen eta Euskal Herriaren aldeko jarrera sendotzea eta indartzea ekarri du euskara batuak, eta ezin dugu jarrera hori ahultzen eta galtzen utzi.

Egia da batasunaren barruan banatasunak ere bere xarma duena. Baina banatasuna benetakoa eta jatorra izan behar da, ez itxurazkoa eta alegiazkoa. Izan ere, nork ez du gogoko Lekeitiora joan, eta bertako euskara bizia eta berezia entzutea? Nork ez du gogoko Lekeitiotik hurrengo herrira joan, Ondarroara, eta han ere euskara bizia, baina Lekeitiokoaren aldean desberdina, entzutea? Nork ez du gogoko Ondarroatik hurrengo herrira joan, Mutrikura, eta han ere euskara bizia, baina Ondarroakoaren aldean desberdina, entzutea? Hizkuntzarenganako sentibera den edonork du euskara bizia eta benetakoa gogoko. Baina *bizia eta benetakoa* diot, ez *paperetan baizik bizi ez den alegiazkoa eta sasikoa*.

Eta, azken batean, horixe besterik ez da bizkaitar batua: Bizkaiko hizkeren suzedaneoa. Ez, gainera, Bizkaiko hizkera guztiena, Bizkaiko mendebalekoena baizik ez delako: hain zuzen, gaur egun euskara gutxien egiten den, eta gaizkien dagoen alderdikoa.

Gaur egungo bizkaitar batu berria egiten dihardutenek, gainera, euskara batuko osagaiak ere eskuzabal sartzen dituzte euren mazedonian. Ergatibo pluralean, esate baterako, Bizkaian betidanik erabili izan den *-ak* atzizkiaren orde, euskara batuko *-ek* aldarrikatzen dute (*gizonEK ekarri dabe*), eta tankera horretako beste hainbat “konponketa” eta “apainketa” egiten dihardute:

partizipioetako betiko *-au (komunikau)* eta *-idu (transmitidu)* gabe, euskara batuko *-atu (komunikatu)* eta *-itu (transmititu)*; erakusleak izenaren ezker eta eskuin ipintzeko arauaren ordeztan (*hau liburuau*), izenaren eskuinetara baizik ez ipintzea, euskara batuan legez (*liburu hau*); aditz izenetan betiko aukera zabalari jarraitu ordeztan (*sartzean, jotzen, apurtuten / apurtan...*), euskara batuko aukera bikoitzari (*-tzen* eta *-ten*) amore ematea, *itxi* aldaera jatorraren ordeztan, euskara batuko 'utzi'-ren antzekoagoa den *itzi* sasikoa erabiltzea... Azken batean, ez ura ez ardoa izan ohi da horrelako nahasteen emaitza, eta ez ura ez ardoa ez den edaria, sekula ere ez da izaten gozagarria.

Okerrena, baina, nahasketa horietatik datozen ondorio soziolinguistikoak izaten dira. Hizkuntza gozagarri izango bada, bizia eta benetakoa izan behar da. Ezaugarri horiek ez dituen gozaezin edo, behintzat, gozakaitz izaten da. Añibarroren euskarak, esate baterako, irri eta malko gutxi eragingo du, eta nekez bereganatuko du irakurlea. Frai Bartolomerena, ostera, gozagarri gertatzen da, eta irakurlea zaletzen du.

XIX. mende hasieran bezalatsu dira gauzak XXI. mende hasieran. Hizkuntza gozagarria den lekuetan, erabili egiten da. Gozakaitza den lekuetan, berriz, alde batera utzi, eta erdarara ihesi joaten da. Mendebalde Euskal Kultur Alkartearen *Euskalkiak eta hezkuntza* liburutik (Bilbao: 2001) hartu ditut argibideak. Ez dira, ba, geuk sortutakoak, eta gure aldera egiten duten susmopekoak. Mendebaleko gazte unibertsitariak, euskalkia zenbat erabiltzen duten neurtu zuten Fernando Olabarrietak, Olatz Altunak, Oihana Munduatek eta Xabier Isasik "Bizkaiera eta unibertsitatea: azterketa demolinguistikoa" txostenean, eta, hitzez hitz, hauxe esan zuten bertan (93. or.):

Deba arroan bizi diren ikasleek bizkaieraz gehiago hitz egiten dute Bizkaian bertan bizi direnek baino. Etxean zein lagun artean Deba arroko ikasle euskaldunen artean bizkaieraren erabilera aitortua (inkesta bidez jasotakoa alegia) nabarmen areagotzen da. Bizkaitarren %37,4ak etxean eta %32,7ak lagun artean *bizkaieraz asko* hitz egiten duela dio. Deba arroan bizi direnen artean, aldiz, hurrenez hurren %55,2ak eta %67,6ak erantzun bera eman dute.

Deba ibarrean, bertako euskara indartzeari eman zaio lehentasuna. Egitasmo zehatzak osatu dira transmisioa sendotze aldera. Eibarren eta Bergaran egin da ahaleginik handiena, baina gainerako herriak ere bide beretik ibili dira. Eta, jakina, bere emaitza ekarri du ahaleginak. Bada, gainera, inkestaren egileek aztertzen ez duten datu bat, baina oso kontuan hartzekoa begitantzen zaidana: etxean baino gehiago erabiltzen dela euskalkia kalean. Txostenaren arabera, behinik behin, %55,2ak etxean, eta %67,6ak kalean. Gurasoak erdaldunak, edo Euskal Herriko beste alderdi batzuetatik etorritakoak direla esan nahi du horrek, eta seme-alabak bertakotu egin direla. Azken batean, ba, Deba ibarrean, euskalkia indartu ahala, euskara ere indartu egin da, eta euskara batua bera ere bai, jakina. Ez al da, ba, horixe helburua?

Aldiz, Bizkaiko barrualdean euskara atzeraka doa oraindik; Bizkaiko mendebalean bereziki. Asko dira, jakina, atzerakada horren arrazoiak, baina ezin zaie errua beti besteei egotzi. Inmigrazioak, Madrilgo hizkuntza politikak, erdararen handitasunak eta beste hainbat indarrek eragin zuzena daukate euskararen atzerakadan, baina norberak oker jokutzen duenean ere, okerrak izaten dira ondorioak.

Ona eta egokia izan ohi da, era berean, mundu zabaleko beste alderdietara begira jartzea. Leku askotan ikusiko dugu ahozkoasuna bultzatzen dela. Leku askotan ikusiko dugu hiztunek euren egunoroko jardunean erabiltzen duten hizkera bizia, eta erabiltzen dituzten erregistroak aintzakotzat hartzen direla. Herrialderik aurreratuenetan ikusiko ditugu horrelako kezka, eta kezka horiek eragindako egitasmo zehatzak. Dialekto batuak egitea da sarriegi ikusiko ez duguna. Herri desegituratueta joan behar dugu horrelakoak ikusteko: katalan herrietatik bereiztearren, egin ahalak egiten diharduen Valentziara, esate baterako.

### **Gure jardunaren esparrua: eskualdea**

Gaur egun herri barruko egitasmoak ez direla nahikoa esan dut hasieran, eskualdeka jardun beharra daukagula. Egitasmoak aurrera ateratzeko, bitarteko gehiago dago eskualdeka lan eginda, norbere herri barruan jardunda baino. Eskolan, administrazioan,

hedabideetan, eta gainerako esparruetan eragina izateko, ezinbestekoa da eskualdeka antolatzea.

Beste onura batzuk ere badakartza, gainera, eskualdeka lan egiteak. Deba ibarrean, esate baterako, lagunarteko hizkera, gazte hizkera, lanbideetako hizkerak, ahozko euskara nahi ditugu indartu, eta herri batzuetan ez dauzkagu eredu egokiak. Aspaldi makaldu zen transmisioa, eta hori indartzeko modurik ez dago honezkerok. Egoera horretan daude Elgoibar, Eibar, Ermua eta Arrasate, esate baterako.

Baina eskualdeka lan eginda, daukanak eman diezaioke ez daukanari, eta euskara bizirik dago Antzuolan, Elgetan eta Mutrikun. Herri horietan badira besteetan ez diren ereduak eta bitartekoak.

Iruditzen zait, gainera, hauxe izan daitekeela beste alderdi batzuetarako ere adibidea. Gipuzkoako Goierrin, esate baterako, oso makalduta daude ereduak Legazpin, Beasainen eta Ordizian, baina sendo diraute Seguran, Ataunen eta Zaldibian. Nafarroako Sakanan ere, ahul daude Altsasun eta Uharte-Arakilen, baina indartsu, Urdiainen, Ergoienan, Arbizun eta Etxarri Aranatzen. Bizkaiko Arratian, era berean, Zeanurik eta Dimak bete ditzakete Igorreko, Lemoako eta Bediako hutsuneak.

Ipar Euskal Herrian ere zer edo zer aurreratu daiteke horrela jokatuta. Ereduak bizirik daude Oiartzunen, Bortzirietan, Malerrekan, Bertizaranan eta Baztanen, eta, eredu horiek lagungarri gerta daitezke Hendaian, Urruñan, Azkainen, Saran, Senperen, Ainhoan, Itsasun eta Baigorri. Lagungarriagoak, behinik behin, Paristik etor litezkeen laguntzei begira egotea baino.

Koldo Zuazo

Deba ibarrean, 2001eko abenduan



Hizkuntza sortzeko eta... edozein umek e...  
dio rompi... ez... horixe da Euskal Herri...  
bata...

it -> itt ind -> indd -gitter- y, ja...  
hila indarra... xetari... baia, bain-...  
indd, ... in -> in

iturrixa -> ... mila...  
ikasten egun batetik best... mudiara... gozetik  
sortzailei lanik ezin...

# Hizkuntza ezaugarriak

# 1. LIBURUAREN EDUKIAZ

**D**eba ibarrean hamazazpi herri direla, eta hiru hizkuntza eremu nagusi direla esan da, eta hori dela-eta, ezin dugu liburu bakar batean herri guztietako euskararen berri zehatza eman. Ezinezkoa da hori. Gainera, horrelako azterketa batzuk eginda daude herri batzuetan, eta, gainerakoetan ere, abian, edo abian jartzekotan dira.

Beste batzuk dira liburu honen helburuak. Alde batetik, Deba ibarreko hizkerak *batzen* dituzten ezaugarriak ekarri ditugu hona. Zerk batzen gaituen jakinda, horrexeri eman diezaiokegu lehentasuna, eta denon onerako izango da bide berdintsutik ibiltzea.

Beste alde batetik, berriz, *banatzen* gaituzten gauzarik nabarmenenak ere ekarri ditugu hona. Zerk banatzen gaituen jakitea ere ondo dago, batzuek esaten dutena, gainerakoendako ere ezaguna izan dadin.

Euskalkiaren eta euskara batuaren arteko hartu-emana ere agerira ekarri nahi izan dugu. Alde batetik, geure euskalkiko zeintzuk ezaugarri erabil ditzakegun euskara batuan esan dugu. Beste alde batetik, berriz, geure euskalkiko zeintzuk ezaugarri erabil ditzakegun eskualdeko euskara batuan zehaztu dugu, eta, hirugarrenik, euskalkian dihardugunean baizik ezin erabil ditzakegun ezaugarriak aipatu ditugu. Horretaz gainera, zer den lagunartekoa eta zer jaso ere bereizten ahalegindu gara.

Bazen, eta bada, honen guztionen beharra. Batzuek uste dute euskalkiko edozein gauza erabil daitekeela euskara batuan, eta hori ez da inondik inora ere egia eta zuzena. Gauza bi izan behar ditugu garbi eta garden geure buruan: eremu zabalekoak duela txokokerien aldean lehentasuna, eta betikoak eta jatorrak duela mailegu berrian aldean nagusitasuna. Jakina, baldintza bi horiek betetzen duen hitzik edo egiturarik ez denean, txokokoa nahiz mailegua izan beharko da hutsunea beteko duena. Gaur egungo *meter el rollo*, *dar la chapa*, *rayar* adierazteko, esate baterako, *aberketia euki* esaten da Ondarroan, eta zergatik ez, ba, esapide hori Euskal Herri osora

zabaldu?

Baina horrelako adibide bereziak alde batera utzita, oso argi izan behar dugu txokokeriak erabiltzeak euskaldunon arteko hartu-emana zaildu egiten duela, eta oso argi izan behar dugu, era berean, erdaratik hartutako maileguez ere zaildu egiten dutela gure hartu-emana, erdara bat dakigulako euskaldun batzuek, eta beste bat, besteek.

Gainera, euskalkiaren izenean, makina bat trakeskeria zabaldu da joan den aspaldian. Ahozko jardunean erabiltzen den guztia daukate batzuek ontzat eta jatortzat, eta garbi dago “jatorrismo” hori ere ez dela inondik inora mesedegarria. Oso argi izan behar dugu zer den lagunartekoa eta zer jaso, eta oso argi izan behar dugu euskalkian den guztia ez dela ona eta egokia. Azken batean, euskara irakaskuntzatik kanpo egon delako, Administraziotik kanpo egon delako, kultura esparruetatik kanpo egon delako, sortu eta zabaldu dira euskalkietako hainbat ezaugarri, eta horietako asko eta asko, sustrai sakonak egin dituztelako, onartu besterik ez dugu izango, baina, beste asko, sustraietatik oratu, eta erauzi egin beharko ditugu.

Laburbilduaz, tankera honetako liburuak orain hogeita hamahiru urte egin behar ziren, euskara batua sortu zen garaian. Orduan zehaztu behar zen batuak euskalkietatik zer hartu behar zuen, eta batuak eta euskalkiek zer hartu-eman izan behar zuten. Hori, baina, ezina zen sasoi hartan, eta orain bete beharko ditugu orduko hutsuneak, eta orain konpondu beharko ditugu orduko huts egiteak.

**LIBURUAREN EGILEAK**

Urte luze bateko lanaren emaitza da liburu hau. Aurretik egindako *Deba ibarreko euskeria* saioan oinarri hartuta, txosten bat atondu, eta txosten hori eztabaidatu eta aberastu egin dugu tarte horretan. Hamabostean behin elkartu izan gara, eta, hauxek dira, batzarretara etorriaz, edo e-mail bidez parte hartuaz, liburua osatzen jardun dugunak:

Aiastui, Goreti. Aretxabaleta (irakaslea)  
 Akizu, Iñaki. Bergara (Oñatiko Udaleko Euskara Saila)  
 Aldazabal, Eguzkiñe. Soraluze  
 Altuna, Roberto. Oñati (Oñatiko Udal Euskaltegia)  
 Amuategi, Iñaki. Eibar (AEK)  
 Andonegi, Amaia. Mutriku (irakaslea)  
 Aranberri, Fernando. Ermua (Emun)  
 Arantzabal, Iban. Elgeta (*Goiena* komunikabideak)  
 Areta, Nerea. Eibar (filologoa)  
 Arexolaleiba, Julen. Arrasate (Mondragon Unibertsitatea)  
 Ariznabarreta, Gurutze. Soraluze (irakaslea)  
 Arregi, Iñigo. Oñati (*Kontzejupetik* aldizkaria)  
 Arriola, Ibon. Elgoibar (filologoa)  
 Arrizabalaga, Idoia. Mutriku (irakaslea)  
 Azkarate, Sergio. Arrasate (*Goiena* komunikabideak)  
 Basauri, Serafin. Eibar (euskaltzain urgazlea)  
 Baskaran, Soko. Eibar (AEK)  
 Deogracias, Marijo. Antzuola (*Anbotto* aldizkaria)  
 Elexpuru, Juan Martin. Bergara (idazlea)  
 Elortza, Nere. Aretxabaleta (Loramendi Euskara Elkarte)  
 Eraña, Gaizka. Arrasate (irakaslea)  
 Ezenarro, Enez. Mendaro  
 Ezker, Juan Mari. Eibar (AEK)  
 Fernandez Arroiabe, Nuria. Gatzaga (*Belaxe* itzulpenak)  
 Garitagoitia, Itziar. Mallabia (Eibarko Udal Euskaltegia)  
 Garmendia, Itsaso. Arrasate (Emun)  
 Gonzalez, Esti. Ermua (irakaslea)  
 Ibarluzea, Nerea. Eibar (AEK)  
 Ilarduia, Idoia. Arrasate (Arrasateko Udal Euskaltegia)  
 Irizar, Abel. Elgoibar (Izarra Euskara Elkarte)

Isazelaia, Jaione. Bergara (irakaslea)  
Laborda, Miren. Bergara (irakaslea)  
Lariz, Amaia. Elgoibar (Emun)  
Larrañaga, Josu. Mutriku (filologoa)  
Larreategi, Unai. Soraluze  
Laskurain, Maripi. Antzuola (Idolaz Euskara Elkartea)  
Makazaga, Jesus Mari. Elgoibar (EHU)  
Mugarza, Pello. Mallabia (filologoa)  
Muniozguren, Fernando. Eibar (Eibarko Udaleko euskara teknikaria)  
Narbaiza, Leire. Eibar (irakaslea)  
Okaranza, Leire. Aretxabaleta (Loramendi Euskara Elkartea)  
Ormaetxea, Txipi. Arrasate (EHU)  
Ozaeta, Arantza. Aramaio (Mondragon Unibertsitatea)  
Palenzuela, Joseba. Mutriku (Mutrikuko Udaleko euskara teknikaria)  
San Migel, Nekane. Arrasate (epailea)  
Sangroniz, Mikel. Eibar (filologoa)  
Sarasua, Asier. Eibar (Eibarko Udala)  
Telleria, Alberto. Elgeta (filologoa)  
Txintxurreta, Miriam. Aretxabaleta (irakaslea)  
Txurruka, Alazne. Deba (irakaslea)  
Ulazia, Alain. Mendaro  
Unamuno, Egoitz. Soraluze (Pil-pilean Euskara Elkartea)  
Urkia, Joseba. Eskoriatza  
Urzelai, Amaia. Elgoibar (filologoa)  
Zuazo, Koldo. Eibar (EHU)

## LIBURUKO EUSKARAZ ETA HIZKERAZ

Deba ibarreko euskaran dago, gehienbat, liburua. Ez da hori harrokeriaz eta chauvinismoz hartutako erabakia izan, bai zera! Beste batzuk izan dira horretarako arrazoiak. Alde betetik, Deba ibarrekoak izan gara liburua egiten jardun dugun guztiak, eta Deba ibarreko hizkeretan —bakoitzak berean— egin dugu geure jardun guztia, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa.

Liburua erabiliko dutenak ere Deba ibarrekoak izango dira, gehienbat, eta haiei ere, jakina, etxekoa egingo zaie erabiliko dugun euskara.

Liburuaren gaia, hirugarrenik, Deba ibarreko euskara erakustea da, eta liburua egiteko arrazoia, berriz, euskara sendotzea eta indartzea Deba ibarrean. Alde honetatik begiratuta ere, beraz, bidezkoa zen Deba ibarreko euskararen egitea. Euskara batuan ere egin genezakeen, jakina, eta baita gaztelaniaz ere, baina bertako euskararen egitea begitandu zaigu zentzuzkoena eta, batez ere, *benetakoena*.

Deba ibarrekoa ez denen baten bat ere izango da, ziurrenera, liburuaren irakurle, baina kanpoko hori hizkuntza gaietan aditua, edo, behintzat, aritua izango da, dudarik gabe. Harendako ere, beraz, berea ez den euskara ikustea ez da izango neke eta kalte.

Dena dela, Deba ibarrak Euskararen Herriarekin bat egitea nahi dugunez, euskara batuak ere badu bere lekua liburuan. Hiztegian eta esapide bilduman euskalkian egin ditugu sarrerak, eta euskalkian eman ditugu adibideak —nola, ba, bestela?—, baina euskara batuan eman ditugu azalpenak eta argibideak.

Azken batean, baina, hemengo arazo nagusia —sarritan estaltzen eta ezkututzen duguna— ez da euskalkia edo batua, euskara edo euskalgaiztoa baizik. Sarako euskararen idatzi zuten Axularrek eta Joanes Etxeberriek eta, aldiz, euskaldun guztiok ulertzen dugu haien euskara. Eta ulertu ez ezik, gozatu ere egiten dugu haien euskara irakurrita. Gozatu egiten dugu, era berean, Txirritaren edo Xalbadorren bertsoak irakurrita, eta gozatu egiten dugu Niko

Etxarten eta Mikel Urdangarinen kantuak entzunda, eta euskalkian daude horiek ere.

Asko dira, oster, euskara batuaren izenean azaltzen diren zenbait izkribu direla-eta, euren nahigabea erakusten dutenak. Egunotan, esate baterako, Bernardo Atxaga idazleak plazaratu ditu bere gogoetak eta bere salaketak. Gasteizko Foronda aireportuko iragarkiak jarri ditu, besteak beste, adibide. Batuan omen daude Forondako iragarkiok, baina ez euskaldunek ulertzeko moduan, edo beste era baterako esateko, batuan daude, baina ez euskaraz. Argi dago zein den konponbidea: *euskaraz* idazteari eta hitz egiteari eman behar genioke lehentasuna, eta horretan egin dugu geuk ere geure ahalegina.

Liburuaren hizkeraz ere egin nahi dugu ohartxo bat. Pedanteria eta sasiletratukeria baztertu, eta gauzak argiro eta garbiro azaltzen ahalegindu gara. Eskuartean darabilgun gaia ez da eguneroko jardun arruntekoa; teknikoa da, nolabait esatearren, eta oinarrizko prestakuntza eskatzen du jarraitu ahal izateko. Baina oinarrizko prestakuntza hori duenari gauzak zelai eta lau aurkezten ahalegindu gara. Gogoko gauzetan ez dela aldaparik dio esaera zaharrak, baina batere aldaparik gabeko bideak erosoago eta gusturoago ibiltzen direla uste dugu guk.

**LABURDURAK**

Erosotasunez, sarri erabiltzen ditugun hitz zenbait laburtuta eman ditugu. Hauxe da laburduren zerrenda, eta bakoitzaren esangura:

*Ald.:* aldaera. Hitz jakin bat esateko era berezia.

*Ant.:* antonimoa. Aurkako esangura duen hitza.

*Db:* Debabarrena. Hizkera aldetik, Elgoibarrek, Mendarok, Mutrikuk, eta, aldeak alde, Debak osatzen dute.

*De:* Deba erdikoa. Hizkera aldetik, Antzuolak, Bergarak, Eibarrek, Elgetak, Soraluzek, eta Bizkaiko Ermuak eta Mallabiak osatzen dute.

*Dg:* Debagoiena. Hizkera aldetik, Leintz ibarrak (Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Gatzaga), Oñatik eta Arabako Aramaiok osatzen dute.

*Esap.:* esapidea.

*Fr.:* frantsesa.

*Gazt.:* gaztelania.

*Ik.:* ikusi. Argibide eta zehaztasun gehiagotarako begiratu daitekeen hitza edo esapidea.

*Jas.:* jaso. Hizkera jaso eta landuko hitz, esapide, ahoskera edo egitura.

*Lag.:* lagunartekoa. Lagun giroko hitz, esapide, ahoskera edo egitura.

*Orok.:* orokorra. Euskal Herri osoan, edo gehienez, erabiltzen den hitz, esapide, ahoskera edo egitura.

*Sin.:* sinonimoa. Esangura berdineko edo antzeko hitza.



## 2. FONETIKIA ETA ORTOGRAFIXIA

### EZAUGARRI FONETIKUAK

#### I. DEBA IBAR OSOKO EZAUGARRIXAK

Badira Deba ibar osuan betetzen diran ezaugarriak:

(1) *e + a, e, o* bokalak batzerakuan, *e* → *i* egitten da:

etxea	→	<i>etxia</i>
etxeetan	→	<i>etxietan</i>
etxeok	→	<i>etxiok</i>

(2) *o + a, e, o* bokalak batzerakuan, *o* → *u* egitten da:

besoa	→	<i>besua</i>
besoetan	→	<i>besuetan</i>
besook	→	<i>besuok</i>

(3) *i + a, e, o* bokalak batzerakuan, *-x-* sartzen da bixen tartian:

gorria	→	<i>gorrixa</i>
gorrietan	→	<i>gorrixetan</i>
gorriok	→	<i>gorrixok</i>

Honek bokal batziok berba barruan be gertatzen dira:

behar	→	<i>bihar</i>
joan	→	<i>juan</i>
bihar	→	<i>bixar</i>

(4) *a* bokalarekin amaitzen diran berbei artikulua gehitzerakuan, *a + a* → *ia* egitten da:

neska	→	<i>neskia</i>
koka kola	→	<i>koka kolia</i>
gazteria	→	<i>gazterixia</i>

(5) Deba ibar osuan esaten da <j> ([x] alfabeto fonetikuan): *jakin, jan, jaramon, jarri, jaurti, jo, jokatu, josi...*

(6) Indar haundixa dauka bustiduriak: *il* → *ill*, *in* → *iñ*, *it* → *itt* egitten dira. Gaiñera, *ild* → *ildd*, *ilt* → *iltt* eta *ind* → *indd* be egitten dira, baiña honen indarra ez da leku guztixetan bardiña. Hona hemen adibidiak:

mila	→	<i>milla</i>
inor	→	<i>iñor</i>
iturria	→	<i>itturrixa</i>
hilda	→	<i>hildda</i>
hiltzen 'hiltzen'	→	<i>hiltten</i>
indarra	→	<i>inddarra</i>

(7) EZ partikulia aditzekin batzerakuan, aldakuntza jakin batzuk gertatzen dira.

a) ez + b-, d- batzerakuan, *ezp-*, *ezt-* egitteko joeria dago:

ez badozu	→	<i>ezpadozu</i>
ez dot	→	<i>eztot</i>

b) ez + j- batzerakuan, *etx-* egitten da:

ez jako	→	<i>etxako</i>
ez juat	→	<i>etxuat</i>

c) ez + g-, l-, n- batzerakuan, aukera biña dagoz: *ezk-* / *ezg-*, *el-* / *ezl-* eta *en-* / *ezn-*:

ez gaituzu	→	<i>ezkaittuzu</i> / <i>ez gaittuzu</i>
ez leuke	→	<i>eleuke</i> / <i>ez leuke</i>
ez neukan	→	<i>eneukan</i> / <i>ez neukan</i>

d) Deba ibarreko berbeta batzuetan, iraganaldiko aditzik gehixenetan, *ø*- dago hirugarren pertsonetan: *zuen* → *eban*, *zatorren* → *etorren*, *zekien* → *ekixen*... Hori dala-eta, ez partikularekin batzerakuan, ez da gertatzen ezelako aldakuntzarik: *ez eban*, *ez etorren*, *ez ekixen*.

Horretan berbetotan, gaiñera, *z*- dauken aditzekin batzerakuan be, sarritan ez da gertatzen ezelako aldakuntzarik:

<i>ez zan</i>	→	<i>ezan / etzan</i>
<i>ez zituen</i>	→	<i>ezittuen / etzittuen</i>
<i>ez ziharduen</i>	→	<i>eziharduen / etziharduen</i>
<i>ez zirudien</i>	→	<i>ezirudixen / etzirudixen</i>

Debarrenian, eta baita Deba erdiko herri batzuetan be, *z*- dago iraganaldiko hirugarren pertsonetan, eta ez partikularekin batzerakuan, sarriago egiten da *etz*-:

<i>ez zeban</i>	→	<i>etzeban</i>
<i>ez zatorren</i>	→	<i>etzatorren</i>

**(8)** Euskerazko berbetan, eta baita erderatik hartutako berba zaharretan be, *n*, *l* eta *r* ostian, *tz* esaten da gehixenetan, Euskal Herri osuan moduan:

<i>salsa</i>	→	<i>saltsia</i>
<i>pensar</i>	→	<i>pentsau</i>
<i>verso</i>	→	<i>bertsua</i>

Baiña erderazko berba danetan —batez be sartu barrixetan— ez da betetzen araua:

<i>consonante</i>	→	<i>konsonantia</i>
<i>persona</i>	→	<i>personia</i>
<i>universidad</i>	→	<i>unibersidadia</i>

Berbak batzerakuan, berriz, araua ez da betetzen Deba ibar gehixenian:

joan zen	→	<i>juan zan / fan zan</i>
behar zituen	→	<i>bihar zittuan</i>
hil ziren	→	<i>hil ziran</i>

Deba eta Mutriku dira salbuespenak. Honetan herri bixotan badira *juantzan*, *hiltziran* moduko loturak.

## II. DEBA IBARREKO BERBETA JAKIN BATZUETAKO EZAUGARRIXAK

**(1)** Deba erdiko berbetetan gehixenbat, azentu bereizgarria dago. Alde batetik, singularra eta plurala bereizten ditte horrek azentuorrek:

Singularra:	<i>etxiak asko balixo dau</i>
Plurala:	<i>étxiak asko balixo dabe</i>

Erakusliak be, itxura baten bardiñak izan arren, azentuak bereizten ditte:

Singularra:	<i>onékin pelotionékin ezin da jokatu</i>
Plurala:	<i>ónekin pelótokin ezin da jokatu</i>

Ikusten danez, plurala danian, atzeratu egitten da azentua.

Beste alde batetik, berriz, zenbait berbaren esanguria bereizten dau azentuak:

<i>astía</i> (7 egunekua)	/	<i>ástia</i> (abixatzia)
<i>basúa</i> (mendikua)	/	<i>básua</i> (edatekua)
<i>urdíña</i> (koloria)	/	<i>úrdiña</i> (perretxikua)

**(2)** *u* eta *i* ondorengo *a* bokala e egitten da berbeta batzuetan, gehixenbat Mallabixan, Aramaixon eta Leintz ibarreko zenbait alderdittan:

laguna	→	<i>lagune</i>
mutila	→	<i>mutille</i>
ogia	→	<i>ogixe</i>
dirua	→	<i>dirue</i>
ikasi	→	<i>ikesi</i>
harrika	→	<i>harrike</i>

## ORTOGRAFIXA IRIZPIDIAK

Ahozko jarduna da euskalkixaren berezko barrutixa, baiña idatzixan erabili biharra be izaten da batzuetan, eta idatzixan kontuan hartu biharreko irizpidiak erakutsiko dittugu jarraixan.

### I. OIÑARRIZKO IRIZPIDIA

Idazterakuan, euskara batuko arauak betetzen ahalegintzia da oiñarrizko irizpidia. Hori dala-eta, <h> letria batuan moduan erabiliko dogu, eta <z>, <s>, <tz> eta <ts> be batuan moduan erabiliko dittugu.

### II. BERBETA JASOKO IRIZPIDIAK

Berbeta jasuan idazterakuan, gaiñera, beste oiñarrizko irizpide bi be kontuan izango dittugu.

(1) Berbak osorik idaztera joko dogu:

bakizu	→	<i>badakizu</i>
ekarri'ttu	→	<i>ekarri dittu</i>
sardaua	→	<i>sagardaua</i>

(2) Berbak banan idaztera joko dogu:

einddozu	→	<i>egin dozu</i>
eztotiaz	→	<i>ez doiaz</i>

Jakiña, arau guztixak daukez euren salbuespenak, eta honetan be izango dira arauak urratzen dittuen adibidiak. Euskara batuko *biharamuna*, esate baterako, *bixamona* bihurtu leike euskalkixan idazterakuan; lagunarteko jardunian batez be, 'aje' esanguria daukanian. Era berian, *bapez* idatzi leike *bat bere* ez idatzi biharrian. Holakuetan, senak, eta orain arteko eta hemendik aurrerako tradiziñuak, erakutsiko dabe bidia.

### III. EUSKALKIXAN IDAZTEKO IRIZPIDIAK

Euskalkixan idazterakuan, bertoko arau fonetikuak izango dittugu kontuan.

(1) Bokalak batzerakuan gertatzen diran aldakuntzak kontuan izango dittugu idazterakuan, hau da, *e + a, e, o* batzerakuan, *e → i* egittia (*etxia*), *o + a, e, o* batzerakuan, *o → u* egittia (*besua*), eta *i + a, e, o* batzerakuan, *-x-* sartzia (*begixa*). Baita *-a + a* batzerakuan, *-ia* egittia be (*neskia*).

(2) Bustiduria dala-eta, idatzixan ez agertzekua da Euskaltzaindixaren araua. Euskal Herrixa bere osotasunian ikusitta, zuzena eta zentzuzkoa da erabagixa. Izan be, bustiduria egittia gauza barrixa da, eta badira, gaiñera, bustidurarik egitten ez daben berbetak: Lapurdikuak eta Naparrua Beherekuak, gehixenbat.

Bestalde, bustiduria egitten dan lekuetan be aldia dago berbeta batzuetatik bestietara. Indartsuagua da, esate baterako, Bortzirietan Baztanen baiño, eta indartsuagua da, era berian, Durangaldian Arratixan baiño. Horregaittik, ba, erabagi zuzena hartu eban Euskaltzaindixak: bustidurak ez idaztia euskara batuan.

Deba ibarreko fonetikan, ostera, araua da bustiduria, eta idatzixan be betidanik agertu da. Guretako, hain zuzen, oso arrotz gertatzen da *telebisinuak dino inundazinoak egon dirala Abadiño pabiloi batzuetan* tankerako idazkeria ikustia. Adibide horretan, Euskaltzaindixak berak ontzat jotzen daben *Abadiño* horixe da, hain zuzen, guretako ondo emoten daben gauza bakarra\*.

\* Euskaltzaindixak *Abadiño* onartu daben moduan, bustiduradun aldaerak onartu dittu gure toponimixarako: *Aretxabaleta, Mallabia, Oñati*, esate baterako. Jakiña, gure berbetiaren izaeria aintzakotzat hartuta egin dau hori aukerori, eta geure berbetiaren izaeria aintzakotzat hartuta egin dogu geuk be bustiduren aldeko aukeria.

Bestalde, euskara batuan bustidurak erabiltzen ez diranez, gazterixia /*maila, baina, zaitut*/ esaten hasi da, eta horrek esateko moduok be arrotzak gertatzen jakuz.

Hori guztixori kontuan hartuta, euskalkixan dihardugunian, bustidurak idaztiaren aldekoa da gure iritzixa, batez be geure berbetia ikasi eta irakatsi bihar dogunian. Hori bai, bustiduria idatzixan erabilli nahi dabenarendako, hiru ohar egin nahi dittugu.

- a) Bustiduria eragin daben <i> bokala be idaztia, hau da, *laño* barik *laiño*, *ollo* barik *oillo*, *matte* barik *maitte*, eta *ottura* barik *ohittura*.
- b) Berba amaieran bustidurarik ez idaztia, hau da, *dakitt* barik *dakit*, *egiñ* barik *egin*, *hill* barik *hil*.

Kontsonante aurrian be ez da idatziko bustidurarik, esan be egitten ez dalako, hau da, *egingo*, eta ez *\*egiñgo*, *egin leike*, eta ez *\*egiñ leike*.

- c) Ahoz *ildd*, *iltt* eta *indd* esan arren, idazterakuan *ild*, *ilt* eta *ind* idaztia. Hau da, *bilddu*, *erabildden*, *inddarra* idatzi biharrian, *bildu*, *erabilten*, *indarra* idaztia begittantzen jaku erosuagua.

Dana dala, BADIHARDUGU Alkartiak ez dau iñor ezertara bihartu nahi, eta bakotxaren esku geratzen da honi erabagixoni edo euskara batuaren bidiari segi. Etorkizunak erakutsiko dau bide zuzena eta erosua zein dan, eta orduan hartuko dogu behin-betiko erabagixa.

#### IV. ESPARRU TXIKIKO FONETISMUAK

Bidezkoztat joten dogu esparru txikixaguetako fonetismuak be egitten diran lekuetan idatzixan agertzia. Hori dala-eta, kontuan izango dittugu honek beste arauok:



(1) *i* eta *u* ondorengo *a* → *e* egittia:

laguna	→	<i>lagune</i>
mutila	→	<i>mutille</i>

(2) Ontzat jotzen dogu erderatik hartutako berba barrixetan, *n*, *l* eta *r* ostian, *z* edo *s* idaztia: *konsejua*, *personia*, *unibersidadia*, esate baterako. Dana dala, euskara batuaren bidetik, *tz* edo *ts* idaztia be ez dogu txartzat jotzen, batez be berbeta jasuan.

Hasieran esan dogunez, *berbeta jasuan* dihardugunerako dira honek ortografixa irizpidiok. Lagunarteko berbetia (txistiak, pasadizuak, alkarrizketak, eta abar), edo herri jakin bateko berbakeria erakutsi nahi dogunian, oso bestelako jokabidiak hartu ahal izango dittugu. Holako egoeretan, aukeran ixten dira, esate baterako, laburdurak egittia (*zer bihar don?* → *ze bihon?*), eta berbak batzia (*egin don?* → *einddon?*).

# 3. MORFOLOGIXIA

## IZENAREN MORFOLOGIXIA

### 1. DEKLINABIDIA

(1) NORIK pluralian, *-ak* izan da —lekukorik zaharrenetatik hasitta, gaiñera— Euskal Herriko eremu zabalian erabilli dan atzizkixa. Horixe da Deba ibarrian be erabiltzen dana, eta, horretara ba, zuzentzat eta egokitzat joten dogu *gizonak egin dabe* esatia eta idazia, euskalkixan dihardugunian.

(2) NORI kasuan, alde txikiren bat gorabehera, *-ari* singularrian (*gizonari*), eta *-ei* pluralian (*gizonei*), erabiltzen dira Deba ibarrian, euskara batuan moduan.

(3) NOREN singularrian, *-an* izan da —lekukorik zaharrenetatik hasitta, gaiñera— Euskal Herriko eremu zabalian erabilli dan atzizkixa. Horixe da Deba ibarrian be erabiltzen dana, eta, horretara ba, zuzentzat eta egokitzat joten dogu *gizonan aldemenian jarritta dago* esatia eta idazia, euskalkixan dihardugunian. Dana dala, berbeta jasuan *-aren* erabiltzia be (*gizonaren*) ondo begittantzen jaku.

Era berian, *gizonakin, gizonandako / gizonantzat, gizona(n)gan, gizona(n)gana, gizona(n)gandik...* erabiltzen dira gure alderdixan. Jakiña, *gizonarekin, gizonarendako, gizonarengana* tankerakuak be erabilli leikez berbeta jasuan.

(4) NOREKIN pluralian, *-kin* atzizkixa erabiltzen da Deba ibarrian, euskara batuan moduan: *bere lagunekin etorri da*.

Singularrian be *-kin* da erabilliena, baiña *-(g)az* be bertokua da: *bere amaz bizi da*.

(5) NOREDAKO erabiltzen da Debagoixenian eta Deba erdikian. Horretara ba, *gizonandako*, *lagunendako*, *guretako* erabiltzia zuzena eta egokixa da, bai geure berbetan dihardugunian, eta baita euskara batuan dihardugunian be, Euskaltzaindikak berak onartuta daukan moduan.

Debarrenian, ostera, *norentzat* edo *norentzako* dira aukera bakarrak.

(6) NORUTZ erabiltzen da Deba ibarran: *etxerutz*, *ezkererutz*, *eguerdirutz*. Literatura tradiziño haundiko atzizkixa da, eta berau erabiliko dogu euskalkixan dihardugunian. Herri batzuetan, gaiñera, *-runtz* / *-rutze* aldaerak be badira.

Atzizki honekin batera, Deba ibarran be sarri erabiltzen da Euskal Herri osoko *aldera* postposiziñoa: *mendi aldera juan*; *eguerdi aldera etorri*. Geuk be, ba, aukeran dogu hori egitturiori.

(7) NONDIKAN, ZERGATIKAN, eta, partitibuan, diruRIKAN tankerakuak erabiltzen dira Deba ibarreko berbeta batzuetan, Debarrenian eta Soraluzen, gehixenbat. Hori dala-eta, *ez daukat astirikan*, *menditikan jaitsi*, *zu ikustiagatikan etorri* tankerakuak esaten dira horretan berbetotan, eta ez dago zertan bazterturik euskalkixan dihardugunian.

Beste berbeta batzuetan —Aramaixon, gehixenbat—, *-ti* eta *-gati* aldaerak erabiltzen dira: *etxeti urten*, *zu ikustiagati etorri*. Zaharrak dira honek aldaerok, Euskal Herriko beste leku batzuetan be bizirik iraun dabenak, eta, euskalkixan dihardugunian, ez dago gaitzesteko eta baztertzeko arrazoirik.

(8) Deba ibarran, *pelotian gaiñian berba egin* / *pelotian inguruan jardun* / *pelotia dala-eta barriketan ibilli* / *pelotiaz jardun* tankerako esapidiak erabili dira orain arteko guztixan. Azken urtietan, ostera, ez hemengua ez iñungua be ez dan *pelotiar buruz berba egin* zabaldu da gure artian. Bai euskara batuan dihardugunian, eta, batez be, geure berbetan dihardugunian, geure betiko egitturei eustia begittantzen jaku zentzuzkuena eta egokixena.

(9) Deba ibarrian, *laguntzat euki, lelotzat hartu, kanpotartzat jo* tankerako esapidiak erabili dira orain arteko guztixan. Azken urtiotan, ostera, *lagun bezela euki* tankerakuak zabaldu dira, eta, jakiña, bertoko betiko egitura jatorrak erabiltzen ahalegindu bihar genduke, bai geure euskalkixan dihardugunian, eta baita euskara batuan dihardugunian be.

(10) Asko zabaldu da azken boladan -z erabiltzeko joeria, *mendiz mendi* tankerako esapidietan. Hori joeriori gaitzetsi eta baztertu barik, bertoko betikua dan -RIK atzizkixari emon bihar geunskixo lehentasuna, bai euskalkixan dihardugunian, eta baita euskara batuan dihardugunian be, hau da, *aterik ate, herririk herri, mendirik mendi* tankerakuei.

## II. ERAKUSLIAK

(1) Hirugarren graduko erakuslia *ha* da Deba ibarreko berbeta batzuetan, eta *haura*, berriz, beste batzuetan. Debarrenian, Sorluzen, Bergaran eta Antzuolan erabiltzen da *haura*. Bata zein bestia erabili geinkez euskalkixan dihardugunian.

(2) Erakusliak sustrai berbera dauke singularrian zein pluralian Deba ibar osuan. Debarrenian eta Deba erdikuan azentua da bereizgarri, eta bokalismua, berriz, Debagoixenian:

Db, De: *honétan* 'honetan' / *hónetan* 'hauetan'  
 Dg: *honetan* 'honetan' / *honeittan* 'hauetan'

(3) Erakusliak indartu nahi diranian, izenaren ezkerretara eta eskumatara ipintzeko joeria dago Deba ibarrian, nahiz eta berbeta batzuetatik bestietara hori joeriori indartsuagua edo makalagua dan. Horretara ba, zuzentzat eta egokitzat joten dittugu *jasoizu hori mahaixori* moduko esapidiak erabiltzia, euskalkixan dihardugunian.

Ezkerreko eta eskumako erakusliak mailla berberekuak izaten dira Deba ibarrian. Horretara ba:

*\*jasoizu hori mahaixa*      barik      *jasoizu hori mahaixori*

*\*jasoizuz horrek mahaixak*      barik      *jasoizuz horrek mahaixok*

Idazterakuan, eskumako erakuslia izenari lotuta idatzi ohi dogu. Lotuta idatzi ohi dogu, era berian, artikulua singularra danian:

*isildu zaittez, gogaikarrixori!*  
*etorri zaittez, maittiori!*

Adberbixo erakusliak be izenaren ezkerretara ipintzen dittugu indartu nahi dittugunian:

*baten bat badator hortik kamiñotik*

### III. IZENORDAIÑAK

**(1)** *neuk, neuri, neure...* eta *heuk, geuk, zeuk, zeuek* tankerako izenordain indartuak erabiltzen dira Deba ibarran. Euskalkixan zein euskara batuan dihardugunian be, horretxek erabilli geinkez. Ez dira alderdi honetakuak *neronek, herorrek* egitturakuak.

Bide batez esateko, azken urtiotan zabaldu dan *nik pertsonalki* egitturia zihero baztertu, eta geure betiko *nik neuk, guk geuk, niri neuri...* tankerakuak erabiltzen ahalegindu bihar genduke.

**(2)** Izenordain bihurkarixen artian, *eurak / erak* (eta *euren / eren...*) tankerakuak erabiltzen dira Deba ibarran, eta horretxek erabilli geinkez, bai euskalkixan dihardugunian, eta baita euskara batuan dihardugunian be. Ez dira alderdi honetakuak *berak / beraiek, beren / beraien* egitturakuak.

### IV. ZENBAKIXAK

**(1)** *baten* eta *batian* bereizten dira Deba ibarran, gaur egun bata

bestiarekin nahastuta be sarri erabiltzen diran arren. Izatez, baiña, mugagabia da *baten*, eta mugatua *batian*. Horretara ba:

*tabernaren baten egongo da*

*taberna bi dagoz, eta batian ez badago, bestian egongo da*

Bardin gertatzen da deklinabideko gaiñerako kasuetan:

*lagun batekin dago*

*lagun bi daukaz, eta batakin ez badago, bestiakin egongo da*

Euskalkixan, eta baita geure eskualdeko euskara batuan dihardugunian be behintzat, bidezkoa da hori bereizketiori egittia.

**(2)** *ordubatak* (eta *ordubatetan*, *ordubatetako...*) esaten da Deba ibarran, eta baita *seirak*, *zazpirak*, *zortzirak*, *bederatzirak* be. Horretxek erabilli geinkez euskalkixan dihardugunian.

## V. ADBERBIXUAK

**(1)** Adberbixuetan, *-to* atzizkixa erabiltzen da Deba ibarreko berbeta batzuetan, eta *-ki* zein *-to*, gaiñerakuetan. Horretara ba, *ederto* / *ederki*, *politto* / *poliki*, *txarto* / *txarki* / *gaizki*, *zatarto* / *zatarki* erabiltzen dira, berbeten arabera.

Baiña Deba ibar osuan, *ondo* eta *hobeto* erabilli izan dira beti, eta horretxei eutsiko deutsegu hemendik aurrerako jardunian, bai geure euskalkixan eta bai euskara batuan dihardugunian. Jakiña, *ongi etorri!* tankerako esapidiak dira salbuespena.

**(2)** Modu adberbixuetan, *-n* zein *-ø* amaierak erabiltzen dira, berbeten arabera: *zelan* / *zela*, *holan(txe)* / *hola(xe)*, *halan(txe)* / *hala(xe)*, *zeozelan* / *zeozela...* Bata zein bestia erabilli geinkez euskalkixan dihardugunian.

## VI. ATZIZKIXAK

(1) *-dade* aldaeria erabiltzen da Deba ibar osuan: *bakardade* legez, *kalidade*, *tonalidate*, *unibersidade*. Horixe da euskalkixan dihardugunian erabiliko doguna, *Natibittate* bezalako salbuespenen bat gorabehera.

(2) Erderazko *-ion* → *-iño* egitten da Debagoixenian eta Deba erdikuan. Horretara ba, *maketazio* → *maketaziño*, *klonazio* → *klonaziño* esaten dira, eta horri joerriorri eutsiko deusagu euskalkixan dihardugunian.

(3) Deba ibarreko berbeta batzuetan, *-t(z)eke* / *-t(z)eka* aditz atzizkixa erabiltzen da: *ikusteke*, *konpontzeke*, esate baterako. Antzuolan, Bergaran, Elgetan, Soraluzen eta Eibarren erabiltzen da, eta bai euskalkixan jarduterakuan, eta baita geure eskualdeko euskara batuan be, bidezkotzat joten dogu hori atzizkixori erabiltzia.

## VII. OSTIANGUAK

(1) Hego Euskal Herriko beste leku askotan moduan, Deba ibarreko berbeta guztixetan bereizten da generua zenbait adjektibotan. Euskalkixan dihardugunian, kontuan hartuko dogu hori joeriori: *lehengusua* / *lehengusiña*, *lelua* / *lelia*, *altua* / *altia*, *potolua* / *potolia*, *mozolua* / *mozolia*, *txotxolua* / *txotxolia*...

Berez, hau bereizketiau erderiaren eragiñez egitten dan arren, eta Ipar Euskal Herrixa eta Hego Euskal Herrixa batzeko oztopua be badan arren, euskalkixan jarduterakuan holan jokatu dogu. Izan be, gure artian ez dau bape ondo emoten *Arrate oso neska altua da*, edo *Arrate oso neska tontua da* esatia.

Bestalde, oso zabaldua dago gure artian *-sa* atzizki femeninua: medikuaren andriari *medikesia* deitzen jako, edo Gisasola deiturako baten andriari, *gisasolesia*, esate baterako. Sustrai sakona dauka honek atzizkixonek, eta ontzat emoten dogu geure arteko jardunerako.



(2) Oso zabaldua dagoz gure artian *bik biri, hiruk hiruri* tankerako esapidiak:

*bik hiruri jokatu june pelota partidua Astelenan*

Ontzat joten dittugu, jakiña, eta horixe egitturiori erabili geinke, gaiñera, zenbait esapide barri egitterakuan. Esate baterako, erderazko 'futbol a siete', *zazpik zazpiri* esan geinke ederto asko, bai geure euskalkixan, eta baita euskara batuan dihardugunian be.

## ADITZAREN MORFOLOGIXIA

### I. TRATAMENTUAK

(1) Deba ibarreko berbeta guztixetan erabili izan da *hitanua*. Gaur egun asko galdu da gazterixiaren artian, baiña onuragarritzat jotzen dogu ahal dan neurrixan indartzia eta erabiltzia. Euskeriarendako aberasgarrixa da, eta lagunarteko berbetia, gazte berbetia, eta lanbidietako argotak sendotzeko lagungarrixa.

(2) Hego Euskal Herri osuan moduan, Deba ibarrian be izan da *berorika*. Gaur egun galduta dago, baiña zer izan zan jakittia ez dogu kalterako, eta baliabide estilistiko moduan erabili geinke zenbait egoera berezittan.

### II. ADITZ SUSTRAIXAK

(1) \**edun* aditzaren sustraixak -o- eta -e- dira, berbeten arabera: *dot*, *dok/n*, *dogu*, *dozu*, *dozue* erabiltzen dira lekurik gehixenetan, eta *det*, *dek/n*, *degu*, *dezu*, *dezue*, gaiñerakuetan. Deban eta Mutrikun erabiltzen da -e- sustraixa, eta Mendaron eta Altzolan be ez da arrotza.

Lehen eta hirugarren pertsonetan, -au- / -eu- dira sustraixak: *dau*, *dabe*; *neban*, (z)*eban*, (z)*eben*; *baneu*, *neuke*; *baleu*, *leuke*; *balebe* tankerakuak erabiltzen dira.

Iraganaldiko pluralian, adizki berezixak erabiltzen dira Debagoixenian:

genuen	→	<i>geben</i> / <i>geuen</i>
zenuen	→	<i>zeben</i> / <i>zeuen</i>
zenuten	→	<i>zebien</i> / <i>zeuen</i>

Honek bereizgarri guztixok kontuan izango dittugu euskalkixan

dihardugunian.

(2) *izan* aditzaren oraiñaldiko adizkixetan, -e- eta -a- sustraixak erabiltzen dira, berbeten arabera: *gera / gara, zera / zara, zerate / zarie*. Debabarrenekua da, gehixenbat, -e- sustraixa.

Debagoixenian, berriz, *gare, zare* adizkixak erabiltzen dira.

Honek bereizgarri guztixok kontuan izango dittugu euskalkixan dihardugunian.

(3) *izan* aditzaren hirugarren pertsonan, -a- sustraixa dago Deba ibar osuan: *dan, dala, dalako*, eta *zan, zala, zalako*. Era berian, adizki horretatik sortzen dan zenbatzailliak be -a- sustraixa dauka: *dana* (eta *danok, danetara, danetatik...*), eta -a- horixe erabiltzen da, jakiña, *dana dala* esapidian. (Bide batez esateko, *dana dala* esaten da Deba ibarrian, eta ez azken urtietan zabaldu dan *dena den*).

Hau bereizgarrixau kontuan izango dogu euskalkixan dihardugunian.

(4) Deba ibar osuan, *egin* sustraixa erabiltzen da; arrotza da \**ezan*. Hiru aditz eratan agertuko jaku hori sustraixori:

a. Aginteran:

*apur ezazu* → *apurtu egizu*

b. Ahaleran:

*apur dezakezu* → *apurtu zeinke*

c. Subjuntibuan:

*apur dezazun* → *apurtu deizun*

Euskalkixan dihardugunian, egokitzat joten dogu *egin* sustraixa erabiltzia.

Ahaleran, ostera, juan dan urtietan zabaldu diran *leikegu, leikezu* tankerakuen orde, betiko *geinke, zeinke* jatorrak babestu eta zaindu bihar gendukez.

(5) NOR-NORI-NORK sailleko adizkixetan, *-eutsi-* eta *\*-i-* sustraixak erabiltzen dira, berbeten arabera: *deutsat / diot* tankerakuak. Debabarrenekua da *\*-i-* sustraixa, eta hauxe da euskara batuan onartu dana, baiña *eutsi* be erabilli ahal izango dogu euskalkixan dihardugunian.

(6) *joan*-en adizkixetan, *dijua / dixe / doia* tankerakuak erabiltzen dira, berbeten arabera. Mutrikun eta Deban erabiltzen dira *nijua, dijua, zijuaz, zijuazte, dijuaz* tankerakuak. Mendaron eta Elgoibarren, ostera, *nixe, dixe, dixeaz* tankerakuak erabiltzen dira. Gaiñerako berbetetan, *doia* tankerakuak aurkittuko dittugu.

Deba erdiko eta Debagoixeneko berbetetan, *-i-* bokala sartzen da *joan*-en adizkixetan:

doa	→	<i>doia</i>
goaz	→	<i>goiaz</i>

Gauza berbera gertatzen da *eruan*-en adizkixetan:

daroa	→	<i>daroia</i>
daroaguz	→	<i>daroiguz</i>

Honek bereizgarri guztixok kontuan izango dittugu euskalkixan dihardugunian.

(7) Aditz trinkuen iraganaldixan, *-a-* da sustraixa Deba ibarreko berbete batzuetan:

nekien	→	<i>nakixen</i>
zekien	→	<i>zakixen</i>
zessorren	→	<i>zatorren</i>
zegoen	→	<i>zaguén (&gt; zauen)</i>

Euskara batuan *-e-* sustraiaidunak onartu diran arren (*zekien, nengoén* tankerakuak), jatorrak eta zuzenak dira *-a-* dauken honek be, eta Ipar Euskal Herrixan eta euskera naparra egitten dan leku askotan erabiltzen dira. Geuk be, ba, erabilli geinkez euskalkixan dihardugunian.

(8) Oraintsu arte, arrotza izan da *ari izan* Deba ibarrian. Ordezkuak, *egon*, *ibilli*, eta leku batzuetan, *jardun* dira:

*inglesa ikasten dago luzaruan*  
*makiñak saltzen dabil Donostia aldian*  
*musian jharduk arratsalde osuan*

Honek hiru aukerok bidezkuak dittugu euskalkixan dihardugunian.

Leintz ibarrian eta Aramaixon izan ezik, oso bizirik dago *jardun* aditza Deba ibarrian, eta beronen adizki trinkuak be erabiltzen dira: *dihardut*, *dihardugu* tankerakuak oraiñaldixan, *niharduen*, *ziharduen* iraganaldixan, *jharduk*, *jharduagu* hitanuan. Euskalkixan ez eze, euskara batuan dihardugunian be erabilli geinkez honek adizkixok.

### III. MORFEMAK ETA ADITZEN OSAGAIXAK

(1) NOR-NORI sailleko adizkixetan, *j-* / *x-* / *z-* erabiltzen dira, berbeten arabera: *jako* / *xako* / *zako*.

Deban eta Mutrikun, *z-* erabiltzen da, euskara batuan bezala, eta Mendaron be ez da arrotza. Oñatin, berriz, *x-* erabiltzen da:

zait	→	<i>xat</i>
zaio	→	<i>xako</i>

Gaiñerako berbetetan, *j-* esaten da:

zait	→	<i>jata</i>
zaio	→	<i>jako</i>
zitzaizun	→	<i>jatzun</i>

Honek bereizgarririk kontuan izango dittugu euskalkixan dihardugunian.

(2) Hitanoko adizkixetan, NOR-NORI-NORK sailleko eta trinkuen iraganaldiko hirugarren pertsonetan, *z-* / *d-* / *x-* / *j-* erabiltzen dira, berbeten arabera. Holantxe dira, esate baterako, *dio* eta *dakit* adizkixen hitanuak: *ziok*, *zakiat* / *diok*, *diakiat* / *xauk*, *xakixat* / *jeutsak*, *jakixat*.

Deban erabiltzen da *z-*, euskara batuan bezala, eta Mutrikukua da *d-*. Dana dala, honetan herri bixotan oso galduta dago hitanua.

Oñatin *x-* esaten da, eta *j-* erabiltzen da Deba ibarreko gaiñerako berbetetan.

Trinko iragangaitzetan, baiña, *d-* erabiltzen da Ermuan, Eibarren, Elgoibarren eta Mendaron:

zagok/n	→	<i>dagok/n</i>
zatorrek/n	→	<i>datok/n</i>
zabilek/n	→	<i>dabik/n</i>

*joan*-en adizkixak dira salbuespena; *j-* dago honetan:

zihoak/n	→	<i>joiak/n</i>
zihoazek/n	→	<i>joiazak/n</i>

Honek bereizgarri guztixok kontuan izango dittugu euskalkixan dihardugunian.

(3) Iraganaldiko hirugarren pertsonetan, *z-* eta *ø-* erabiltzen dira, berbeten arabera: *eban* / *zeban*, *etorren* / *zatorren*. Gehiexenbat, Debararrenian eta Deba erdiko berbeta batzuetan erabiltzen da *z-*.

Dana dala, adizki jakin batzuek beti dauke *z-*: *izan*-enak (*zan*, *ziran*), *edun*-en pluralekuak (*zittuen*), *jardun*-enak (*ziharden*), *iruditu*-renak (*zirudixen*), eta \**edin* eta *egin*-enak (*zeikien* 'zitekeen / zezakeen').

Hau bereizgarriz kontuan izango dogu euskalkixan dihardugunian.

(4) Aditz iragangaitzen bigarren pertsona pluralian, *-(i)e* eta *-te* atzizkixak erabiltzen dira, berbeten arabera: *zarie* / *zarete*.

Debarrenian, Soraluzean, Bergaran eta Antzuolan erabiltzen da *-te*, euskara batuan legez. Gaiñerako berbetetan, era honetako adizkixak ditudugu:

zaudete	→	<i>zagoze / zagozie</i>
zatozte	→	<i>zatoze / zatozie</i>
zoazte	→	<i>zoiaze / zoiazie</i>
zaitezte	→	<i>zaittie</i>

Iraganaldixan be, jakiña, *ziñ(i)en*, *zenbizen*, *zengozen*, *zentozen*, *zindoiazan* tankerakuak erabiltzen dira.

Hau bereizgarrixau kontuan izango dogu euskalkixan dihardugunian.

**(5)** Aditz iragankorren hirugarren pertsona pluralian, *-e* erabiltzen da Deba ibar osuan:

dute	→	<i>dabe</i>
daukate	→	<i>dauke</i>
dakarte	→	<i>dakarre</i>
darabilte	→	<i>darabille</i>
dakite	→	<i>dakixe</i>
dihardute	→	<i>dihardue</i>

Iraganaldixan be, jakiña, *-e* dago: *(z)eben*, *(z)euken*, *(z)ekarren*, *(z)erabillen*, *(z)ekixen*, *ziharduen*.

Hau bereizgarrixau kontuan izango dogu euskalkixan dihardugunian.

**(6)** NOR-NORI-NORK saillian, datibua hirugarren pertsona darian, adizki berezixak erabiltzen dira Bergaran, Antzuolan eta Oñatin:

diot	→	<i>jat</i>
diet	→	<i>jet</i>
dio	→	<i>jao</i>
die	→	<i>jaue</i>

Oñatin, *j-* ordez, *x-* esaten da:

diot → *xat*

Hau bereizgarrixau kontuan izango da horretako herrixotako berbetetan jarduterakuan.

**(7)** NOR-NORI sailleko adizkixen iragana, oraiñaldikuei *-n* gehittuta egitten da Deba ibar gehixenian:

zitzaidan → *jatan*  
zitzaiion → *jakon*

Deban eta Mutrikun *zit-* be bada, euskara batuan bezala. Mutrikun, adiñeko jentiaren artian erabiltzen da, gehixenbat, *zit-* hori. Gazterixiaren jardunian, *zakon* tankerakuak zabaldu dira.

Hau ezaugarrixau kontuan izango da euskalkixan jarduterakuan.

Dana dala, azken boladan beste adizki batzuetara be zabaldu da iraganak holan egitteko joeria: *dot* → *doten*, *deusku* → *deuskun*, esate baterako. Holakuen ordezt, baiña, betiko *neban*, (*z*)*euskun* jatorrak babestu eta zaindu bihar geunkez.

**(8)** Aditzetako pluralgille nagusixa *-z* da Deba ibarreko berbeta batzuetan:

zaizkio → *jakoz*  
dakizki → *dakiz*  
darabiltza → *darabiz*  
dauzka → *daukaz*  
daude → *dagoz*  
daitezke → *leikez*

Debarrenen berbetak, Antzuola eta Bergara aldentzen dira. Honetan berbetotan beste aukera batzuk be badira, eta, esate baterako, *dauzkat*, *leizke*, *dare* tankerakuak erabiltzen dira *eduki*, *\*edin* eta *egon*-en adizkixetan. Gaiñera, *egon*-en *gaude* / *gare*, *daude* / *dare* tankerako adizkixak Deba erdiko beste herri batzuetan be erabiltzen dira.



\**edun*-en pluralgillia, ostera, *-it-* da Deba ibar osuan: *dittu*, *dittugu*, *nittuen*, *zittuen* tankerako adizkixak erabiltzen dira. Baiña iraganaldiko pluralian, *genduzen / giñuzen*, *zenduzen / ziñuzen*, *zenduezen / ziñuzten* tankerakuak erabiltzen dira.

Gaur egun, beste adizki batzuetara be zabaldu da *-z* hori: *ditugu* → *doguz / dittuguz*, *gara* → *garaz*, *dira* → *diraz*, esate baterako. Honek barrikuntzok dirala-eta, ohar bat egin nahi dogu: berbeta jasuan, behintzat, Euskal Herri osuan erabiltzen diran *dittugu*, *gara*, *dira* tankerakuei emon bihar deutsegu lehentasuna.

Pluralgilliak dirala-eta, badira nabarmendu biharreko beste gauza bi:

a) Debabarrenian, NOR-NORI-NORK adizkixetako sustraixa *\*-i-* izan arren, *-z* pluralgillia erabiltzen da:

dizkio → *dioz*  
nizkion → *niozen*

Gauza berbera gertatzen da Mutrikun eta Deban, NOR-NORI sailleko adizkixetan:

zaizkio → *zakoz*

b) Debagoixenian, ostera, NOR-NORK sailleko adizkixetan ez dago *-it-* pluralgillerik:

zaitu → *zau*  
gaitu → *gau*

Honek bereizgarri guztixok kontuan izango dittugu euskalkixan dihardugunian. Esan diran barrikuntzak dira salbuespena: *doguz / dittuguz*, *garaz*, *diraz* tankerakuak.

**(9)** Bergaran, Antzuolan eta Debagoixenian, aditzak, gehixenetan, ez dau komuntadurarik egitten objektu pluralarekin. Baten batek besterik pentsau leiken arren, hau kontuau ez da azken urtiotako gauzia, antziñako izkribuetan be halantxe agertzen da eta: 1562. urteko *Dictionarium linguae cantabrigae*-n, esate baterako. Alderdi

honetan, betikuak eta bidezkuak dira era honetako esaldixak:

*sagarrak emon dotso*  
*sagarrak gustetan jako*  
*sagarrak dakar poltsan*  
*gauza danak daki*

#### IV. JOKATU BAKO ADITZAK

**(1)** Erdal jatorriko partizipixuetan, *-ado* → *-au* egitten da gure alderdixan:

harrapatu → *harrapau*  
 sobratu → *sobrau*

Euskal jatorrikuetan eta maillegu zaharretan, ostera, *-atu* esaten da: *aukeratu, eskatu, bedeinkatu, parkatu...* Salbuespen gitxi batzuk badira, dana dala: jatorri euskaldunekuak izan arren, *barriztau, izentau* 'izendatu', *nahastau* esaten da.

Mutriku eta Deba aldentzen dira Deba ibarreko gaiñerako berbetetatik. Honetan herri bixotan aukerakua da *-au* edo *-atu* erabiltzia: *harrapatu* zein *harrapau*, bixak esaten dira. Gaiñera, euskal jatorriko aditzetan be erabiltzen da *-au*:

begiratu → *begirau*  
 haserretu → *hasarrau*  
 zoratu → *zorau*

Hau bereizgarrixau kontuan izango dogu euskalkixan dihardugunian.

**(2)** Erdal jatorriko partizipixuetan, *-ido* → *-i(d)u* egitten da gure alderdixan:

dibertitu → *dibertidu*  
 konbentzitu → *konbenzidu*

Euskal jatorrikuetan, ostera, *-ittu* esaten da: *gorrittu, haundittu...*

Oraingo honetan be Mutriku eta Deba aldentzen dira; *-itxu* (*eskribitxu, kunplitxu*) erabiltzen da, gehixenbat, honetan herri bixotan.

Euskalkixan dihardugunian, bidezkoa da *-idu* erabiltzia.

**(3)** 'Partizipixua + TA' da Deba ibar osuan juañ dan aspaldi luzian erabiltzen dan egitturia: *apurtuTA dago; bazkalduTA etorri naiz* tankerakuak.

Arrotza da gure artian 'partizipixua + A' egitturia: *apurtuA dago*. 'Partizipixua + RIK' be ez da gaur egun arrunta, lantzian behin erabiltzen dan arren:

*hori jakiñik, neu be etorriko nintzan*  
*zeuk egingo zenduela pentsaurik, trankil egon naiz*

Horretara ba, bai euskalkixan dihardugunian, eta baita euskara batuan dihardugunian be, bidezkoa dogu 'partizipixua + TA' egitturiari lehentasuna emotia.

**(4)** Deba ibar osuan partizipixua erabiltzen da beti; *hor konpon!* moduko esapideren baten ez bada, zihero galdua dago aditsoiña. Euskalkixan dihardugunian, ba, ontzat emongo dogu antziñatik datorren hori joeriori:

har ezazu → *hartu egizu*  
har dezagun → *hartu deigun*  
har dezaket → *hartu neike*

**(5)** Aditz izenak osatzeko orduan, alde haundixa dago Debagoixeneko eta gaiñerako berbeten artian.

Debarrenian eta Deba erdiko berbetarik gehixenetan, *-tzen* eta *-ten* baiño ez dagoz aukeran, eta erabilli be, gitxi gorabehera, euskara batuan moduan erabiltzen dira. Dana dala, Deba erdiko berbeta askotan, *jo* → *joten*, *hil* → *hiltten* egitten dira, eta oso zabalduta dago

*ebagi* → *ebaten* / *ebaitten* be.

Alderdi honetan, gaiñera, *-n* amaieria dauken aditz banaka batzuek, *-tzen* egitten dabe aditz izena; honetxek, gehixenbat:

ekin	→	<i>ekitzen</i>
entzun	→	<i>entzutzen</i>
irten	→	<i>ertetzen</i> / <i>urtetzen</i>
jakin	→	<i>jakitzen</i>
jardun	→	<i>jardutzen</i>

Debagoixenian, berriz, aditz izenak osatzeko aukera zabala dago:

a) *-ten* atzizkixa erabiltzen da aditzak *-ri*, *-li*, *-ni*, *-gi*, *-ki*, *-a*, *-e*, *-o* amaieria daukanian, eta holantxe da Mallabixan be kasu batzuetan. Hona hemen adibidiak:

ekarri	→	<i>ekarten</i>
ibili	→	<i>ibiltten</i>
ipini	→	<i>ipintten</i> / <i>ifintten</i>
jagi 'jaiki'	→	<i>jagitten</i>
eduki	→	<i>eukitten</i>
bota	→	<i>botaten</i>
bete	→	<i>beteten</i>
jaso	→	<i>jasoten</i>

b) Aditzak silaba bittik gora dittuanian, eta *-atu*, *-itu*, *-tu* amaieria daukanian, *-ketan* egitten dau aditz izena:

eskatu	→	<i>eskaketan</i>
gorritu	→	<i>gorriketan</i>
bigundu	→	<i>bigunketan</i>

c) Aditzak *-au* amaieria daukanian, *-etan* egitten dau aditz izena:

gustau	→	<i>gustetan</i>
--------	---	-----------------

d) Aditzak *-idu* amaieria daukanian, *-iduten* egitten dau aditz izena:

sentidu → *sentiduten*

Azkenengo sail bixetan, bestela jokutzen dau Oñatik. Herri honetan, aditzak *-au* eta *-idu* amaieria daukanian, *-itten* da aditz izena:

faltau → *faltaitten*  
sentidu → *sentitten*

Honek bereizgarri guztixok kontuan izango dittugu euskalkixan dihardugunian.

## V. JOKAMOLDE BEREZIKO ADITZAK

Jokamolde berezixa dauke aditz jakin batzuek:

a) Iragankorrek dira *igo(n)* eta *urten*:

*Udalatxeko tontorreraiño igo dogu  
domekan ez genduen etxetik urten*

b) NOR zein NOR-NORI da *hasarratu* aditza, Deba ibarreko berbeta batzuetan:

*hasarratu egin jako, eta kontuz ibilli zaitte*

Jokamolde berbera dauke *amorratu*, *berotu* eta *ernegau* aditzak be horrekin esanguriorrekin erabiltzen diranian.

c) NOR zein NOR-NORI da *akordau* aditza berbeta batzuetan:

*edurra dala-eta, mendira juatia akordau jako*

d) NOR zein NOR-NORI da *zoratu* aditza berbeta batzuetan:

*hainbeste matematika ikasitta, azkenian zoratu egin bihar jako*

e) NOR-NORK zein NOR-NORI da *pentsau* aditza berbeta batzuetan:

*niri neuri ondo pentsatzen jata hori parkiori egittia*

f) NOR-NORK zein NOR-NORI dira *aittu* eta *entendidu* aditzak berbeta batzuetan:

*horri asko aitzen jako pelota kontuetan*

g) NOR erara jokatzen da *ekin* aditza Deba ibarreko berbetarik gehixenetan:

*Elgoibarren ekin nintzan luzaruan lanian*

h) NOR-NORI-NORK erara jokatzen dira *begittu / begiratu, deittu, itxain / itxoin, lagundu, oratu / heldu* aditzak Deba ibarrian:

*zergaittik begiratzen deustazu holan?*

*neuk deittuko deustut, eta egin lo lasai*

*aittari itxaingo deustagu, eta berak eruango gaittu automobillian lagunduko deustak hauxe amaitzen?*

*eskutik oratuko deustut, eta neuk pasauko zaittut beste aldera*

## 4. MORFOSINTAXIA

(1) Esaldi osagarrixak egitteko dagozen aukera orokorrez gaiñera, -*ena* atzizkixa be erabiltzen da, aditz eta predikatu jakin batzuekin, Deba ibarrian:

*badakit hemengua dana  
ezagun dozu Iñakiren alabia zarena*

Esaldi osagarrixen sail honetan, gure alderdiko beste egittura bi aittatu bihar dira:

a) *-en susmua / errezelua / notizia / kontua...*

*laster etorriko dan susmua daukat  
ez dakit, ba, egixa ete dan hainbeste milloi tokau jakon kontua*

b) izena + esaldixa + (e)la / (e)na:

*errezelua daukat bera bakarrik etorriko dana*

Bertoko euskalkixan zein euskara batuan dihardugunian erabilli geinkez honek egittura guztixok.

Deba ibarrian, ostera, arrotza da *-(e)lako* erabiltzia: *etorriko dalako zurrumurrua zabaldu da* barik, *etorriko dan zurrumurrua* esaten da gure artian. Jakina, azkenaldi honetan zabaldu dan *\*etorriko danaren zurrumurrua* egitturia euskalgaiztua da, eta zuzendu biharrekua.

(2) Kausa esaldixak osatzeko dagozen egittura orokorrez gaiñera, 'aditza + eta' be aukeran daukagu Deba ibarrian:

*guazen hemendik, taberna danak itxi dittue eta*

Aukeran daukagu 'aditza + (e)la eta' egitturia be:

*Tourra zala-eta, Pirineuetara jua gara aurtengo oporretan*

Galderetan be *zergatik*? orokorrarekin batera, beste aukera batzuk be badira Deba ibarrian. Sarri erabiltzen da, esate baterako, *zer dala-eta*?

*zer dala-eta ez ziñan, ba, etorri?*

Zer *ba*? egitturia be sarri erabiltzen da:

— *Gaur ez dot urtengo*

— *Zer, ba?*

Zergatixa adierazteko beste aukera bat be bada gure alderdixan, partizipixo hutsa erabilliaz lortzen dana:

*hain politta izan, eta nahi ez!*

*dirua euki, eta zelan ez dozu, ba, erosi?*

*ez dau ezer aitzen. Umia izan!*

Esaldi luzietan, gehixenbat, ze eta *zergatik* (e)ze be sarri erabiltzen dira:

*Ez dot zinera juan nahi, zegaittik eze dirurik ez daukat, eta, gaiñera, nahixago dot kiroldegira juan*

Bertoko euskalkixan zein euskara batuan dihardugunian erabilli geinkez honek egittura guztixok, baiña, ostera, *bait-* aurrizkixa (ez *baitaukat dirurik*) arrotza da gure alderdixan, eta euskalkixan dihardugunian, behintzat, hoba genduke bestiei emon lehentasuna.

**(3)** Esaldi kontzesibuak osatzeko dagozen egittura orokorrez gaiñera, Naparruan eta Gipuzkua gehixenian galduta dagoen *arren*, bizirik dago Deba ibarrian:

*piperrik jakin ez arren, horrek esango dau zer edo zer*

Bertoko euskalkixan zein euskara batuan dihardugunian erabilli geinke hau egitturiau.



(4) Helburuzko esaldixetan, *-t(z)iatatik* atzizki orokorrarekin batera, *-t(z)iarren* be bada Deba ibarrian:

*zeu ikustiarren etorri naiz*

Sarri erabiltzen dogun beste egitura bat be bada: *-t(z)e aldera*. Hona adibidia:

*kontu batzuk kontatze aldera alkartu gara tabernan*

Bertoko euskalkixan zein euskara batuan dihardugunian erabilli geinkez honek egitura bixok.

(5) Modu eta denpora esaldixak osatzeko, *-(e)la* atzizkixa erabiltzen da Deba ibarrian:

*hiru urte neukazela, Durangora juañ giñan bizi izatera*

Bertoko euskalkixan zein euskara batuan dihardugunian erabilli geinke hau egitturiau. Gure artian arrotza da, ostera, oraindik orain zabaldu dan *-(e)larik* (*hiru urte neukazelarik*), eta arrotza dalako, ziurrenera, oker erabiltzen dogu sarri. Hona hemen erabillera okerraren adibidia:

*\*israeldarrak eraso gogorak egin dittue, hainbat palestindar hil dittuelarik*

Hau bestiau da, ostera, gure artian betidanik erabilli dan egitura jatorra:

*israeldarrak eraso gogorak egin dittue, eta hainbat palestindar hil dittue*

(6) Moduzko esaldixetan, Euskal Herri osoko *moduan*, alde batetik, eta, horrekin batera, *legez* (> *letxe*), *bezela*, *erara* erabiltzen dira gure artian, berbeten arabera. Geure euskalkixan zein euskara batuan dihardugunian erabilli geinkez honek egitura guztixok.

(7) Denbora esaldixetan, ‘aditza + *ahala*’ egitturia erabiltzen da, gertakari bi aldi berian betetzen diranian:

*jan ahala ekartzen jittuen bildots txuletak  
bota ahala zunan eurixa  
kobrau ahala gastatzen jok*

Bertoko euskalkixan zein euskara batuan dihardugunian erabilli geinke hau egitturiau.

**(8)** Esaldi konparatibuetan, *lako* erabiltzen da Deba ibarreko berbeta batzuetan:

*uda guztixan ez dau egin gaur lako egun berorik*

Hau egitturiau arrotz samarra da Debabarrenian, Soraluzen, Bergaran eta Antzuolan, eta euskara batuan hoba dogu danok be *bezalako* erabilli.

Deba ibar osokua da, ostera, *lain*. Destinatiboko atzizkixa eskatzen dau beti:

*geuretako lain badaukagu, baiña sobra haundirik barik  
etxerako lain patata hartzen dau ortuan  
bazkaltzeko lain ogi be ez don ekarri, barren!  
gaurko lain egin junat, eta etxera najoian*

Bertoko euskalkixan zein euskara batuan dihardugunian erabilli geinke hau egitturiau.

**(9)** Baldintzazko esaldixetan, egittura orokorrez gaiñera, *-t(z)era* be erabiltzen da:

*manifestaziñua Bilbon izatera, neu be juango non  
Gabon Zaharretan danok alkartzera, jatetxe batera juango  
gaittun afaltzera, eta kitto!*

Geure euskalkixan zein euskara batuan dihardugunian erabilli geinke hau egitturiau.

**(10)** Aurkaritza adierazteko, *besterik* eta *baiño* (hau gitxiago) dittugu aukeran:

*umiak ez dau jan nahi, ez goserik ez daukalako, temia  
daukalako baiño  
bat besterik ez dot erosi*

Arrotza da, ostera, *baizik* orokorra Deba ibarrian.

Aurkaritza adierazteko, *barren* be badago Deba ibarreko berbeta batzuetan: Mendaron, Elgoibarren, Soraluzen, Eibarren, Ermuan eta Mallabixan. Hona hemen adibide bat:

*nora zoiaz hain goiz, seirak be ez dira, barren!*

Bertoko euskalkixan zein geure eskualdeko euskara batuan dihardugunian erabili geinke hau egitturiau.

**(11)** Orobatasuna adierazten daben esaldixetan, *nahiz* orokorraz gaiñera, *zein* be erabiltzen da berbeta batzuetan:

*bardin deuste zure motorra hartu zein neuria*

Bertoko euskalkixan zein euskara batuan dihardugunian erabili geinke hau egitturiau.

**(12)** Galderetan gehixenbat, aukeria adierazten danian, *ala* erabiltzen da:

*zer nahi dozu, barrura sartu ala kanpuan geldittu?*

Bigarren aukeria isiltzen danian be *ala* hori erabiltzen dogu:

*ez hator, ala?*

Bertoko euskalkixan zein euskara batuan erabili geinke hau egitturiau.

**(13)** Galderetan, entonaziñuaz gaiñera, *a/* partikulia erabiltzen da Debararrenian:

*ez al dakizu zer gertatu dan?*

Euskalkixan zein euskara batuan erabilli leike hau egitturiau.

**(14)** Mugimentuzko aditzen osagarri diren aditz izenak NON kasuan ipintzen dira Debagoixenian:

*ia zer pasetan dan ikusTEN noie*

Euskalkixan zein geure eskualdeko euskara batuan dihardugunian erabilli geinke hau egitturiau. Euskal Herri osorako dihardugunian, ostera, hoba NORA kasua erabilli: *ikusTERA noa*.

**(15)** *Bi* zenbatzaillia izenaren ezkerretara zein eskumatara ipintzen da, berbeten arabera. Debabarrenian, Antzuolan, Bergaran eta Oñatin, ezkerrian ipintzen da gehixenetan: *bi etxe*. Leku batzuetan aukerakua da: *etxe bi / bi etxe*.

Aukera bata zein bestia erabilli geinke, bai euskalkixan eta baita euskara batuan dihardugunian be.

**(16)** Deba erdikuan eta Debagoixenian, galdegaixa aditza bera darian, *juan doia* tankerako egitturak erabiltzen dira aditz trinkuetan:

*parra-parra gastatzen dau horrek. —Bai, ba, euki dauka eta!  
ibilli dabil, eta azkenian izango dau ezbiharren bat!  
zer dabik: etorri hator ala juan hoia?*

Bertoko euskalkixan zein euskara batuan dihardugunian erabilli geinke hau egitturiau.

**(17)** Azken baten, ba, geure syntaxiko bereizgarri gehixenak erabilli geinkez euskara batuan; geure eskualdeko euskara batuan dihardugunian, batez be. Baiña badira erderatik sartu eta, jardun jasuan behintzat, zuzentzia komeni diran egitturak; esate baterako, *asike, oseake, aunke, eske, lo ke pasa, porke, segun-eta...* Konponbidia ez da, gaiñera, oso gatxa:

asike, oseake	→	<i>orduan, hortaz, horregaittik, horretara, holan dala, ba,...</i>
aunke	→	<i>nahiz eta, arren...</i>
eske	→	<i>izan be, aditza + eta, aditza + baiña...</i>
lo ke pasa	→	<i>kontua da, gertatzen da</i>
porke	→	<i>ze, zergaittik (e)ze...</i>
segun-eta	→	<i>galdetzaillia + (e)n (zein dan, zenbat diran, zelakua dan tankerakuak)</i>

Gazterixiaren artian asko zabaldu da *si* erabiltzeko ohituria:

*si* nik ez dakit → *nik ez dakit baiña, nik ez dakit eta...*

## 5. ALDAERAK

### OHARRAK

Aldaerak zer diran argitu bihar dogu lehenengo eta behin. Berba jakin batek hartzen dittuan itxura desbardiñak dira *aldaerak*. Esate baterako, *beltz* eta *baltz* berba bat esateko modu bi dira, berba baten aldaerak dira. *Apurtu* eta *puskatu*, ostera, ez dira berba baten itxura desbardiñak. Oraingo honetan, berba bi dira, zihero desbardiñak diran berba bi, eta, holakuak, hurrengo atalian, ‘Hiztegixan’, erakutsiko dira. Aldaerak arrazoi fonetikuen ondorixo izaten dira gehixenetan, baiña arrazoi morfologikuak be tartian izaten dira lantzian behin.

Bilduma honetan ez dittugu berba guztixen aldaera guztixak sartu. Aukera bat egin dogu, eta irizpide bi erabili dittugu. Alde batetik, oso zabaldua dagozenak izan dittugu kontuan, eta, bestetik, bakotxaren literatura tradiziñuari begiratu deusagu. Horrek baldintza bixok betetzen ez zittuenak alde batera itxi dittugu.

Irizpide metodologiko jakin batzuk be erabili dittugu.

Gertakari berbera berba baten baiño gehixagotan betetzen da iñoiz. Esate baterako, *-l-* eta *-d-* txandaka agertzen dira gitxienez be lau berbatan: *belar / bedar*, *elur / edur*, *ilar / idar*, *zilar / zidar*. Holako taldiekin sail berezixa osatu dogu: *arau multzuen* saila. Bigarren sailian, gaiñerako guztixak, multzoka antolatu ezin diranak, batu dittugu.

Aldaerak mugagabian eta singularrian ipiñi dittugu: **gaztai**, **-a** ‘gazta’, **barri**, **-xa** ‘berria’, esate baterako. Gure alderdixan gertatzen diren fonetismuak dirala-eta (*e* → *i*, *o* → *u*, *i* + *a* → *ixa*, *-a* + *a* → *-ia*), komenigarrixa begittandu jaku berba bakotxak, bai mugagabian eta bai singularrian, zer itxura daukan erakustia.

Ez dogu kontuan hartu, *i* eta *u* bokalen eragiñez, *a* → *e* egitten daben legia, hau da, *edurra* → *edurre*, *barrixa* → *barrixe*. Aldaera bakotxaren

barruan **barri**, **-xa**, **-xe** ipintziak, asko luzatuko eta nahastuko eban zerrendia, eta laburtze eta errazte aldera, **barri**, **-xa** baiño ez dogu ipiñi.

Zergaittik aukeratu dogun **barrixa** eta ez **barrixe**? Arrazoia hauxe da: Deba ibarrian **barrixa** da herririk gehixenetan erabiltzen dana; batez be Mallabixan, Aramaixon eta Leintz ibarreko auzuetan erabiltzen dira **barrixe** tankerakuak. Zabalduen dagoenaren alde egin dogu, azken baten.

Berba batek aldaera bi dittuanian, argibidiak behin bakarrik emon dittugu, esate baterako: **alkondara**, **-ia** / **arkondara**, **-ia** ‘alkandora’. Bigarrena zerrendan ipintzerakuan, hauxe besterik ez dogu esan: **arkondara**, **-ia**. Ik. **alkondara**. Bigarren aldaeria euskara batuko berbera bada, berriz, ez dogu zerrendan ipiñi be egin. Esate baterako, **be** / **ere** ‘ere’, baiña **ere** ez da zerrendan agiri.

Berbaren bat Deba ibar osokua ez danian, beronen sinonimo ezagunagua be ipiñi dogu aldamenian. Esate baterako: **eguakotx**, **-a** / **ebakoitz**, **-a** / **eguakitz**, **-a** ‘egubakoitza; ostirala’. Deba ibarrekuondako ez eze, gaiñerako euskaldunendako be lagungarri izango da —hala uste izan dogu, behintzat— *ostirala* hori.

Lagunarteko berbetia eta berbeta jasua be bereizi egin dittugu iñoiz. Esate baterako, *bela* eta *belaxe* erabiltzen dittugu geure eguneroko jardunian, baiña garbi dago aldaera laburtuak dirana. Holakuetan, **bela(xe)**. *Jas. berihala(xe)* ipiñi dogu. Jasuaren beste aldekoa, lagunartekua da, eta holakuetan *lag*. laburduria erabilli dogu.

Deba ibarra zabala eta, hizkuntza aldetik, nabarra danez, aldaera bakotxa nun erabiltzen dan zehaztiak buruhauste haundi samarrak sortu deuskuz, eta era honetara konpontzen ahalegindu gara:

1. Hasieran esan danez, hiru eremu nagusi dagoz Deba ibarrian, eta aldaerak eremu horretariko baten erabiltzen diranian, *Dg* (Debagoixena), *De* (Deba erdikua), *Db* (Debabarrena) laburdurak ipiñi dittugu.

Gauzak, dana dala, ez dira estu-estuan hartu bihar. Behin baiño

gehixagotan, *Db* ipiñi arren, Debabarrenekua ez dan beste herriren baten be erabiltzen da hori aldaeriori. Alderantziz be sarri gertatzen da, hau da, *Db* ipiñi, eta Debabarreneko herri dan-danetan ez erabiltzia. Herrixak banan-banan ziheztia luze juango zan, eta nahixago izan dogu zabal jokatu. Herri bakotxeko berbetak aztertzen diranian, orduan erakutsiko dira horrek ziheztasun guztixok.

2. Aldaera bat han eta hemen erabiltzen danian, eta bere eremua argitzia gatxa egitten danian, *berbeten arabera* ipiñi dogu. Esate baterako, **urten / erten** 'irten', *berbeten arabera* erabiltzen dirala esan dogu, gehixagoko ziheztasunetan sartu barik.

3. Herri baten aldaera bat baiño gehixago erabiltzen diranian, ez dogu ezer esan; erabiltzen diranak jaso besterik ez dogu egin. Herri horretako berbetia aztertzen danian, orduan argittuko da zein dan zaharra edo barrixa, zein dan zabalduen dagoena, eta gaiñerako gorabehera eta xehetasun guztixak.

4. Azkenik, Deba ibarrian aldaera bat baiño gehixago diranian, eta horretariko bat oso zabaldua dagoenian, eta bestia —edo bestiak— herri jakiñen baten baiño erabiltzen ez danian, zabalduen dagoenari, *orok*. (*orokorra*) laburduria ipiñi deutzagu.



## ALDAERAK

## I. ARAU MULTZUAK

(1) Berba jakin batzuen hasieran, *u-* dago Deba ibarreko lekurik gehixenetan:

**ule, -ia** (Dg, De) / **ille, -ia** (De, Db) 'ilea'  
**untza, -ia** (Dg, De) / **ultza, -ia** (De) / **iltze, -ia** (De, Db) 'iltzea'  
**urten / erten** 'irten', berbeten arabera  
**urun, -a** (Dg, De) / **irin, -a** (De, Db) 'irina'

(2) <rr> aurrian, *e* → *a* egitten da sarri, baiña ez dauka indar berbera Deba ibar osuan:

**bardin, -a** (Dg, De) / **berdin, -a** (De, Db) 'berdina'  
**barri, -xa** (Dg, De) / **berri, -xa** (De, Db) 'berria' (eta **barriro / berriro**)  
**basarri, -xa** / **baserri, -xa** 'baserria', berbeten arabera  
**baztar, -a** (*orok*) 'bazterra'  
**bidar / bider** 'bider', berbeten arabera  
**edar, -a** / **eder, -a** 'ederra', berbeten arabera  
**hasarratu / hasarretu** 'haserretu', berbeten arabera  
**izardi, -xa** / **izerdi, -xa** 'izerdia', berbeten arabera  
**iztar, -a** / **izter, -a** 'izterra', berbeten arabera  
**muskar, -a** / **musker, -a** 'muskerra', berbeten arabera  
**pipar, -a** / **piper, -a** 'piperra', berbeten arabera  
**pitxar, -a** / **pitxer, -a** 'pitxerra', berbeten arabera  
**txarri, -xa** (*orok*) 'txerria' (eta **txarri hiltzia, txarribodia, txarrikixa, txarrikumia**)

(3) Berba amaieran, *-e* → *-a* egitten da Deba ibar osoko berba jakin batzuetan. Sarrien erabiltzen diranak aittatuko dittugu:

**agura, -ia** / **agure, -ia** 'agurea', berbeten arabera  
**altara, -ia** / **aldara, -ia** 'aldarea', berbeten arabera  
**andra, -ia** (*orok*) 'andrea'

**arata, -ia** ‘ahatea’  
**arrautza, -ia** (*orok*) ‘arrautza’  
**basurda, -ia / basurde, -ia** ‘basurdea’, berbeten arabera  
**bela, -ia** (*orok*) ‘belea’  
**hoba, -ia / hobe, -ia** ‘hobea’, berbeten arabera  
**-kuma, -ia** (*orok*) ‘-kumea’ (eta **katakuma, txakurkuma, txarrikuma...**)  
**laba, -ia** (*orok*) ‘labea’  
**landara, -ia** (*orok*) ‘landarea’  
**lora, -ia** (*orok*) ‘lorea’  
**ota, -ia** (*orok*) ‘otea’  
**suba, -ia, suga, -ia / suge, -ia** ‘sugea’, berbeten arabera  
**-una, -ia** (*orok*) ‘-une’ (eta **auzuna, baltzuna, begirakuna...**)  
**untza, -ia** (Dg, De) / **ultza, -ia** (De) ‘iltzea’

4) Berba amaieran, *-ain* → *-an* egiten da Deba ibar gehixenian, Debabarrenian izan ezik:

**erran, -a** (Dg) / **errain, -a** ‘erraina’ (ikusten danez, *errain* aldaeriaren eremua zabalagua da; Debagoixenian baiño ez da erabiltzen *erran*)  
**ezpan, -a / ezpain, -a** (Db) ‘ezpaina’  
**laban egin / labain egin** (Db) ‘labain egin’  
**orban, -a** ‘orbaina’  
**zan, -a / zain, -a** (Db) ‘zaina’

Dana dala, Deba ibar osuan *gain* esaten da (eta *gaiñian, gaiñeko, gaiñetik...*)

(5) Naparruan eta Gipuzkuan moduan, antziñako *\*-ani* → *-ai* egin da Deba ibarreko berbeta gitxi batzuetan; Debabarrenian, gehixenbat. Gaiñeraketan, *-ain* egin da:

**arrai, -xa / arrain, -a** ‘arraina’  
**usai, -a / usain, -a** ‘usaina’  
**zai / zain** ‘zain’ (eta **artzai / artzain, basozai / basozain, umezai / umezain...**)

(6) *i* bokalak, diptongo bateko bigarren osagaixa danian, bere ondorengo *z* → *x* eta *tz* → *tx* aldatzen ditu, eta hori aldakuntziori eragin eta gero, galdu egiten da sarri. Ez da bardin betetzen Deba ibarreko berbeta guztixetan: Debabarrena, Deba erdiko berbeta batzuk eta Oñati aldentzen dira:

**a(i)xkora, -ia / aizkora, -ia** ‘aizkora’, berbeten arabera  
**atxekixa, -ia / aitzakixa, -ia** ‘aitzakia’, berbeten arabera  
**atxur, -a (orok)** ‘aitzurra’  
**bakotx, -a / bakoitz, -a** ‘bakoitza’, berbeten arabera  
**elixa, -ie (Aramaixo) / elixa, -ia / eliza, -ia** ‘eliza’, berbeten arabera  
**gatz, -a / gaitz, -a** ‘gaitza’, berbeten arabera  
**go(i)x / goiz** ‘goiz’, berbeten arabera  
**haretx, -a / haritx, -a / haritz, -a** ‘haritza’, berbeten arabera  
**hatx, -a / haitz, -a** ‘haitza’, berbeten arabera  
**ha(i)xe, -ia / haize, -ia** ‘haizea’, berbeten arabera  
**keixa, -ia (orok)** ‘gerezia’  
**le(i)xar, -a / lixar, -a / lizar, -a** ‘lizarra’, berbeten arabera  
**nos / noiz** ‘noiz’, berbeten arabera

(7) Berba jakin batzuetan, *-l-* ordez, *-d-* dago Deba ibarrian:

**bedar, -a** ‘belarra’ (eta **bedartzia**)  
**edur, -a** ‘elurra’ (eta **edurruna, edurtia, edurtzia**)  
**idar, -a** ‘ilarra’  
**zidar, -a** ‘zilarra’

(8) Deba ibarreko lekurik gehixenetan, *-n-* sartzen da berba jakin batzuetan:

**mamin, -a** ‘mamia’ (eta **ogi mamiña, ipurdi mamiñak**)  
**mihin, -a** ‘mihia’  
**premiña, -ia / premia, -xia (Db)** ‘premia’  
**zentzun, -a / zentzu, -a** ‘zentzua’, berbeten arabera (eta **zentzunduna / zentzuduna**)

(9) Deba erdiko berbetetan, *-n-* sartzen da *esan* aditzaren trinkuetan: *diñot, diñok/n, diño, diñogu, diñozu, diñozue, diñue*.

(10) *f* eta *p* / *b* txandaka erabiltzen dira, berbeten arabera:

**alper, -a** (*orok*) ‘alferra’ (eta **alperrik, alperrikakua, alperrikua**)  
**fratel, -a / flater, -a / plater, -a** ‘platera’, berbeten arabera  
**fraka, -ia / praka, -ia** ‘praka’, berbeten arabera  
**frijidu / prijidu** ‘frijitu’, berbeten arabera  
**fritzixa, -ia / pritzixa, -ia** ‘piztia’, berbeten arabera  
**hafixa, -ia** (Dg, De) / **hapixa, -ia** (De) / **habixa, -ia** (De, Db)  
 ‘habia’  
**ifar, -a / ipar, -a** ‘iparra’, berbeten arabera  
**ifiñi / ipiñi** ‘ipini’, berbeten arabera  
**napar, -a** (*orok*) ‘nafarra’ (eta **Naparrua**)

(11) ‘-n amaierako aditz batzuk + *ald*’ batzen diranian, -*t*- zein -*n*-agertzen dira, berbeten arabera:

**egotaldi, -xa / egonaldi, -xa** ‘egonaldia’  
**ekittaldi, -xa / ekiñaldi, -xa** ‘ekinaldia’  
**jutaldi, -xa / juanaldi, -xa / fanaldi, -xa** ‘joanaldia’

(12) Zenbait partizipixotan, -*gi* dago Deba ibarreko berbeta batzuetan:

**eba(g)i / ebaki** ‘ebaki’, berbeten arabera  
**egogi** (Dg) / **egoki** ‘egoki’  
**eraba(g)i / erabaki** ‘erabaki’, berbeten arabera  
**ere(g)i / iriki** (Db) ‘ireki’  
**ese(g)i / ixeg)i / eske(g)i** ‘eseki’, berbeten arabera  
**ja(g)i** (Dg, De) / **jaiki** (De, Db) ‘jaiki’

(13) Partizipixo batzuetan, -*ittu* dago Deba ibarreko berbeta batzuetan:

**baltzittu / balztu / belztu** ‘belztu’, berbeten arabera  
**hotzittu / hoztu** ‘hoztu’, berbeten arabera  
**hutsittu / hustu** ‘hustu’, berbeten arabera

## II. BESTE ALDAERA BATZUK

**agiri** ‘ageri’

**ahizta, -ia** (Dg, De) / **ahizpa, -ia** (De, Db) ‘ahizpa’

**aittatu** ‘aipatu’, baiña berba barrixetan **aipamena, aipua**

**alkar** ‘elkar’ (eta **alkarrizketia, alkartasuna, alkartia**)

**alkondara, -ia** / **arkondara, -ia** ‘alkandora’, berbeten arabera

**altara, -ia** / **aldara, -ia** ‘aldarea’, berbeten arabera

**antzerako, -ua** / **antzeko, -ua** ‘antzekoa’

**ardau, -a** ‘ardoa’ (eta **ardauzalia, sagardaua**)

**arkondara, -ia**. lk. **alkondara**

**atara / etara** ‘atera’

**aterri, -xa** ‘ateri’

**atzamar, -a** / **atzapar, -a** ‘atzamarra; hatza’

**atzapar, -a**. lk. **atzamar**

**aurki, -xa** / **aulki, -xa** ‘aulkia’, berbeten arabera

**bakaillau, -a** / **bakillau, -a** ‘bakailaoa’

**bakillau, -a**. lk. **bakaillau**

**bako, -ua** (*orok*) / **gabeko, -ua** ‘gabekoa’ (eta **ganorabakua, lotsabakua...**)

**baltz, -a** (Dg, De) / **beltz, -a** (De, Db) ‘beltza’ (eta **baltzittu, baltzuna**)

**barik** (*orok*) / **gabe** ‘gabe’

**barre, -ia** ‘barrea’ (eta **irribarria**)

**barrez / berriz** ‘berriz; ostera, gainera’

**be / ere** (Db) ‘ere’

**beittu** ‘begitu, begiratu’

**bekarra, -ia** / **makar, -a** ‘makarra’, berbeten arabera

**bela(xe)**. *Jas. berihala(xe)*

**bende / mende** ‘mende’

**betik** (Dg) / **beti** ‘beti’

**bialdu** ‘bidaldu; bidali’

**bildur, -a** ‘beldurra’ (eta **bildurgarrixa, bildurtixa**)

**bixamon, -a** ‘biharamuna’

**borobil, -a** / **biribil, -a** ‘biribila’

**burdi, -xa** ‘gurdia’ (eta **burdikadia**)

**burpil, -a** / **kurpil, -a** / **gurpil, -a** ‘gurpila’

**burruka, -ia** ‘borroka’ (eta **burrukalarixa**)

**buztarri, -xa** / **uztarri, -xa** ‘uztarria’, berbeten arabera

**dana** ‘dena’ (eta **dana dala** ‘dena dela’)

**denpora, -ia / denbora, -ia** ‘denbora’, berbeten arabera

**ebakoitz, -a / eguakitz, -a / eguakotx, -a** ‘egubakoitza; ostirala’,  
berbeten arabera

**eguakitz, -a**. lk. **ebakoitz**

**eguakotx, -a**. lk. **ebakoitz**

**emon** (Dg, De) / **emun** (Dg) / **eman** (Db) ‘eman’

**emun**. lk. **emon**

**erdeldun, -a / erdaldun, -a** ‘erdalduna’

**erdera, -ia** ‘erdara’, baiña **erdalgaiztua**

**eretxi, -xa / eritxi, -xa / iritxi, -xa** ‘iritzia’, baiña berba barrixetan  
**irizpidia**

**eritxi, -xa**. lk. **eretxi**

**errazoi, -a / errezoi, -a / arrazoi, -a** ‘arrazoia’

**errez, -a / erraz, -a** ‘erraza’

**errezoi, -a**. lk. **errazoi**

**erropa, -ia** ‘arropa’

**eskeiñi / eskiñi / eskindu** ‘eskaini’

**eskindu**. lk. **eskeiñi**

**eskiñi**. lk. **eskeiñi**

**eskuma, -ia** ‘eskuina’ (eta **eskumatarra**)

**eskutur, -a / eskumutur, -a** (Db) ‘eskumuturra’

**etara**. lk. **atara**

**ete** ‘ote’

**etxain / etxoin / itxain / itxoin** ‘itxaron’, berbeten arabera

**etxoin**. lk. **etxain**

**etzin** (*orok*) / **etzun** (De) / **etzan** (De, Db) ‘etzan’

**etzun**. lk. **etzin**

**euskera, -ia** ‘euskara’, baiña **Euskal Herrixa, euskalduna,**  
**euskalgaiztua**

**fan** (Dg, De) / **fuen** (Dg) / **juan, juen** (*orok*) ‘joan’

**fuen**. lk. **fan**

**gaztai, -a** ‘gazta’

**gili-gili / kili-kili** ‘kili-kili’, berbeten arabera

**gitxi** (Db, De) / **gutxi** (De, Dg) ‘gutxi’

**gizur, -a** (Db, De) / **guzur, -a** (De, Dg) ‘gezurra’  
**gultzurrun, -a** / **guntzurrun, -a** ‘giltzurruna’  
**guntzurrun, -a**. lk. **gultzurrun**  
**guzur, -a**. lk. **gizur**

**hamen / hemen** ‘hemen’  
**harañegun / herañegun** ‘herenegun’  
**haundi, -xa** ‘handia’  
**hazur, -a** ‘hezurra’  
**herañegun**. lk. **harañegun**  
**herdoi, -xa** / **ordei, -xa** ‘herdoila’  
**hode, -ia** ‘hodeia’ (eta **eguraldi hodiatua, zeru hodiatua**)

**igari egin** ‘igeri egin’  
**ikubil, -a** / **ukabil, -a** ‘ukabila’  
**ikutu** ‘ukitu’  
**illatargi, -xa** / **iratargi, -xa** / **itargi, -xa** ‘iratargia; ilargia’,  
berbeten arabera  
**iñuntz, -a** / **iruntz, -a** / **ihintz, -a** (Db, De) ‘ihintza’  
**ipoin, -a** / **ipuin, -a** ‘ipuina’  
**irakorri / irakurri** ‘irakurri’  
**iratargi, -xa**. lk. **illatargi**  
**iritxi, -xa**. lk. **eretxi**  
**iruntsi** ‘irentsi’  
**iruntz, -a**. lk. **iñuntz**  
**itargi, -xa**. lk. **illatargi**  
**itxain**. lk. **etxain**  
**itxi** 1. ‘itxi’, 2. ‘utzi, laga’  
**itxoin**. lk. **etxain**

**jente, -ia** / **jende, -ia** ‘jendea’, berbeten arabera  
**juan / juen**. lk. **fan**  
**jun**. *Jas.* **juan / juen**

**kakarraldo, -ua** ‘kakalardoa’  
**kerten, -a** (Db, De) / **kirten, -a** (De, Dg) ‘kirtena’  
**kipula, -ia** ‘tipula’  
**kurpil, -a**. lk. **burpil**

**lebatz, -a / le(g)atz, -a** ‘legatza’, berbeten arabera  
**lehelengo, -ua / lehenengo, -ua** ‘lehenengoa’

**madura, -ia / padura, -ia** ‘padura; zingira’, berbeten arabera  
**mailluki, -xa** ‘marrubia’  
**matrailla, -ia** ‘masaila’ (eta **matrailla gorrixa, matrailla hagiña, matrailla hazurra, matraillakua**)  
**mobidu** ‘mugitu’  
**mustur, -a / mutur, -a** ‘muturra’, berbeten arabera

**nahar, -a (Dg) / lahar, -a** ‘laharra; sasia’  
**narru, -a** ‘larrua’ (eta **narru sendua, narrugorrixan, narrukua emon, narrukua hartu, narrutan egin**)  
**nasai, -xa** ‘nasaia’ (arropa)  
**nere (Db, De) / nire (De, Dg)** ‘nire’ (eta **neri / niri, nerekin / nirekin, neretako / niretako...**)  
**nun** ‘non’ (eta **iñun, iñundik, iñungo...; nundik, nungua, nuntarra...**)

**oin. Jas. orain** (eta **ondiño, ondiok, ondiokan...**)  
**okots, -a** ‘kokotsa’  
**ordei, -xa. lk. herdoi**  
**orixo, -ua / olixo, -ua** ‘olioa’, berbeten arabera

**parkatu / barkatu** ‘barkatu’, berbeten arabera  
**pekatu, -a** ‘bekatua’  
**puskat (Dg, De) / pixkat (De, Db)** ‘puska bat, pixka bat’

**sapai, -xa (Db, De) / sabai, -xa (De, Dg)** ‘sabaia’  
**solo, -ua / soro, -ua** ‘soroa’, berbeten arabera  
**suba, -ia / suga, -ia / suge, -ia** ‘sugea’  
**suga, -ia. lk. suba**  
**suhin, -a** ‘suhia’  
**sur, -a** ‘sudurra’ (eta **surpekua lag. ‘bibotea’, surzilluak ‘sudurzuloak’**)

**takar, -a / zazkar, -a / zakar, -a** ‘zakarra’  
**tantaka, -ia / tantan, -a / tanta, -ia** ‘tanta’  
**tantan, -a. lk. tantaka**



**tolostu** ‘tolestu’

**txindurri, -xa / txiñurri, -xa** ‘inurria’, berbeten arabera

**txiñurri, -xa.** lk. **txindurri**

**txintxilik** ‘zintzilik’

**txitxara, -ia** ‘zizarea’

**txix, -a** ‘pisa’ (eta **txixaguria, txixalarrixa**)

**urrin** ‘urrun’

**zazkar, -a.** lk. **takar**

## 6. HIZTEGIXA

### OHARRAK

Lehenengo eta behin, Hiztegi honetan zer motatako berbak sartu dittugun argitu nahi dogu.

1. Alde batetik, berezixak diranak baiño ez dittugu sartu; zerrendatik kanpo geratu dira Euskal Herri guztixan erabiltzen diran *ogi*, *ur*, *odol*, *euli*, *egur* tankerako ugarixak.

2. Beste alde batetik, berriz, Deba ibarreko bizilagunok geure eguneroko jardunian erabiltzen dittugun berbak sartu dittugu. Alde batera itxi dira, ba, bizibide jakin bati lotutako berba tekniko eta berezixak: baserritarrenak, arrantzalienak, ehiztarixenak, eskopetagintzakuak, torlojugintzakuak, ehungintzakuak, eta abar. Alde batera itxi dira sail berezixetako berbak be: txori eta hegazti izenak, landara eta perretxiku izenak, zomorro eta animalixa izenak, arrain izenak, eta abar.

3. Hirugarrenik eta azkenik, guk ez dogu arkeologixa biharrik egin nahi izan. Hau da, gure asmua ez da antziñako berbak, edo adin haundiko lagun banaka batzuek darabizenak jasotzia. Holakoren bat agertzen bada, etorkizunerako egokixa begittandu jakulako izan da, alperriko erderakadak baztertzeko, eta hizkuntziarendako aberasgarri begittandu jakulako, azken baten.

Aldaeren atalian egin dogun moduan, berbak be mugagabian eta singularrian ipiñi dittugu. Era berian, ez dogu kontuan hartu, *i* eta *u* bokalen ondoren, *a* → *e* eragitten daben legia, hau da, **odoloste**, **-ia** ipiñi dogu, eta alde batera itxi dittugu **odolostie** tankerakuak. Lehen be esan dogu **odolostia** erakuak dagozela zabalduen Deba ibarrian, eta zabalduen egote horri emon deusagu lehenetasuna. Baiña, barrero diñogu, *a* → *e* egittia ez dogu iñundik iñora be txartzat jotzen eta gaitzesten, arau zuzena dalako, eta euren betiko arauari jarraitzia da horrendako herrixotakuendako bidia eta legia.

Berba bakotxaren eremua garbi samar dagoenian, betiko laburdurak erabilli dittugu: *Db* (Debabarrena), *De* (Deba erdikua) eta *Dg* (Debagoixena), baiña, barriro gogoratu nahi dogu, horrek banaketok ezin dirala estu-estuan hartu. Berbak, gaiñera, oso “ibitarixak” dira, eta, berba kontuan, nekeza gertatzen da muga zihetzak eta zorrotzak ezartzia.

Hizkuntza maillak be bereizi dittugu lantzian behin: *jas*. (berbeta jasokua) eta *lag*. (lagunarteko berbetakua) erabilli dittugu horretarako.

Beste laburdura batzuk be erabilli dittugu: *ant*. (antonimua, edo kontrako esanguria daukan berbia), *sin*. (sinonimua, edo balixo bereko edo antzeko —gehixenetan esangura eta erabillera bardin-bardiñekuak izaten ez diralako— berbia), *ald*. (aldaeria).

Berbaren batzuk hobeto azaltziarren, adibidiak ipiñi dittugu aldamenian. Danon lagungarri izango diralakuan gagoz, batez be gure eskualdian bizi, baiña bertoko berbetia ez dakixenendako, eta baita gure eskualdian bizi ez arren, hemengo barri jakin nahi dabenendako be. Lantzian behin, gaiñera, esapidiak be ipiñi dittugu: *esap*. laburduria dauke ezaugarri.

Gaztelaniazko berbia be ipiñi dogu iñoiz: *gazt*. laburduria da holakuetan ezaugarri. Sarri erabiltzen dittugu erderakada gordiñak, ustez eta euskeriak ez daukala ordaiñik. Euskerazko ordaiñik ez dagoenian, bidezkoa eta zentzuzkoa da erderara jotia —edozein erderatarara, gaiñera!—, baiña etxian ordain egokixa edukitta, ez dago auzuetatik ekartzen ekin biharrik.

Berba bakotxaren onduan ordain bi ipiñi dittugu sarri, esate baterako, **odoloste**, **-ia** ‘odolostea; odolkia’. Bigarren ordaiña, Euskal Herrixan zabalduena eta ezagunena dana da, jakiña. Lehenengua, ostera, *geure eskualdeko euskara batuan* erabilli geinkena da.

Liburuaren lehenengo atalian esan dogunez, sarri izango dogu geure herri barruan bertan be euskara batua erabilli biharra, baiña euskara batua erabiltziak ez dau esan gura geure berbetia zihero alde batera itxi bihar dogunik. Hain zuzen, berbak eta esapidiak batez be, geure

etxeko harrobittik atara geinkez.

## A

**abade, -ia** ‘abadea; apaiza’

**aberats barri, -xa** ‘aberats berria’:

*dana txaletez eta aberats barriz bete jaku herrixa. Sin. zorribiztu*

**abixau** ‘abiatu; irten, hasi’:

*goixeko bostetan abixau giñan mendira / etxetik urten eta batera, eurixa abixau jon*

**abixada, -ia** ‘abiada’:

*abixadia hartu, eta egizu salto bildur barik / automobil karrera ikusten egon giñan, eta sekulako abixadan pasatzen ziran gure aurrian*

**abonau** ‘abonatu; goraiatu’:

*ona ei don Errealera ekarri daben jokalarixa; egunkarixan abonau june, behintzat. Sin. ponderau*

**adore, -ia** ‘adorea; kemena, gazt.

*ánimo, motivación’:* *adore haundirik barik najabik juan dan aspaldixan*

**adur, -a** ‘adurra; lerdea’:

*adurra darixola jagok telebisiñuari begira*

**afan, -a** ‘afana’ 1. harrokeria, 2.

*grina: danak berari begira dagozela-eta, afan usaiñak hartuta jabik / juan dan aspaldixan, pelotia dala-eta, bada baztarretan afana!*

**aguro** ‘agudo; laster’:

*juan zaittez egunkari billa, eta ekarri aguro*

**ahalegindu** ‘ahalegindu; saiatu’:

*behin eta barriro ahalegindu arren, alperrik izan da. Sin.*

**ahalegiña egin, zaildu**

**ahalegiña egin** ‘ahalegina egin;

*saiatu’. Sin. ahalegindu, zaildu*

**ahobero, -ua** ‘ahoberoa; gazt.

*farol, bocazas’:* *ahobero hutsak dittuk eibartarrak: Eibarko ‘oilluak’, ‘txi-txak’ baiño ez dittuk Bergaran. Sin. ahozabal*

**ahofin, -a** ‘ahofina; mokofina’:

*ganorazko jatetxeren batera konbidau biharko dozu, ahofiña da eta*

**ahokada, -ia** ‘ahokada’ 1. ahobete,

2. gehiegikeria: *horrek bota jon botatzeko ahokadia: Ameriketean enpresarixo haundixa dabela semia!*

**ahozabal, -a** ‘ahozabala; gazt.

*farol, bocazas’.* *Sin. ahobero*

**ahozatar, -a** ‘ahozatarra;

*biraoalaria’:* *ez dok giro ahozatar horren onduan; beti jiharduk mekauenka baten!*

**aidian (lag)** ‘aidean; erraz, laster’:

*aidian egingo dittu horrek eskolako biharrak! / aidian irabazi juek Jokin Etxanizek eta Zezeagak pelota partidua*

**aiñube, -ia** ‘ainubea; leku

*itzaltsua’.* *Ant. eguzki begi. Sin.*

**laiotz**

**aita besuetako, -ua** ‘aita

*besoetakoa; aitabitxi’.* *Sin. aitta puntoko*

**aittajaan, -a** (Dg, De) ‘aitajaan;

*aitona’.* *Sin. aittitta*

**aita puntoko, -ua** (Dg, De) ‘aita

*pontekoa; aitabitxi’.* *Sin. aitta besuetako*

**aittitta** ‘aitita; aitona’ *Sin. aittajaan*

**aittu** ‘aditu; ulertu’:

*esan duana ez juat ondo aittu / pelota kontuan*

*asko aitzen jakok horri. Esap. aitzen emon* ‘aditzera eman’; **oker aittua** ‘oker aditua; gaizki ulertua’  
**aittunkerixa, -ia** ‘aditunkeria; pedantekeria’: *ez jakiñat aittua dan ala ez, baiña aittunkerixia, behintzat, ez jakon falta*  
**aitzakixa, -ia**. lk. **atxekixa**  
**aje, -ia** ‘ajea; larregi edan eta erre osteko gorputzaldi txarra’. *Sin. bixamon, oste. Esap. aje eguna* ‘astelehena’  
**akabau** ‘akabatu’. *Sin. amaittu, bukatu*  
**akabera, -ia** ‘akabera’. *Sin. amaiera, bukaera*  
**akordau** ‘akordatu’ 1. gogoratu, 2. bururatu, 3. konturatu: *ez naz akordau sartu zarenien*  
**albait** ‘albait; ahalik eta’: *albait lasterren amaittu bihar jittunat gaurko zeregiñak. Sin. hainbat*  
**aldapa, -ia** ‘aldapa’: *gustoko lekuan ez ei da aldaparik. Sin. aldats*  
**aldats, -a** ‘aldatsa’: *aldats gogorra dago Kanpanzartik Udalatxera. Sin. aldapa*  
**alde, -ia** ‘aldea’ 1. alderdia, 2. diferentzia: *hiru minutuko aldia atara jeutsak lehenenguak bigarrenari / alde ederra dago Bilbon edo Donostian bizi!*  
**aldendu** ‘aldendu’ 1. galdu, 2. urrundu: *giltzak aldendu jataz, eta ezin etxera sartu / ez hadi gugandik larregi aldendu*  
**aldra, -ia** ‘aldra; talde handia’: *sekulako txori aldria ikusten zan*

*zeru gaiñian*  
**alogeran** ‘alogeran; alokairuan’: *automobilla alogeran hartu, eta Menorca osua ikusi gendunan*  
**ama besuetako, -ua** ‘ama besoetakoa; amabitxi’. *Sin. ama puntako*  
**amaiera, -ia** ‘amaiera’. *Sin. akabera, bukaera*  
**amaittu** ‘amaitu’. *Sin. akabau, bukatu*  
**amama** ‘amama’ 1. amona. *Sin. amandre, 2. (lag) gazt. ‘chollo’: kriston amama jaukagu irakasle honekin, piperrik be ez jok ikusten eta!*  
**amandre, -ia** (Dg, De) ‘amandrea; amona’. *Sin. amama*  
**ama puntako, -ua** (Dg, De) ‘ama pontekoa; amabitxi’. *Sin. ama besuetako*  
**amaraun, -a** ‘amarauna; armiarma sarea’. *Ald. amelaun, ameraun. Sin. marasmaetxe. Esap. amaraunak jo* ‘amaraunak kendu’: *hartu egizu eskobia, eta jo horrek hormako amaraunok*  
**amatau** ‘amatatu; itzali’. *Sin. emendau, itxungi*  
**amelaun, -a**. lk. **amaraun**  
**ameraun, -a**. lk. **amaraun**  
**anabasa, -ia** ‘anabasa; nahastea, kaosa’: *gela honetan dago egoteko anabasia!*  
**andera, -ia** ‘andera; panpina’. *Sin. kopin*  
**andrazko, -ua** ‘andrazkoa; emakumezkoa’: *andrazko gitxi zan kalian zapatu gabaz. Ant.*

- gizakume, gizonezko**
- anpor, -a** ‘anporra’ 1. enborra, 2. gezur handia
- anporlari, -xa** ‘anporlaria; gezurti amorratua’: *ez egixok horri dana siñistu, anporlari itzala dok eta*
- antosin, -a** ‘antosina; metalezko edalontzia’. *Sin. txolet, txolot*
- ants, -a** ‘antsa; usain txarra’: *itxi atia, kriston antsa dator eta*
- antxitxika** (Db, De) ‘antxitxika; lasterka’. *Sin. antxitxiketan, ariñeketan, postaka, saltaka, takarradan*
- antxitxiketan** (Db, De) ‘antxitxiketan; lasterka’. *Sin. antxitxika, ariñeketan, postaka, saltaka, takarradan*
- antz, -a** ‘antza; itxura’: *aittaren antz haundixa dauka horrek. Sin. traza*
- antzigar, -a** ‘antzigarra; zuhaitzetan-eta egiten den izotza’. *Sin. lantxurda, zurda*
- apropos** ‘apropos; nahita’: *apropos esan eutsan, baekixen hasarratuko jakona eta*
- apropos, -a** ‘aproposa; egokia’: *eguraldi aproposa egitten jon gaur etxian geratzeko, eurixa bota ahala don eta. Sin. aukerako, primerako*
- apurtu** ‘apurtu; puskatu’
- aran, -a** ‘arana’: *patxarana egitteko, aran billa juango gaittuk Urbasa aldera. Ik. okaran*
- aratian** ‘aratian; gazt. nadar de espalda’: *aratian igeri egittia dok berorren berezittasuna*
- Aratoste, -iak. Ik. Aratuste**
- Aratuste, -iak** (Dg, De) ‘Aratustek; Inauteriak’. *Ald. Aratoste*
- ardi, -xa** ‘ardia’ 1. ardia, 2. (Dg, De) arkakusoa
- ariñeketan** ‘arineketan; lasterka’. *Sin. antxitxika, antxitxiketan, postaka, saltaka, takarradan*
- arkakoxo, -ua** (Db, De) ‘arkakusoa’. *Sin. ardi*
- armiarma, -ia** ‘armiarma’. *Sin. hamarratz, marasma, marma*
- armozau** ‘armozatu; gosaldu’
- armozu, -a** ‘armozua; gosaria’
- arramuzkada, -ia** ‘arramuzkada; gazt. bufido’: *egin deutsan arramuzkadiakin, laster alde egin jon inguruetatik*
- arrapataka** ‘arrapataka; arrapaladan’: *hor ibilli zan, bere gelan, baztarrak danak astintzen, arrapataka baten*
- arrara, -ia** ‘arrara; zirrara’: *egundoko arraria egin eustan zuek danok han ikustiak. Sin. zarrada*
- arrastada, -ia** ‘arrastada; gazt. rozadura’: *garajetik urteterakuan, kriston arrastadia egin jeutsanat automobillari*
- arrastaka** ‘arrastaka’. *Sin. narrasian, tarrasian, tatarrez*
- arrio egin** ‘arrio egin; atzera egin’: *posturia egin, eta dirua mahai gaiñera bota eta gero, arrio egin jok bildurti horrek. Sin. karraskadia jo*
- arriolari, -xa** ‘arriolaria; apostua itxi

- ostean atzera egiten duena': ez egixok jaramonik egin horri, arriolari bildurtixa dok eta
- artati, -xa.** lk. **artazi**
- artazi, -xa** (Dg, De) 'artazia'. Ald. **artati.** Sin. **gonazi, guraiza**
- artzain, -a** 'artzaina'. Sin. **pastore**
- atarramentu, -a** 'atarramendua; gazt. paradero': *gaztetan oso ona zuan foballian, baiña, gero, hankia hondatu-edo, eta atarramentu txarra izan jua.* Sin. **burubide**
- atondu** 'atondu; gertatu': *bazkarixa atondu bihar juat, lagunak jatozak eta*
- atseden, -a** 'atsedena; gazt. descanso': *atseden txiki bat egingo dogu*
- atxekixa, -ia** 'aitzakia'. Ald. **aitzakixa**
- atxekixau** 'atxekixatu; kritikatu': *atxekixau dok bazkarixa, baiña ez dok hondar askorik laga!*
- atximurkada, -ia** 'atximurkada'. Ald. **atxumurkada, t x a t x i m u r k a d a , txitximurkada...**
- atxumurkada, -ia.** lk. **atximurkada**
- atzamar, -a** 'atzamarra; hatza': *makiñiak harrapauta, atzamar bi falta jakoz eskumako eskuan.* Ald. **atzapar**
- atzapar, -a** 'atzaparra; hatza'. Ald. **atzamar**
- atzekoz aurrera** 'atzekoz aurrera; alderantziz': *atzekoz aurrera jantzi dozu jertsia.* Ant. **erara**
- atzen, -a** 'atzena; azkena'
- atzera** 'atzera' 1. gibelera, 2. berriro. Sin. **ostera:** *atzera be etorriko dok hori dirua edo zeozer eskatzera*
- aukerako, -ua** 'aukerakoa; egokia': *aukerako laguna dozu hori mendirako.* Sin. **apropos, primerako**
- aupets, -a** 'aupatsa; korrokada': *umiak larregi jan dau, eta aupeska dihardu*
- aurrenengo, -ua** 'aurrenengoa; lehena'. Sin. **lehelengo, lehenengo**
- autsi!** 'autsi; hartu, tori': *zeuria dala diñozu hau diruau; autsi, ba, gogaikarrixori!*
- autu, -a** 'autua; berriketarako gaia, jarduna': *beti jagok kalia, eta beti batzen jok autua*
- autubatzaille, -ia** 'autubatzaillea; gazt. 'chismos@, cotilla, portera': *aukerako autubatzailia gure Andoni: kaleko kontu danak esaten jeuskuzak berak*
- aztarren, -a** 'aztarrena; aztarna'. Sin. **lorratz**
- aztoratu** 'aztoratu; asaldatu': *trankildu hadi, aztoratuta ikusten haut eta*



**B**

**baba, -ia** ‘baba’ 1. babarruna, indaba, 2. azaleko handitu urtsua. *Sin. pusla. Hitz elkartuak: baba baltza, baba gorrixa, babajana, baba zurixa*  
**badaezpada** ‘badaezpada; gazt. por si acaso’: *badaezpada, hartu eurittakua, eurittara dago eta*  
**badaezpadako, -ua** ‘badaezpadakoa’ 1. dudakoa, 2. gazt. mediocre: *badaezpadako perretxikurik ez ekarri, gero! / hori gizonori badaezpadakua da, eta kontuz ibilli / jakintsu usteko badaezpadako jente mordua jagok hemen*  
**bai horixe** ‘bai horixe’. *Sin. erregular, horixe baietz, jakiña*  
**baleike** ‘baliteke’. *Sin. baleitteke, biharbada, harenbaten, leikiana izan*  
**baleitteke** ‘baliteke’. *Sin. baleike, biharbada, harenbaten, leikiana izan*  
**baltzuna, -ia** ‘beltzunea’. *Sin. ubeldu*  
**bapez, -a** ‘bapeza (< bat (b)ere eza); ezereza’: *hori berori be ez dok, gero, bapeza! Sin. hutsaren hurrengo*  
**bariku, -a** (Db, De) ‘barikua; ostirala’. *Ald. barixaku. Sin. egubakoitz*  
**barixaku, -a**. lk. **bariku**  
**barriketa, -ia** ‘berriketa; jarduna’: *horrek bixok batzen diranian, beti barriketan. Esap. barriketa bakua* ‘zintzoa’: *mutil zintzua dok*

*hori, barriketa bakua; barriketa gitxi* ‘txantxarik ez’: *barriketa gitxi erabiltzen jok horrek, serixo beti!; barriketakua ez izan* ‘txantxetakoa ez izan’: *ez da, gero, barriketakua Guatemalako kontua: hamar milla lagunetik gora hil ei dira lurrikariakin*  
**barritsu, -a** ‘berritsua’. *Sin. berbalari, berbatsu, kontulau*  
**basa, -ia** ‘basa; lohia’. *Sin. basatza, lokatza*  
**basarritar, -a** ‘baserritarra; nekazaria’. *Ald. baserritar*  
**basatza, -ia** ‘basatza; lohia’: *juan dan egunotan egin dittuen eurixekin, sekulako basatzia dago bidian. Sin. basa, lokatza*  
**baserritar, -a**. lk. **basarritar**  
**batera-batera** ‘batera-batera; bat-batean’: *gaixotu, eta batera-batera hil zan*  
**batez be** ‘batez ere’. *Sin. gehixenbat*  
**batu** ‘batu’ 1. bildu, 2. jetzi: *zortzirak dira, eta behixak batu barik ondiño!*  
**batzar, -a** ‘batzarra; bilera, bilkura’  
**begirakuna, -ia** ‘begirakunea; begiratua’: *ikaratu egin ninduen haren begirakuniak*  
**begittandu** ‘begitandu; iruditu’: *urriñetik ikusitta, Ander begittandu jata / hori arkondariori illunegixa begittantzen jatak hiretako. Sin. pentsau*  
**begittanziño, -ua** ‘begitanzioa; irudipena’: *hori ezin da egixa izan; zeure begittanziñoren bat*

- izango da*
- behinguan** ‘behingoan’: *ez don behinguan etorri, gero! Sin.*
- berihalakuan**
- beillegi, -xa** (Dg) ‘beilegia; horixka’. *Sin. Iaru*
- beinke** ‘beinke; hala da’: *zeiñek esango juan bere buruari tiro egin bihar eutsanik? —Beinke, beinke!*
- bekarra, -ia** ‘bekarra’: *garbittu egizu aurpegixa, eta kendu horrek bekarrok. Sin. makar*
- bekoki, -xa** ‘bekokia; kopeta’
- belakuan. Jas. berihalakuan**
- belarrondoko, -ua** ‘belarrondokoa; gazt. tortazo’: *harek maixuak belarrondoko galantak emoten euskuzan*
- belaun katillu, -a** ‘belaun katilua; gazt. rótula’: *lurrera jausi, eta belaun katillua apurtu egin ei jako*
- bendixa. Jas. berendixa**
- berakatz, -a** ‘berakatz; baraxuria’
- berakatz zopa, -ia** ‘berakatz zopa; baraxuri zopa’
- berba, -ia** ‘berba; hitza’
- berba egin** ‘berba egin; hitz egin’
- berbia emon** ‘berba eman; hitza eman, agindu’: *berbia emon badau, beteko dau, zintzua da eta*
- berbakizuna ipiñi** ‘berbakizuna ipini; gazt. dar que hablar’: *horrek saltsia eta berbakizuna ipiñiko jok, behintzat!*
- berbalari, -xa** ‘berbalaria’. *Sin. barritsu, berbatsu, kontulau*
- berbaro, -ua** ‘berbaroa; hizketa hotsa’: *baten bat bada etxe barruan, berbarua entzuten da eta*
- berbatsu, -a** ‘berbatsua’: *berbatsu etorri haiz gaur; zurrutian ibilli haiz, ala? Sin. barritsu, berbalari, kontulau*
- berbeta, -ia** ‘berbeta’ 1. hizkera, 2. hizkuntza
- berebiziko, -ua** ‘berebizikoa’: *berebiziko onduen ibilli gintzuazan Patagonian. Sin. demaseko, egundoko, itzal, kriston, makaleko, sekulako*
- berendixa** ‘berendia; gazt. mengano’: *urlixak gauza bat jiñok, berendixak beste bat... ez jakixat zeñi jaramon egin. Ik. urlixa*
- berihalakuan** ‘berehalakoan’. *Sin. behinguan*
- berna, -ia** ‘berna’: *praka laburrekin giñoiazen, asun artian sartu, eta ederto erre genduzen bernak!*
- bernazur, -a** ‘bernezurra’
- bertan** ‘bertan’ 1. han bertan, 2. hurbil: *etxetik bertan agertu dok hilda. Sin. gertu, hur, hurrian*
- bezela** ‘bezala’. *Sin. erara, legez, moduan*
- bidetxur, -a** ‘bidetxurra’. *Sin. bidezidor*
- bidezidor, -a** ‘bidezidorra’: *jarraitu honi bidezidorronei, eta laster zara mendi tontorrian. Sin. bidetxur*
- bihar, -a** (De) ‘beharra’: *gogorra dok, gero, egunero-egunero biharrera juan bihara! Sin. lan*
- biharbada** ‘beharbada’. *Sin.*

- baleike,** **baleitteke,**  
**harenbaten, leikiana izan**
- biharreztan, -a** 'behar ez dena; istripua, okerkeria': *kontuz ibilli hadi traktor gaiñian, biharreztanen bat gertau ez dakixan / oin be egin jok biharreztanen bat gure mutikuak*
- bihargin, -a** (De) 'behargina': oso *bihargin ona da, eta estimau dauke tallerrian. Sin. langille*
- biharko!** 'beharko!; zer erremedio!': *juango haiz Madrillera, ala? —Biharko juan!*
- biharleku, -a** 'beharlekua' 1. lanpostua, 2. zeregina: ez *don, gero, biharleku erraza hau danau gaberako amaitzia*
- bihatz, -a** 'behatza' 1. behatza, 2. hatza. *Sin. atzamar, atzapar: hamen inguruan be "bihatzak" esaten jeutsek batzuek hanketakuei zein eskuetakuei*
- bihotzekuak emon** 'bihotzekoak eman; infartoa': *bihotzekuak emonda hil zuan, 40 urte besterik ez zittuala*
- bihurrittu, -a** 'bihurritua; esginzea': *eskiatzen ebillela, bihurrittua egin jakuan*
- birixetako, -ua** 'birietakoa; tuberkulosia'
- birittan** 'birritan; bi aldiz': ez *deutsut birittan esango, gero!*
- bixamon, -a** 'biharamuna'. *Sin. aje, oste*
- bixar-etzi** 'bihar-etzi; etorkizunean, gazt. el día de mañana': *hik, badaezpada, gorde honek*
- papelok ondo, bixar-etzi zer gertau leiken ez dakik eta*
- bixau, -a** (Dg) 'biaoa; gazt. siesta': *telebisiñue dala-eta, makiña bat atxekixa izeten dau jentiek, baiñe nik, behintzet, bixau edarrak egitten dittut telebisiño aurrien*
- bixen bittartian** 'bien bitartean; bizkitartean': *andria dendara sartu dok, eta, bixen bittartian, zurrut bat egingo juagu guk bixok*
- bizi, -xa** 'bizia' 1. bizirik dagoena, 2. urduria, 3. minbizia: *bizixakin hil don Maria*
- bizialargun, -a** 'bizialarguna; ezkontidearengandik bananduta bizi dena': ez *ezkongai, ez alargun: bizialargun nago*
- bizipoz, -a** 'bizipoza; bizitzeko indarra': *holako gauzak entzutiak bizipoza emoten jok, sikira!*
- bizixo, -ua** 'bizioa; hesteetako zizarea': *umetan kontu normala izaten dira bizixuak*
- blastio, -ua** 'blastioa; jipoia': *sekulako blastiua emon, eta kale baztarrian itxi eben*
- brintzau** 'brintzatu; pitzatu'. *Sin. zartau*
- bristada, -ia** 'bristada; distira': *kristala ondo garbittu dok, gero: zelako bristadia daukan!*
- bukaera, -ia** 'bukaera'. *Sin. akabera, amaiera*
- bukatu** 'bukatu'. *Sin. akabau, amaittu*
- bultza egin** 'bultza egin'. Gure alderdian arrotza da *bultzatu*. Ik.
- burrukan egin, dantzan egin,**

**jolasian egin / ibilli, lapurretan egin**

**burrukan egin** ‘burrukan egin’. Gure alderdian arrotza da *burrukatu*. Ik. **bultza egin, dantzan egin, jolasian egin / ibilli, lapurretan egin**

**burrundara, -ia** ‘burrundara; burrunda’: *hor juañ don motorrian, burrundara baten*

**burubide, -ia** ‘burubidea; egoera’: *hori da, ba, personian burubidia, beti mozkor-mozkor eginda! Sin.*

**atarramentu**

**burutaziño, -ua** ‘burutazioa; gazt. ocurrencia’: *burutaziño bat euki dot, eta laga neuri egitten lana*

**burutik beherako, -ua** ‘burutik beherakoa; meningitisa’

## D

**damutu** ‘damutu’: *ez nintzan bertsolarixak entzutera juañ, eta damutu jatan. Sin. garbatu*

**danbateko, -ua** ‘danbatekoa; ate hotsa’: *haixe boladia etorri da, eta sekulako danbatekua jo dau atiak*

**danengandu** ‘denengandu; orokortu’: *Interneti esker, danengandu egin dira hainbat gai eta argibide*

**danerako, -ua** ‘denerakoa; mota guztietakoa’: *danerako jentia topau genduan; batzuk oso jatorrak be bai tartian. Sin. guztirako*

**dantzan egin** ‘dantzan egin’. Gure alderdian arrotza da *dantzatu*. Ik. **bultza egin, burrukan egin, jolasian egin / ibilli, lapurretan egin**

**demanda, -ia** ‘demanda; liskarra’: *honekin umiokin beti da demandia. Sin. droga*

**demandalari, -xa** ‘demandalaria; liskartia’. *Sin. drogosa / drogoso*

**demaseko, -ua (lag)** ‘demasekoa’. *Sin. berebiziko, egundoko, itzal, kriston, makaleko, sekulako*

**destaiña egin** ‘destaina egin; arbuiatu’: *zaharra dala-eta, destaiña egitten deutzak? Heu be zahartuko haiz, ba! Sin. gaitzetsi*

**diar egin** ‘deiadar egin’: *egixuek diar umiei, eta datozela*

*bazkaltzera aguro. Sin. hots egin*

**dindirri, -xa** ‘dindirria; sudurrari darion tantana’: *hau dok, hau, hotza, eten bako dindirrixa jaukat!*

**domeka, -ia** ‘domeka; igandea’

**doministiku(n), -a** ‘doministikua; usina’

**Domusantu** ‘Domusantu; Santu guztien eguna’: *Domusantuetan zubixa daukagu, eta eskiatzera juatekotan gara*

**dontsu, -a** ‘dontsua’. *Sin. zori-(x)oneko*

**droga, -ia** ‘droga; liskarra’: *hori mutiko petralori beti jabin droga billa. Sin. demanda*

**drogosa, -ia** ‘drogosa; andrazko liskartia’. *Sin. demandalari*

**drogoso, -ua** ‘drogoso; gizonezko liskartia’. *Sin. demandalari*

**duan** ‘doan; dohainik’: *behin goixaldeko hirurak ezker, duan sartu leikek*

**dundurixo, -ua** ‘dundurioa; durundia’: *sekulako dundurixua egitten eben bart gabeko rokeruak. Ald. durundixo, durundu*

**durundixo, -ua.** lk. **dundurixo**

**durundu, -a.** lk. **dundurixo**

## E

**ebaikotz, -a.** lk. **egubakoitz**

**edozenbat** ‘edozenbat; asko’: *edozenbat lagun etorri zan batzarrera*

**egittada, -ia** ‘egitada’ 1. gauza handia, balentria, 2. arlotekeria. *Sin. xelebrekerixa: oin be Alberto Iñurrategik sekulako egittadia egin dau Himalaian / beti egitten jok horrek kankailluorrek egittadaren bat, ganorabako hutsa dok eta*

**eguakitz, -a.** *Jas. egubakoitz*

**eguakotx, -a.** lk. **egubakoitz**

**eguazten, -a** ‘eguaztena; asteazkena’

**egubakoitz, -a** (Dg, De) ‘egubakoitza; ostirala’. *Ald. ebaikotz, eguakitz, eguakotx... Sin. bariku, barixaku*

**eguen, -a** ‘eguen; osteguna’

**Eguen zuri** ‘Eguen zuri; Ostegun gizen’: *antziña, Eguen zuri egunian, etxerik etxe ibiltzen gintzuazan eskian*

**egun, -a** ‘eguna’ 1. hogeita lau orduko denbora tartea, 2. urtebetetzea: *maiatzaren 8xan dok nire eguna* (Baztertzeoa zorionak: \*maiatzaren 8xan dira nire zorionak). *Sin. urtegun*

**egundoko, -ua** ‘egundokoa’ *Sin. berebiziko, demaseko, itzal, kriston, makaleko, sekulako*

**eguzki begi, -xa** ‘eguzki begia; egutera’. *Ant. aiñube, laiotz*

**ei** ‘ei; omen’

**emendau** (Db, De) ‘emendatu;

- itzali'. *Sin.* **amatau, itxungi**
- endredatzaille, -ia**  
 'endredatzailea; bazter nahastatzailea'
- endredau** 'endredatu; bazterrak nahastu': *egon hadi geldi, mahaigaiñeko papelak endredau barik!*
- endredu, -a** 'endredua; gazt. molestia': *ez dot endredurik sortu nahi*
- enor, -a** 'enorra; garatxoa': *esku gaiña enorrez beteta jaukat, eta medikuana najoiak. Sin.* **gari, garitxo**
- enparau, -ak** (De) 'enparauak; gainerakoak': *bere burua ondo zainduko jon, eta enparauak hor konpon. Ald.* **enparauko**
- enparauko, -uak.** Ik. **enparau**
- entrama, -ia** 'entrama; jateko gaitasun handia': *horrek jaukak eukittekote entramia: platerkada galantak bihar jittuk beteko bada. Sin.* **sake**
- entzun, -a** 'entzuna; ospetsua'. *Sin.* **entzute haundiko, entzutetsu**
- entzute haundiko, -ua** 'entzute handikoa; ospetsua'. *Sin.* **entzun, entzutetsu**
- entzutetsu, -a** 'entzutetsua; ospetsua'. *Sin.* **entzun, entzute haundiko**
- era, -ia** 'era; aukera': *eria duanian, etorri hadi laguntzera*
- eragin** 'eragin; arazi': *bera etorri dan arte, kanpuan itxain eragin jeuskuk / milla bider esan arren, ezin jeutsat aittu eragin*
- eraman** (Db) 'eraman'. *Sin.* **eruan**
- erara** 'erara' 1. bezala. *Sin.* **bezela, legez, moduan,** 2. zuzen. *Ant.* **atzekoz aurrera, irulittara, itzulittara:** *gaur Bizkaiko erara ipiñiko dot bakaillaua / jantzi egizu erara jertsia, irulittara daukazu eta*
- erasan, -a** 'erasana; gazt. luxación': *hankan erasana egin dau*
- eratsi** 'eraitsi; bota': *ikubilkada batekin eratsi juan lurrera. Ald.* **eretxi**
- erbeste, -ia** 'erbestea; atzerria': *gerra ostian, erbestera alde egin bihar izan genduan*
- erdalgaizto, -ua** 'erdalgaiztoa; euskarakadaz betetako erdara': *erderaz barik erdalgaiztuan jihardun, baiña nahixago holan egin euskeraz baiño. Ik.* **euskalgaizto**
- eretxi.** Ik. **eratsi**
- erkin, -a** 'erkina' 1. makala, 2. (Dg) zikoitza. *Sin.* **xuhur, zeken, zimur**
- erlamiño, -ua** 'erlaminoa' 1. liztorra, 2. gogaikarria. *Sin.* **kulumiño**
- ernegau** 'ernegatu; haserretu' (NOR-NORK zein NOR-NORI erara jokutzen da): *holakuak entzunda, ernegau egitten dot / ez egixok holakorik esan, ernegau egingo jakok eta*
- erregular** 'erregular': *bahator afaltzera? —Erregular! Sin.* **bai**

- horixe, horixe baietz, jakiña**
- errekistau** ‘errekistatu; miatu’: *guardia zibillak sartu, eta etxe guztixa errekistau juen goittik behera*
- erreskadan** ‘erreskadan; jarraian’
- erretratu, -a** ‘erretratoa; argazkia’: *erakutsi egidazuz, ia, oporretako erretratuak!*
- erreus, -a** ‘erreusa; balio ez duena’: *laga hor baztarrian burdiña zati erreusak*
- errez, -ua** ‘errezoa; otoitza’: *gure amaman errezuak ez dauke azkenik!*
- eruan** ‘eroan’ 1. batetik bestera aldatu. *Sin. eraman*, 2. jasan: *ezin junat eruan hori mutillori, gogaikarri hutsa don eta*
- eruan, -a** ‘eroana; pazientzia’: *eskerrak eruan haundikua dana!*
- esanezin, -a** ‘esanezina; totela’: *esaneziña eukan aspaldiko eibartar batek, ‘kapillia’ esan biharrian, ‘kakapillia’ esaten ei juan*
- esate baterako** ‘esate baterako; adibidez’. *Sin. konparaziño baterako*
- eskale, -ia** (Db) ‘eskalea’. *Sin. eskeko*
- eskeko, -ua** ‘eskekoa’: *New Yorken izan gaittuk udan, eta makiña bat eskeko zuan hango kalietan. Sin. eskale*
- eskuturreko, -ua** ‘eskumuturrekoa; gazt. pulsera’. *Hitz elkartua: eskuturreko erlojua*
- esnatu** (Db, De) ‘esnatu’. *Sin. itzartu*
- estropozu, -a** ‘estropozua; behaztopa’: *aurkixakin estropozu egin, eta buruz behera jausi zuan*
- estuasun, -a** ‘estuasuna; larrialdia’: *sekulako estuasuna pasau gendunan aeropuertuan, maletak ez ikustian*
- eten, -a** ‘etena’ 1. haustura, 2. hernia: *hainbeste bihar gogor egittiagaittik sortu jakok etena*
- etxaflero, -ua** ‘etxafleroa; suziria’. *Sin. txapligu*
- euskalgaizto, -ua** ‘euskalgaiztoa; erdarakadaz betetako euskara’: *euskeria barik, euskalgaiztua dok gaur egungo gazterixiak egitten dabena. Ik. erdalgaizto*
- ezagupide, -ia** ‘ezagupidea; ezagutza’: *etxekuen bittartez egin neban horren medikuorren ezagupidia*
- ezkaratz** (Dg, De) ‘ezkaratza’. *Ald. ezkatz. Sin. sukalde*
- ezkatz, -a. Jas. ezkaratz**
- eztai, -a** ‘eztaia’. *Sin. eztegu*
- eztegu, -a** ‘eztegua’: *antziñako ezteguetan afarixa izaten zuan. Sin. eztai*
- eztittu** ‘eztitu; txertatu’: *fruta arbola guztixak eztittu bihar izaten dira gazterik. Sin. mentau*

## F

**fraka, -ia**. lk. **praka**

**franko** 'franko; ugari': *horrek guzurra eta abarra franko darabil, eta ez jaramonik egin*

**friztixa, -ia** 'piztia': *ez dakit zer friztixa zan, basuan ikusi genduen*. Ald. **priztixa**

## G

**gaba** 'gaua': *gaba egin orduko etorri, gero, etxera!*

**Gabon Zahar** 'Gabon Zahar; Urte Zahar'

**Gabon, -ak** 'Gabonak; Eguberriak'

**gaitz, -a** 'gaitza'. Ald. **gatx**. Sin. **zail**

**gaitzetsi** 'gaitzetsi'. Sin. **destaiña egin**

**gaitzizen, -a** 'gaitzizena; goitizena': *lehen, Elgoibarren, danak jauken euren gaitzizena*. Ald. **gatxizen**

**gaixondo, -ua** 'gaixondoa; gaixorik izan ondoko egunak, gazt. post-operatorio': *batez be gaixondua izan zunan aspergarrixa*. Sin. **gaixo ondore**

**gaixo ondore, -ia** 'gaixo ondorea'. Sin. **gaixondo**

**gaizki** (Db, De) 'gaizki'. Sin. **txarki, txarto**

**gaizto, -ua** 'gaiztoa'. Sin. **txar**

**galanki** 'galanki; asko': *jentia galanki egon zuan manifestaziñuan*

**galant, -a** 'galanta; handia': *mutil galanta da, baiña burubakua*

**galarazi** 'galarazi; debekatu': *galarazitta dago autobusetan-eta tabakorrixa erretzia*

**galazi**. Jas. **galarazi**

**galtza, -ia** 'galtza': *honekin galtza mehiokin hankak berotu eziñik nabil*. Sin. **galtzerdi**

**galtzarbe, -ia** 'galtzarbea; besapea': *sekulako liburu mordua jarabik beti galtzarbian*.



- Ald. galtzarpe*  
**galtzarpe, -ia**. lk. **galtzarbe**  
**galtzerdi, -xa** (Db) ‘galtzerdia’. *Sin.*  
**galtza**  
**ganora, -ia** ‘ganora’: *sukalde kontuetan ona haizela diñok, eta ez daukak arrautza bat prijitzeko ganorarik!*  
**ganorabako, -ua** ‘ganorabakoa; ganora gabekoa’: *ganorabako galanta izan arren, Udaletxian dago zinegotzi.* *Ald.*  
**ganorabariko**  
**ganorabariko, -ua.** lk.  
**ganorabako**  
**garau, -a** ‘garaua’ 1. alea, 2. handia: *mahats garau guztixak izurrau jittuk txingorrek / hori dok, hori, mutil garaua!*  
**garbatu** (Dg) ‘garbatu’: *garbatu jata Asierrekin hasarretzia.* *Sin.*  
**damutu**  
**gari, -xa** ‘garixa; garatxoa’. *Sin.*  
**enor, garitxo**  
**garitxo, -ua** ‘garatxoa’. *Sin.* **enor, gari**  
**garo, -ua** (Db, De) ‘garoa’. *Sin.* **ira**  
**garranga, -ia** (Dg, De) ‘garranga; izotz kandela’: *sekulako garrangak egon dittuk gaur goixian, txintxilik zubipian*  
**garrasi, -xa** ‘garrasia’. *Sin.* **orrua**  
**garratz, -a** ‘garratza’ 1. mina, 2. handia, gogorra: *honek limoiok garratzegixak dagoz / kontuz, atari-txakur garratza dago eta! / eurixa garratz dihardu*  
**gatx, -a.** lk. **gaitz**  
**gatxizen, -a.** lk. **gaitzizen**
- gatzatu, -a** ‘gatzatua; mamia’: *gatzatu platerkada galantak jan genduzen Baztango baserri baten, Arizkunen*  
**gauzaeztan, -a** ‘gauzaeztana (< gau-za ez dena); ezgauza’: *gauzaeztan gauzarik ez ekarri etxera niri!* *Sin.* **huskerixa**  
**gehixegi** ‘gehiegi’. *Sin.* **larregi**  
**gehixenbat** ‘gehienbat’: *gehixenbat, neskak jokatzen juek eskuba-loian.* *Sin.* **batez be**  
**gertu** ‘gertu’. *Sin.* **bertan, hur, hurrian**  
**gibeleko, -ua** ‘gibelekoa; hepatitis’a’: *gibelekuakin, luzaro egon zuan ohian*  
**gibezta, -ia.** lk. **kiribizta**  
**girgilluak** ‘girgiloak; gazt. michelines’: *honek girgilluok kentzeko gimnasia jua ten hasi bihar juat, laster jatok udia eta*  
**gixi bat** ‘gixi bat; apur bat’. *Ald.* **kixi bat**  
**gizajo, -ua** ‘gizajoa’: *lagaiozu bakian, gizajua da eta.* lk.  
**koittau**  
**gizakume, -ia** ‘gizakumea’. *Ant.* **andrazko.** *Sin.* **gizonezko**  
**gizonezko, -ua** ‘gizonezkoa’: *“gizona” eta “gizonezkua” ez dittuk guretako gauza bat: ezkonduari esaten jeutsagu guk “gizona”. Ant. andrazko.* *Sin.*  
**gizakume**  
**gubernau** ‘gubernatu; jaten eman’: *ezagun dok, bai, andriak ondo gobernatzen hauena, itxura ona daukak eta*

**gogaikarri, -xa** 'gogaikarria; aspergarria, *gazt. pelma*': *egon hadi isilik, gogaikarriori!*

**gogait egin** 'gogait egin; aspertu': *gogait eginda nago, hainbeste denpora zutunik egoten. Sin.*

**gogaittu**

**gogait eragin** 'gogait eragin': *hantxe jardun eban, danoi gogait eragin arte, txiste ganorabakuak kontatzen*

**gogaittu** 'gogaitu; aspertu'. *Sin.*

**gogait egin**

**gonazi, -xa**. lk. **guraiza**

**gorantzi, -(x)ak** 'gorantziak; eskumuinak': *emon gorantziak Arantzari, Aramaixora bazoiaz*

**gorro, -ua** 'gorroa; *gazt. flema*': *atara gorrua, bestela ez dozu arnasia ondo hartuko eta. Sin.*

**karkaxa**

**gose pasau, -a** 'gose pasatua; txakalaldia, *gazt. pájara*': *Indurainek ez jua gose pasaurik sarri izan*

**gura** (Dg, De) 'gura'. *Hitz elkartuak: barregura, esangura, hazkura, jakingura, logura, negargura, txixagura / txixalarri. Sin. nahi*

**guraiña** 'gura adina; asko': *ez estutu, danendako guraiña okela dago eta*

**guraiza** (Db, De) 'guraizea'. *Ald. gonazi. Sin. artazi*

**guztirako, -ua** 'guztirakoa; mota guztietakoa': *idazkarixak guztirakuak dira, batzuk jatorrak eta, bestiak, ganorabako*

*galantak. Sin. danerako*

**guztiz** 'guztiz; erabat': *ez pentsau, gero, guztiz lelua danik! Sin. zihero*

## H

**hainbat** 'hainbat' 1. asko, 2. ahalik eta. *Sin. al bait: hainbat ariñen etorri zaittez etxera*

**hainbestian** 'hainbestean; ondo samar, gazt. tirando': *zelan zabiz, ba? —Hainbestian*

**haizebe, -ia** 'haizebea'. *Sin. haize ezkutu*

**haize ezkutu, -a** 'haize ezkutua'. *Sin. haizebe*

**hala be** 'batez ere': *danak etortzia komeni da, hala be gaztiak*

**hamarratz, -a** (Dg, De) 'hamarratza'. *Sin. armiarma, marasma, marma*

**hanka hutsik** 'hanka hutsik'. *Sin. oiñutsik, ortozik*

**har, -a** 'harra' 1. ardura, kezka, 2. gorrotoa, 3. gazt. gusano: *baneukan, ba, zer gertatu ete jakon jakitteko harra / berari egindako mesederik be ez jok onartzen, gure aurkako harra barru-barrurairño sartuta jaukak eta / harra dauka intxaurrek*

**haragi, -xa** 'haragia; bizirik dagoena gehienbat': *hanka azpixa haragi bizixan jaukanat. Sin. okela*

**harañegun. Ik. herañegun**

**harenbaten** 'harenbaten': *etorri ete da Iñaki oporretatik? —Bai, harenbaten. Sin. baleike, baleitteke, biharbada, leikiana izan*

**harjo, -ua. Ik. harko**

**harko, -ua** 'arkoa (< harrak joa); ustela': *arkua dauka sagarrak.*

*Ald. harjo*

**hartu-emon, -a** 'hartu-emana; harremana': *apenas daukagun hartu-emonik Donostiako senidiekin*

**hasarre, -ia** 'haserrea' 1. sumina, 2. handia, sendoa: *Patxi be mutil hasarria dago, gero!*

**haundigura, -ia** 'handigura; handinahia'. *Sin. haundiki*

**haundiki, -xa** 'handikia' 1. familia onekoa, 2. handinahia. *Sin. haundigura: haundiki asko zuan lehen Bergaran / diru askorik ez dau izango, baiña haundikixa izan bera!*

**hegaran egin** 'hegaran egin; hegaz egin'

**hegoi, -a** 'hegoa; hego haizea'

**herañegun** 'herenegun'. *Ald. harañegun*

**herañegun antxittik** 'herenegun antxitik; herenegun aurreko eguna'

**herdoi, -xa** 'herdoila'. *Ald. orde. Sin. ugar*

**heste sobre, -ia** 'heste sobrea; gazt. apéndice': *heste sobria kendu jeutsek Mendaroko ospitalian*

**higuin, -a** 'higuina': *higuiña emoten deusta horrek kazetarixorrek. Sin. nazka*

**hodei, -xa** 'hodeia; ekaitza'. *Sin. trumoi*

**hodiau** 'hodeitu; lainotu'

**hojalatero, -ua** 'hojalateroa; iturgina'

**hondar, -a** 'hondarra': *ondo batu,*

*gero, horrek jateko hondarrok!*

**horixe baietz** 'horixe baietz'. *Sin. bai horixe, erregular, jakiña*

**horma, -ia** 'horma': *edozein hormaren kontra egitten genduan pelotan mutikotan. Sin. pareta*

**horraittio** 'horraittio; horratik': *gaur, horraittio, geratuko zara gurekin afaltzen, ezta?*

**hostro, -ua** 'hostroa; hostoa'. *Sin. orri*

**hots, -a** 'hotsa' 1. zarata, 2. ugaritasuna: *ertzaiñak etorri ziranian, hango egur hotsa!*

**hots egin** (Db) 'hots egin'. *Sin. diar egin*

**hur** 'hur; hurbil': *hemendik hur bizi da. Sin. bertan, gertu, hurrian*

**hurrian** 'hurrian'. *Sin. bertan, gertu, hur*

**huskerixa, -ia** 'huskeria': *huskerixia ordaindu deuskue egin dogun biharra / huskerixa hori dala-eta, zelan berotu zeinke? Sin. gauzaeztan*

**huts, -a** 'hutsa' 1. edukirik gabea, 2. erabatekoa, 3. besterik gabe: *hutsa denporan amaittu jittun zeregin guztixak / domekero, hutsik egin barik etortzen da / ganorabako hutsa don hori / gaurko hotzakin, eta arkondara hutsian zu! / konbidau egin gaittue euren etxera, eta ezin dogu eskutsik juan. Esap. hutsaren hurrengua* 'bapeza, ezereza'

**I**

**ida, -ia** lk. **ira**

**ifiñi** lk. **ipiñi**

**igeltsero, -ua** 'igeltseroa; hargina': *gaur egun, ganorazko igeltseruak topatzia ez da, gero, zeregin samurra*

**ijittano, -ua** 'ijitanoa'. *Sin. ijitto, motxaila*

**ijitto, -ua** 'ijittoa'. *Sin. ijittano, motxaila*

**illatargi, -xa** lk. **iratargi**

**iñausi** 'inausi; kimatu': *honi arbolioni, hurrengo ilbeheran iñausi egin bihar jeutsadaz adarrak*

**ipiñi** 'ipini; jarri'. *Ald. ifiñi*

**ipurdi garbitzaille, -ia** 'ipurdi garbitzailea; gazt. pelota': *beti maixuan ondoren: ipurdi garbitzaille hutsa dok hori. Sin. koipetsu*

**ipurterre, -ia** 'ipurterrea; gazt. culo inquieto': *oso bihar ona emon jeutsen Arrasaten, baiña hillabetia be ez juan egin ipurteriorrek*

**ira, -ia** (Dg, De) 'ira': *lehen baserrixetan iria batu eta gorde egitten zuan, ganuari azpizak ataratzeko. Ald. ida. Sin. garo*

**iratargi, -xa** 'iratargia; ilargia': *iratargi betia dago, eta ez daukazu argi biharrik. Ald. illatargi, itargi*

**ireko** 'ireko; iraganeko': *ireko egunetan ez junat Ainhoa ikusi*

**irrintzi, -xa** 'irrintzia'. *Sin. lekarixo*

**irrist egin** 'irrist egin' *Sin. labandu,*

- laban egin, laprast egin**
- irulittara** ‘iraulittara; barrukoa kanpoan dela’. *Ant. erara. Sin.*
- itzulittara**
- irutxur** 1. ‘irutxurra; txokoa’, 2. ‘iruzurra; gazt. tongo’: *horrek pelotarixorrek sekulako abillidadia dauka pelotia irutxurrian lagatzeko / ez egik horren pelotarixorren alde jokatu, irutxur egitten zalia dok eta*
- istantz, -a** ‘istantza’ 1. egunsentia, 2. ilunabarra: *eguna zabaltzen danian zein illuntzen hasten danian, bixetan esaten dok “istantza”*
- itsulapiko, -ua** ‘itsulapikoa; eltze itsua’: *autsi, Aitor, sartu honek txanponok itsulapikuan*
- itargi, -xa. Jas. iratargi**
- ittu, -a** (Dg) ‘itua; ukuilua’. *Sin.*
- korta, zaltagi**
- itxi** 1. ‘itxi’, 2. ‘utzi’. *Sin. laga: itxizu atia zabalik, iñor badator konturatu naitten*
- itxungi** (Dg) ‘itxungi; itzali’. *Sin.*
- amatau, emendau**
- itxuria** ‘itxura’: *alde egin dabe gure auzuak, ala? —Bai, itxuria. Sin.*
- itxuria danez, kontizu**
- itxuria danez** ‘itxura denez’. *Sin.*
- itxuria, kontizu**
- itzal, -a** ‘itzala’. *Ald. itzel. Sin.*
- berebiziko, demaseko, egundoko, kriston, makaleko, sekulako**
- itzartu** ‘itzartu’: *kanpai hotsak itzartu nabe. Sin. esnatu*
- itzel. lk. itzal**
- itzulittara** ‘itzulittara; barrukoa kanpoan dela’. *Ant. erara. Sin.*
- irulittara**
- ixipula, -ia** ‘ixipula; gazt. pupa, calentura’: *ixipuliak urten deusta ezpanian*
- ixotu** ‘isiotu; piztu’: *amak ez jakitteko, argixa ixotu barik sartu nintzan etxian*
- izara, -ia** ‘izara; maindirea’
- izeko, -ua** ‘izekoa; izeba’. (Gaur egun *tio / tia* nagusitu diren arren, *osaba / izeko* jatorrak indartzea da bidezkoa)
- izpittu** ‘izpitu; gazt. desmenuzar, desmigat’: *bakaillaua izpittu, eta tortillia egingo juagu*

## J

**jabetasun, -a** 'jabetasuna; ardura, erantzukizuna': *jabetasun apur bat emon biharko jeutsagu etxiari, bestela hutsik dagoela pentsauko juek eta*

**jaiki, -xa** 'jaikia' 1. zuzena, 2. harroa, 3. bizia, *gazt. marchoso: larogei urte, eta horrek jaukak jaikixa!*

**jakin** 1. 'jakin', 2. 'ohi': *Gabonetan-eta, San Juanetan-eta, bajakik horrek Eibarrera etortzen / urrixan badaki eguraldi ona egitten*

**jakiña** 'jakina': *amaittu dok, ala? — Jakiña! Sin. bai horixe, erregular, horixe baietz*

**jamon. Jas. jaramon**

**jantxakur, -a** 'jantxakurra; *gazt. gorrón*': *higuiña emoten jeustak, jantxakurra dok eta*

**jaramon egin** 'jaramon egin; arreta ipini': *'egun on' esan, eta jaramonik be ez jeustak egin artoberuorrek*

**jardun** 'jardun; ari izan': *luzaruan dihardu pianua joten ikasten*

**jardun, -a** 'jarduna' 1. aktibitatea, 2. berriketa: *hor jiharduk eten bako jardunian, bakaziñuetako pasadizuak danei kontatzen*

**jaregin** (Dg) 'jaregin; askatu, utzi, ireki': *komuneko bonbiari jaregin / itturrixari jaregin / txakurrari jaregin / persona jaregiña ['narrasa'] / lanari jaregin*

**jarein. Jas. jaregin**

**jarri** 'jarri; jesarri': *egun osuan etxe*

*aurrian jarritta egon dok*

**jatun, -a** 'jatuna; jalea': *alaba txikixa oso jatun txarra dok, zihero mizkiña*

**jaurti** 'jaurti; bota': *harrixa jaurti, eta txorixa bota juan*

**jausi** 'jausi; erori': *kalian jausi, eta min egin dau besuan*

**jera, -ia** 'jera; abegia': *laguntza eske juan, eta ez jeustak jera onik egin harruorrek*

**jira, -ia** 'jira' 1. ardura, 2. itzulia, 3. anabasa; *gazt. cuadro, desmadre*, 4. *gazt. trámite: ama hil zanetik, berak daroia etxeko jiria / egin dot lagunekin kale jiria / gurasuak oportetan zirala-eta, seme-alaba gaztiak bakarrik etxian, eta ha zan, ha, etxe jiria! / umia adoptatzeko jirak egitten dabiz*

**jirau** 'jiratu' 1. lortu. *Sin. zuzendu*, 2. moldatu: *automobil merketxo bat jirau nahi junat / oportetan, bakarrik ibilli arren, ondo jirauko dok hori*

**jolasian egin** 'jolasean egin'. Gure alderdian arrotza da *jolastu*. Ik. **bultza egin, burrukan egin, dantzan egin, jolasian ibilli, lapurretan egin. Sin. olgau**

**jolasian ibilli** 'jolasean ibili'. Ik. **jolasian egin**

**justuri, -xa** 'justuria; ostotsa': *hamen Mallabixen 'trumoie' esaten dok, baiñe hor Oñati aldien entzunde jaukat 'justuri' berbie. Sin. trumoi*

## K

**karkaxa, -ia** 'karkaixa; gazt. flema'.

*Sin. gorro*

**karriau** 'karriatu; garraiatu': *umia etxera karriau ezinda ibilli naiz*

**karu, -a** 'karua; garestia': *Gabon inguruan oso karu egoten da arraiña*

**karraskadia jo** 'karraskada jo; atzera egin'. *Sin. arrio egin*

**kasko, -ua** 'kaskoa': *emoidazu ogikaskua!* *Sin. kuskur*

**katagorri, -xa** 'katagorria; urtxintxa'. *Sin. katamixar*

**katamar ibilli** 'katamar ibili; lauoinka ibili': *ondiño katamar dabil; ez dau oiñez ibiltzen ikasi*

**katamixar, -a** 'katamixarra; urtxintxa': *laster egin dau katamixarrak arbolan gora.* *Sin. katagorri*

**keriza, -ia** 'geriza; itzala'

**kerizpe, -ia** 'gerizpea; itzala': *kerizpian egon ezkeru, ez dok protektorarik bihar*

**kesokemau, -a** 'kesokemaua; flana': *postrerako, neuk egindako kesokemaua daukak*

**kezka, -ia** 'kezka' 1. ardura, 2. gazt. reparo, escrúpulo: *kezkia emoten jeustak iñoren basotik edatiak*

**kibizta, -ia.** *Jas. kiribizta*

**kiputx, -a** 'giputza'. Euskara giputza egiten duena (ez dauka zentzu txarrik): *elgoibartarrak ez dittuk kiputxak; azkoittiarrak-eta horrek bai*

**kiribizta, -ia** 'kiribizta; begizta,

*txibista'*: *zapatillian kiribiztia ez dozu ondo egin.* *Ald. gibeza, kibizta.* *Sin. txibistin*

**kirikixo, -ua** 'kirikinoa': *kirikixua eguan kamiño erdixan hilda.* *Sin. triku*

**kirrimarra, -ia** 'kirrimarra; <r>ordez, <g> esatea': *frantsesa emoten jok berorren kirrimarriarekin*

**kixi bat.** *lk. gixi bat*

**koipetsu, -a** 'koipetsua; lausengaria, gazt. pelota': *irakasle askok ikasle koipetsuak izaten dittue begiko.* *Sin. ipurdi garbitzaille*

**koittau, -a** 'koitadua; gaixoa' (gehienbat andrazko, ume eta animaliekin erabiltzen da): *txori koittaua, automobillak jota hil da!* *lk. gizajo*

**kokaldi, -xa** 'kokaldia, tortikulisa': *kokaldixakin, mobidu eziñik jaukat samia*

**koko, -ua** 'koko; zomorroa': *ez jata mendira juatia gustatzen, kokua ze besterik ez dago eta.* *Sin. malo, momorro*

**koko jantzi** 'koko jantzi; mozorrotu': *aurtengo Aratustietan, eskolako danok koko jantziko gara.* *Sin. kukumarru jantzi*

**konparaziño baterako** 'konparazio baterako; adibidez'. *Sin. esate baterako*

**kontizu** 'kontizu (< kontu egizu)': *gaur be, kontizu, jente asko egon ei da konziertuan.* *Sin. itxuria,*

**itxuria danez**

**kontulau, -a** 'kontulaua': *kontulau itzala da Martin, ez zara aspertuko harekin. Sin. barritsu, berbalari, berbatsu*

**kopau, -a** 'kopaua; mokadua, gazt. bocado': *biharrian ekin aurretik, kopau bat jango juagu*

**kopin, -a** 'kopina; panpina'. *Sin. andera*

**korta, -ia** 'korta; ukulua': *lehen kortia zana, orain jantoki egin dabe. Hitz elkartuak: txarrikortia. Sin. ittu, zaltagi*

**koskor, -a** 'koskorra; txiki samarra': *herri koskorra don Gatzaga, baiña politta / hori gertatu zanian, mutiko koskorra nintzuan*

**kriston, -a (lag)** 'kristona'. *Sin. berebiziko, demaseko, egundoko, itzal, makaleko, sekulako*

**kukumarru jantzi** 'kukumarru jantzi; mozorrotu'. *Sin. koko jantzi*

**kulumiño, -ua** 'kuluminoa' 1. liztorra, 2. gogaikarria: *kendu hadi nire inguruetatik, kulumiño gogaikarrixori. Sin. erlamiño*

**kuma, -ia** 1. '-kumea', 2. 'kuma; sehaska': *bost kuma egin dittu txakurrak / moteldu egizu hori musikioiri, umia kuman lo dago eta*

**kuskur, -a** 'kuskurra': *gorde egizu ogikuskurra zoparako. Sin. kasko*

## L

**labandu** 'labaindu'. *Sin. irrist egin, laban egin, laprast egin*

**laban egin** 'labain egin'. *Sin. irrist egin, labandu, laprast egin*

**laga** (Db, De) 'laga; utzi'. *Sin. itxi*

**lagun, -a** 'laguna' 1. adiskidea, 2. pertsona, 3. arropa baten bikotea: *lagun asko bizi zittuan, eta horregaittik deitzen geuntsan "gomazko etxia" / nun da honen galtzionen laguna?*

**laiotz, -a** 'laiotza; leku itzaltsua'. *Ant. eguzki begi. Sin. aiñube*

**lan, -a** 'lana'. *Sin. bihar*

**langille, -ia** 'langilea'. *Sin. bihargin*

**lantxurda, -ia** 'lantxurda; zuhaitzetan-eta egiten den izotza'. *Sin. antzigar, zurda*

**lantzian (behin)** 'lantzean (behin); noizean behin': *guntzurrunetatik ez jabin ondo, eta lantzian-lantzian juaten don Mendaroko ospitalera*

**laprast egin** 'laprast egin': *behin baiño gehixagotan gertatu da platano azala zapaldu eta laprast egittia. Sin. irrist egin, labandu, laban egin*

**lapurretan egin** 'lapurretan egin'. Gure alderdian arrotza da *lapurtu*. Ik. **bultza egin, burrukan egin, dantzan egin, jolasian egin / ibilli. Sin. oostu**

**larregi** (Dg, De) 'larregi': *larregi jan dot, eta ez daukat ibiltzeko bape gogorik. Sin. gehixegi*

**laru, -a** (Dg) 'larua; horixka'. *Sin.*



**beillegi**  
**laztan, -a** 'laztana' 1. musua, 2. maitasun hitza: *etorri zaittez hona, laztanori, gozoki bat daukat zuretako eta*  
**legez** 'legez'. *Sin. bezela, erara, moduan*  
**lehelengo, -ua.** lk. **lehenengo**  
**lehenengo, -ua** 'lehenengoa; lehena'. *Ald. lehelengo. Sin. aurrenengo*  
**lehengusiña, -ia** 'lehengusina; lehengusu andrazkoa'  
**lehengusu, -a** 'lehengusua'  
**leikena.** lk. **leikiana izan**  
**leikiana izan** 'litekeena izan': *leikiana da bixar eguzkixa urtetzia. Ald. leikena Sin. baleike, baleitteke, biharbada, harenbaten*  
**lekarixo, -ua** (Dg) 'lekaioa'. *Hitz elkartua: barre lekarixoka. Sin. irrintzi*  
**lepo, -ua** 'lepoa' 1. bizkarra, 2. sama  
**lera, -ia** 'lera; *gazt. trineo*'. *Sin. nar*  
**letxarrerixa, -ia** 'letxarrerria; gozoki gauza'. *Ald. litxarrerixa*  
**letxarrero, -ua** 'letxarreroa; gozozalea'. *Ald. litxarrero*  
**letxe.** *Jas. legetxe.* lk. **legez**  
**lez.** *Jas. legez*  
**litxarrerixa, -ia.** lk. **letxarrerixa**  
**litxarrero, -ua.** lk. **letxarrero**  
**lokamus, -a** 'lokamusa; *gazt. cabezada*': *telebisiño aurrian, lokamusa egin juat. Sin. (lo)tauki*  
**lokatza, -ia** 'lokatza; lohia'. *Sin. basa, basatza*

**lokorros, -a** 'lokorrosa'. *Sin. zurrunga*  
**lorratz, -a** 'lorratza; aztarna': *baten bat izan dok hemen, hanka lorratzak jagozak eta. Sin. aztarren*  
**lotauki, -xa** 'lotaukia'. *Ald. tauki. Sin. lokamus*  
**luperixa, -ia** 'luperia; luizia': *sekulako luperixak egin dittuk atzoko eurixekin. Sin. lurjausi*  
**lurjausi, -xa** 'lurjausia; luizia'. *Sin. luperixa*

## M

**maasma, -ia**. *Jas. marasma*

**madura, -ia** ‘madura; zingira’. *Ald. padura*

**maillatu** ‘mailatu; sakonunea izan, *gazt. abollar*’: *sagarra lurrera jausi, eta maillatu egin da*

**mailluka, -ia** ‘mailuka; mailua’

**mailluki, -xa** ‘mailukia; marrubia’: *mailluki izozkixa nahi dot*

**makaleko, -ua** ‘makalekoa’: *kontuz horrekin, gero; makalekua dok, ba, bera adarra joten hasten danian. Sin. berebiziko, demaseko, egundoko, itzal, kriston, sekulako*

**makar, -a** ‘makarra’. *Sin. bekarra*

**makatz, -a** ‘makatza’ 1. udarea, 2. udare txikia

**makiña bat** ‘makina bat; asko’: *makiña bat lagun izan zuan hilletetan*

**malo, -ua** ‘maloa; zomorroa’. *Sin. koko, momorro*

**mamin eten, -a** ‘mami etena; *gazt. rotura de fibras*’: *osasun txarreko jabin Osasuna: oin be aurrelari batek mamin etena izan jon, eta luzaruan egongo ei don jokatu barik*

**mankau** ‘mankatu’ 1. nekatu, 2. min hartu: *txakur koittauari zeozer gertau jako, mankaute dator eta*

**marasma, -ia** ‘marasma’: *danetarik eguan ganbaran: marasmak, saguzaharrak eta gauzaeztan gauzia ugari. Sin. armiarma, hamarratz, marma*

**marasmaetxe, -ia** ‘marasmaetxea; armiarma sarea’. *Sin. amaraun*

**marma, -ia** ‘marma’. *Sin. armiarma, hamarratz, marasma*

**marmar, -a** ‘marmarra’: *isillian berba egittia, gehixenetan baten baten kontra, horixe dok “marmarrian” jardutia*

**martitzen, -a** ‘martitzena; asteartea’

**maskal, -a** ‘maskala; makala, zimela (loreekin eta pertsonekin erabiltzen da, gehienbat)’: *oso maskalduta ikusi juat Martin*

**maskaldu** ‘maskaldu; makaldu, zimeldu’: *horrek mahaigaiñeko larrosok maskalduta dagoz*

**masmaetxe, -ia**. *Jas. marasmaetxe*

**maspildu** ‘maspildu’ 1. mailatu, 2. zapaldu: *maillukiakin jota, atzamarra maspildu dau / mahatsa ondo maspildu bihar da*

**materixa, -ia** ‘materia’: *materixia lehenengo, eta odola gero, atara deutsut. Sin. pasmo, zorne*

**mendebal, -a** ‘mendebala; mendebaldea’: *mendebaleko haixia dabil gaur / mendebalera emoten jok gure etxiak*

**mentau** ‘mentatu; txertatu’. *Sin. eztittu*

**mihin, -a** (Dg, De) ‘mihia’. *Sin. mingain*

**mingain, -a** (Db, De) ‘mingaina’. *Sin. mihin*

**mira egin** ‘mira egin; harritu’: *mira eginda nago, zein ederto egin*

*dozun ikusitta*

**mizkin, -a** ‘mizkina; jatun txarra’: *jatun mizkiña da, horraittio, zuen txikixa!*

**moduan** ‘moduan’. *Sin. bezela, erara, legez*

**moldakatx, -a** ‘moldakaitza; gazt. torpe’: *mutil moldakatxa bahaiz, gero!*

**momorro, -ua** ‘momorroa; zomorroa’. *Sin. koko, malo*

**mordo, -ua** ‘mordoa; asko’: *jente mordo haundixa egon zunan presuen aldeko manifestaziñuan*

**morroillo, -ua** ‘morroilloa; gazt. cerrojo’: *giltzian itxi atia, lapurrak jabizak eta. Ald. morroko*

**morroko, -ua.** lk. **morroillo**

**motxaila, -ia** ‘motxaila’: *euskaldunak zittuan lehengo motxaila asko, baiña bajukezan euren berbak, guk aitzen ez genduzanak. Sin. ijittano, ijitto*

**murgillian ibilli** ‘murgilean ibili; gazt. bucear’: *Mutrikura goiazenian, murgillian ibiltzen gaittun, hango atx artietan*

**musu, -a** (Db) ‘musua; sudurra’. *Sin. sur*

**mutxikin, -a** ‘mutxikina; hondarkia’: *sagar mutxikiña katiatu jako eztarrixan / hutsittu egik hautsontzixa, zigarro mutxikiñez beteta jagok eta*

## N

**nagi, -xa** ‘nagia; alferra’. *Esap. nagixak atara, nagixak kendu*

**nahastau** ‘nahastatu’: *nahastau ondo kartak, lehen dana ezpatia emon deustazu eta. lk. nahastu*

**nahaste-borraste, -ia** ‘nahaste-borrastea; anabasa’: *Donostiako aurtengo Zinemaldixan be, sekulako nahaste-borrastia sortu ei da sarixak emoteko orduan*

**nahastu** ‘nahastu; nahasi’. *Ald. nahastau*

**nahi** ‘nahi’. *Sin. gura*

**nar, -a** ‘narra; gazt. trineo’. *Sin. lera*

**narras, -a** ‘narrasa’: *ez daukak hori baiño arkondara itxurosuagorik, narrasorrek!*

**narras ekarri / ibilli / erabilli** ‘narras ekarri / ibili / erabili’: *edanari emonda dago, eta oso narras dabil*

**narrasian** ‘narrasean’: *ez eban etorri nahi, eta narrasian ekarri dogu. Sin. arrastaka, tarrasian, tatarrez*

**narrastu** ‘narrastu; behera etorri, gazt. decaer’: *hori be gogorra zan, baiña urtiekin narrastu egin da*

**nazka, -ia** (Db) ‘nazka’. *Sin. higuin*

**neba, -ia** ‘neba; andrazkoaren anaia’ (Deba ibarrean *anaia* da zabalduena)

**nola** (Db, De) ‘nola’. *Sin. zela, zelan*

**nolako, -ua** (Db, De) ‘nolakoa’. *Sin. zelako*

## O

**obatu.** lk. **oratu**

**odolgi, -xa** ‘goroldioa’: *leku umeletan sortzen da odolgixa*

**odol hustu, -a** ‘odol hustua; hemorragia’. *Sin. odol jarixo, (odol) juan*

**odol jarixo, -ua** ‘odol jarioa; hemorragia’. *Sin. odol hustu, (odol) juan*

**(odol) juan, -a** ‘(odol) joana; hemorragia’: *egon hadi gora begira, surreko juana geldittu arte. Sin. odol hustu, odol jarixo*

**odoloste, -ia** ‘odolostea; odolkia’: *porruakin egitten juagu hamen odolostia*

**ogibittarteko, -ua** ‘ogibitartekoa; gazt. bocadillo’: *ogibittarteko gozua eta ederra jan genduan Gatzagagaiñan*

**ogigaztai, -a** (Dg, De) ‘ogigaztaia; erbinudea’: *gaiztua dok ogigaztaia, eta kalte haundixa egitten juan lehen oillotokixetan. Sin. satandera*

**ointsu** ‘oraintsu; oraindik orain’: *ointsu izan naiz Holandan, baiña ez dot holakorik ikusi. Ald. ointsuan. Sin. oiñao*

**ointsuan.** lk. **ointsu**

**oiñao** (Dg, De) ‘orainago; oraindik orain’. *Sin. ointsu, ointsuan*

**oiñaztarri, -xa** ‘oinaztarria; oinazkarra’: *oiñaztarririk txahala hil egin ei jok basuan*

**oiñaztu, -a** ‘oinaztura’: *oiñaztua ikusi juat, eta laster dok trumoi*

- hotsa. Sin. tximista*
- oiñutsik** 'oinutsik'. *Sin. hanka hutsik, ortozik*
- okan, -a.** *Jas. okaran*
- okaran, -a** 'okarana': *okaran pasak onak ei dittuk, niri neuri ez jatazak gustatzen baiña. Ik. aran*
- ok egin** 'ok egin' 1. jatekoz bete, 2. botaka egin: *egundoko baba lapikua ekarri juen, eta ok egin arte jan genduan*
- okela, -ia** 'okela': *ipurdi aldietan ez jaukan okela askorik, gero! Sin. haragi*
- olgau** 'olgatu' (Deba ibarrian **jolasian egin / ibilli** da zabalduena): *bixar olgauko dozu gehixago, eta guazen orain ohera*
- ondoez, -a** 'ondoeza' 1. *gazt. malestar*, 2. *gazt. mareo. Sin. zorabixo: ondoezik daguala-eta, ohian geratu dok*
- ondoeza emon / egin** 'ondoeza eman / egin' 1. *gazt. marear*, 2. *gazt. dar un ataque: kalian dala, ondoezak emon, lurrera jausi, eta ospitalera eruan dabe*
- oostu** 'ostu'. *Sin. lapurretan egin*
- oratu** 'oratu; heldu': *oratu egixok samatik, eta geldi-geldi egongo dok. Ald. obatu*
- ordei, -xa.** *Ik. herdoi*
- oriau** 'oriatu; egurastu': *zabalduegizak bentana danak, etxia oriau daitten*
- orri, -xa** (Dg, De) 'orria; hostoa': *ekatzuz hiru-lau letxuga orri ensaladarako. Sin. hostro*
- orrua** 'orroa': *hor ibilli dok gazterixia, goixaldian, orrua baten. Sin. garrasi*
- ortozik** (Dg, De) 'ortozik': *Ameriketan bata eta bestia diñok hik, baiña han be txakurrak ortozik, txotxo. Sin. hanka hutsik, oiñutsik*
- ortu, -a** 'ortua; baratza'
- ortuari, -xa** 'ortuaria; barazkia': *ortuarixak egoten dira San Tomas eguneko azokan*
- osatu** 'osatu; sendatu'. *Sin. saniau*
- ospel, -a** 'ospela' 1. azkordina, 2. (*lag*) *gazt. gilipollas, cantamañanas: lehengo neguak gogorak izaten zittuan, eta eskuak-eta ospelez beteta eukitzen genduazan / ez egixok jaramonik egin, ospel hutsa dok eta*
- ostantzian** 'osterantzian; bestela'. *Sin. ostian*
- ostarku, -a** 'ostarkua; ortzadarra': *han, ikusi zerubarrenian ostarkua!*
- oste, -ia** 'ostea' 1. atze aldea, 2. (*lag*) *gorputzaldi txarra. Sin. aje, bixamon: etxe ostian egoten da eguzkittan etzunda / atzo afarixa egin gendunan, eta gaur ostia itzala*
- ostera** 'ostera' 1. ordea, aldiz, 2. berriro. *Sin. atzera: horrek eguzkixa nahi, eta guri, ostera, eurixa komeni / ganora horrekin ibilli ezkerro, ostera be izango dozu ezbiharren bat*
- ostera, -ia** 'ostera; joan-etorria':

*Mendarora osteria egingo dogu arratsaldian, bertan dagualako Aitor ospitalian*

**ostian** ‘ostean, osterantzean’ 1. atzean, 2. bestela. *Sin.*

**ostantzian**: *bazkal ostian bixaua egitten dau telebisiño aurrian / juan hadi aguro, ostian leku barik geldittuko haiz eta*

**ostiango, -ua** ‘osterantzekoa; bestelakoa’: *honetxek oiñetakuok ez izatera, ez dot ostiangularik gura*

**ostondo, -ua** ‘ostondoa; gazt. horizonte’: *zerua eta lurra batzen diran lerrua dok “ostondua”*

**otzara, -ia** ‘otzara; saskia’: *otzara txiki bat eruaten dot perretxikutarako. Sin. zare*

**ozta-ozta** ‘ozta-ozta; gazt. justo-justo’: *ozta-ozta sartzen gara laurok automobilian*

## P

**padura, -ia** ‘padura; zingira’: *etxiak dagozen lautadia paduria zuan, eta edozenbat hegazti egoten zuan negu partian. Ald. **madura***

**pare** ‘pare; bezala’: *zoruan pare joiak, bere automobil zaharrian*

**pareta, -ia** (Db, De) ‘pareta’. *Sin. horma*

**parrapar, -a** ‘parraparra; gazt. tobogán’: *parraparrian ibilli, eta prakak urratuta etxera sarri. Sin. txirrista*

**pasmo, -ua** ‘pasmoa’. *Sin. materixa, zorne*

**pastore, -ia** ‘pastorea’: *pastore gazte gitxi ikusten dok gaur egun. Sin. artzain*

**patxada, -ia** ‘patxada; gazt. cachaza’: *azterketia bixar, eta telebisiñuari begira: hik daukak, hik, patxadia!*

**patxadoso, -ua** ‘patxadosoa; lasaia’. *Sin. tenplau*

**pentsau** ‘pentsatu’ 1. uste izan, 2. iruditu (NOR-NORI erara jokatzeko da esangura hau daukanean): *Itziar dala pentsau jata, atzetik ikusitta. Sin. begittandu*

**petral, -a** ‘petrala’: *gogaikarrixa-edo dan personiari esaten jeutsagu guk “petrala”*

**ponderau** (Dg) ‘ponderatu; goraiatu’. *Sin. abonau*

**postaka** (Gatzaga) ‘postaka; lasterka’. *Sin. antxitxika, antxitxiketan, ariñeketan, saltaka, takarradan*

**postura, -ia** ‘postura; apostua’:

*Etxanizen eta Elkororen alde egin junat posturia frontoian*

**pot egin** ‘pot egin; zeharo nekatu’:

*pot eginda nago; ezin dot gehixago! Sin. txio egin*

**praka, -ia** ‘praka; galtza’:

*horrek prakok luzeegi daukazak, eta barrenak hartu biharko deutsezak. Ald. fraka*

**primerako, -ua** (*lag*) ‘primerakoa; egokia’.

*Sin. apropos, aukerako*

**priztixa, -ia**. lk. **fritzixa**

**puntako, -ua** (*lag*) ‘puntakoa; goi mailakoa’:

*punta-puntako medikua dok, gero, hori!*

**puntu** (*lag*) ‘puntu; laster’:

*zazpirak dira, eta puntu dozu hemen. Sin.*

**puntuko**

**puntuari** (*lag*) ‘oraintxe bertan’:

*puntuari etorri da: sukaldian daukazu zain*

**puntuko** (*lag*) ‘puntuko; laster’.

*Sin. puntu*

**pusketa, -ia** ‘pusketa’.

*Sin. zati*

**pusla, -ia** ‘pusla; azaleko handitu

urtsua’.

*Sin. baba*

**puspillu, -a** ‘puspilua’

1. *gazt. burbuja*, 2. erre ondoren sortzen

den handitu urtsua: *gaur egungo*

*ikastolako umiak ‘burbuila’*

*esaten dabena, ‘puspillua’ esan*

*juagu geure bizi guztixan*

## S

**saillian** ‘sailean’

1. asko, barra-barra, 2. erreskadan: *perretxikuak saillian batu genduzen Urbasan / gauzak saillian egin bihar dittuzu, ez edozelan*

**sakatu** ‘sakatu’

1. zapaldu, 2. ziria sartu: *sakatu egizu botoia, eta laster zabalduko jatzu atia / ederra sakatu deusku horrek: motorra beria dabela esan deusku*

**sake, -ia** ‘sakea’

1. pelota ateratzeko jokaldia, 2. (*lag*) jateko gaitasun handia. *Sin. entrama*

**saltaka** (Db) ‘saltaka; lasterka’.

*Sin. antxitxika, antxitxiketan, ariñeketan, postaka, takarradan*

**sama, -ia** ‘sama’:

*atzo hotzittu egin nintzan, eta sama zarratuakin nago gaur. Sin. lepo*

**samar** ‘samar; nahikoa’:

*ondo samar gabizan juan dan aspaldixan / goiz samar etorri gintzuazan / lelo samarra don hori / amaittu samartuta daukagu biharra*

**samur, -a** ‘samurra’

1. biguna, 2. (Dg, De) erraza: *oso okela samurra ekarri dozu gaur / lan samurra agindu jeuskuk*

**saniau** ‘saniatu; sendatu’:

*honek botikionek laster saniauko hau. Sin. osatu*

**sanidade, -ia** ‘sanidadea; lasaitasuna’:

*horrek jaukak*

*sanidadia: ezegaittik be ez dok estutzen*

**sasieskola, -ia** 'sasieskola; piperra'. *Sin. txarrittan egin*

**sasijakintsu, -a** 'sasijakintsua; gazt. listill@, pedante': *dana dakixela uste jok, sasijakintsu higuin garrixorrek*

**sasikoipetsu** 'sasikoipetsu'. Aratuste aurreko igandean, gazteek basoan egin ohi zuten jatordua. Urdai koipetan arrautzak eta txorizoa erretzen ziren. *Sin. txitxiburduntzi*

**sasoi, -ia** 'sasoia' 1. garaia, 2. gorputzaldi ona; *gazt. en forma: ez dago sasoiari, eta ez dau markia onduko. Sin. sasoi*

**sasoiko, -ua** 'sasoikoa' 1. garaikoa, 2. gaztea, 3. gorputzaldi onekoa; *gazt. en forma: sasoiari sasoiakua jan bihar da, ez turroia udan / sasoi gizona da hori ondiño / oraintxe gare sekula baiño sasoiaren Himalaiara fateko*

**satandera, -ia** 'satanderea; erbinudea'. *Sin. ogigaztai*

**sekulako, -ua** 'sekulakoa'. *Sin. berebiziko, demaseko, egundoko, itzal, kriston, makaleko*

**sikira** 'sikira; behinik behin, behintzat': *bizikleta bat baneuka, sikira!*

**siku** 'siku; lehor'

**sikute, -ia** 'sikutea; lehortea'

**sits, -a** 'sitsa; oihala jaten duen harra': *sitsaren kontrako botikia*

*sartu dot erropa poltsikuetan. Ik.*

**zerren**

**sosiguz** 'sosiguz; astiro, poliki': *juan zaitte sosiguz, bidia bustitta dago eta*

**sukalde, -ia** 'sukaldea'. *Sin. ezkaratz*

**sur, -a** 'sudurra'. *Sin. musu*

**sustrai, -xa** 'sustrai; erroa'. *Sin. zuztar*



## T

**takada, -ia** ‘takada; etenik gabe’:  
*liburua oso-osorik irakurri junat  
takada baten. Ald. txakada*

**takarradan** (Dg) ‘takarradan;  
lasterka’. *Sin. antxitxika,  
antxitxiketan, ariñeketan,  
postaka, saltaka*

**takateko, -ua** ‘takatekoa; buruan  
hartutako golpe gogorra’:  
*ganbaran kriston takatekua hartu  
junat*

**takian-potian** ‘takian-potian; sarri’:  
*takian-potian ikusten junat  
Eibarren eta Bergaran, pelota  
partiduetan*

**tarrasian** ‘tarrasean’. *Sin.  
arrastaka, narrasian, tatarrez  
tatarrez* ‘tatarrez’. *Sin. arrastaka,  
narrasian, tarrasian*

**tauki, -xa**. lk. **lotauki**

**tautik (be ez)** ‘tautik ere ez; ezer  
ere ez’: *ez eban tautik be ikusten.  
Ald. tutik*

**tema, -ia** ‘tema; egoskorkeria’:  
*berorren temiari eutsiko jeutsak  
horrek harik eta hil arte*

**temak euki** ‘temak eduki;  
kasketaldiak eduki’

**temoso, -ua** ‘temoso; temati’: *oso  
ume temosua da: beti beria egin  
bihar*

**tenplau, -a** ‘tenplatua; lasaia’. *Sin.  
patxadoso*

**tente** ‘tente; zutik’: *trenian tente  
etorri bihar izan junat Donostiatik  
hona. Sin. zutunik*

**tente, -ia** ‘tentea; zuzena’: *oso  
gizon tentia da, larogeitaka urte*

*dittu baiña*

**topau** ‘topatu’ 1. bilatu, 2. aurkitu:  
*topatzen ibilli nok, baiña ez juat  
iñun topau*

**topo egin** ‘topo egin’. *Sin. tril egin  
torlojo, -ua* ‘torlojua’: *Elgetan izan  
dittuk torloju tallerrak*

**traza, -ia** ‘traza; itxura’: *bere  
amaren traza itzala dauka. Sin.  
antz*

**triku, -a** (Db) ‘trikua’. *Sin. kirikixo  
tril egin* (Dg) ‘tril egin’: *etxera  
natorrela, berakin tril egin juat.  
Sin. topo egin*

**trumoi, -a** ‘trumoia’ 1. ostotsa. *Sin.  
justuri, 2. ekaitza. Sin. hodei.  
Ald. trunboi*

**trunboi, -a**. lk. **trumoi**

**tutik**. lk. **tautik**

## TX

**txakada, -ia.** lk. **takada**

**txakur, -a** 'txakurra' 1. animalia, 2. gaiztoa: *eguraldi txakurra, gaurkua / sake txakurra jaukak, gero, Nagore pelotarixak*

**txantxiku, -a** 'txantxikua' 1. txantxikua, beste izenez oñatiarra (ez dauka zentzu txarrik), 2. igela. *Sin. ugaraxo, ugarixo, ugarixu...: horrek txantxikuok "xi-xau" egitten juek berba: jako barik xako, jok barik xok, dana "x" egitten juek Oñatin*

**txapligu, -a** 'txapligua; suziria': *zer dala-eta bota ete dittue txapliguak? Sin. etxaflero*

**txar, -a** 'txarra'. *Sin. gaizto*

**txarki** 'txarki'. *Sin. gaizki, txarto*

**txarritan egin** 'txarritan egin; piper egin'. *Sin. sasieskola egin*

**txarto** (Dg, De) 'txarto'. *Sin. gaizki, txarki*

**txatxar, -a** 'txatxarra; txiki-txikia': *etxia politta da, baiña txatxar-txatxarra*

**txatxara, -ia** 'txatxara; ganora txarra': *hori dok, hori, txatxaria: umien kontra jokatu eta galdu*

**txatxilipurdi** 'txatxilipurdi; gazt. vuelta campana'. *Ald.*

**txitxilipurdi**

**txatximurkada, -ia.** lk. **atximurkada**

**txibistin, -a** 'txibista'. *Sin. kiribizta*

**txilibito, -ua** 'txilibittoa' 1. txistua; *gazt. silbato*, 2. zakila (umeekin eta mutikoekin erabiltzen da): *hor jharduk aguazillak goiz osuan,*

*berorren txilibitua jo eta jo / egon hadi geldi, txilibitua kenduko deuat bestela*

**txilixu, -ua** 'txilioa; garrasia': *bart etxian, sekulako txilixuak entzun genduazan. Sin. ulu*

**txima, -ia** 'txima' (pluralean erabiltzen da): *noiz ebagi bihar dittuk horrek ule tximok?*

**tximista, -ia** 'tximista'. *Sin. oiñazu*  
**txindurritu** 'txindurritu; inurritu, lokartu': *hankia txindurritu jatak, eta ezin juat ibilli*

**txingor, -a** 'txingorra; kazkabarra': *fruta guztixa hondatu deusku txingor madarikatuak*

**txintxaun, -a** 'txintxauna': *hor jabizak umiak, txintxaunian jolasian. Sin. txintxoi, ziburu, zinbili-zanbulu*

**txintxoi, -a.** *Sin. txintxaun, ziburu, zinbili-zanbulu*

**txio egin** 'txio egin; zeharo nekatu'. *Sin. pot egin*

**txirrista, -ia** 'txirrista; *gazt. tobogán*'. *Sin. parrapar*

**txirtxil, -a** 'txirtxila; kilkerra'

**txistik (be ez)** 'txistik ere ez; ezer ere ez': *gela honetan ez da txistik be entzuten*

**txistu, -a** 'txistua' 1. musika tresna, 2. zakila, 3. tua. *Sin. txu*

**txitxiburduntzi** 'txitxiburduntzi'. Aratuste aurreko igandean, gazteek basoan egin ohi zuten jatordua. Urdai koipetan arrautzak eta txorizoa erretzen ziren. *Sin. sasikoipetsu*

**txitxilipurdi.** lk. **txatxilipurdi**

**txitximurkada, -ia.** lk.

**atximurkada**

**txitxipotxo egin** ‘txitxipotxo egin’;  
<tz> esan ordez, <tx> esan:  
*kentzen* → *kentxen*, esate  
baterako

**txokatzeko, -ua** ‘txokatzekoa;  
harrizkera’: *ez don txokatzekua*  
*Atletixa estu samar ibiltzia, ez jon*  
*kanpotik jokalaririk ekartzen eta*

**txokau** ‘txokatu; harritu’: *asko*  
*txokatzen jatan hori mozkortuta*  
*ibiltzia*

**txolet, -a.** lk. **txolot**

**txolot, -a** ‘txolota; metalezko  
edalonzia’: *mendixan txolotak*  
*izaten dittuk iturrixetan.* Ald.

**txolet.** Sin. **antosin**

**txorimalo, -ua** ‘txorimaloa’ 1. *gazt.*  
*espantapájaros,* 2. *ganora*  
*gabekoa: kendu hadi nire*  
*inguruetatik, txorimaluori!*

**txu, -a** (Dg) ‘tua’. Sin. **txistu**

## U

**ubeldu, -a** ‘ubeldua’: *gure*  
*neskatuak ubelduz beteta jaukak*  
*hankia.* Sin. **baltzuna**

**ufal, -a** ‘ufala; uholdea’: *sekulako*  
*ufalak izan ei dira Frantzia aldian*

**ugal, -a** ‘uhala; *gazt. correa*’:  
*automobillian ugalik barik*  
*bahoia, multia daukak*

**ugar, -a** ‘ugarra’: *ugarra egin jako*  
*kutxilluari.* Sin. **herdoi, orde**

**ugaraxo, -ua** ‘ugaraxoa; igela’.  
Ald. **ugarixo, ugarixu...** Sin.  
**txantxiku**

**ugarixo, -ua.** lk. **ugaraxo**

**ugarixu, -a.** lk. **ugaraxo**

**ugazaba** (Dg, De) ‘ugazaba;  
jabea’. Gure alderdian  
mugagabeen erabiltzen da:  
*ugazabak agindu dau*

**ukalondo, -ua** ‘ukalondoa;  
ukondoa’

**ulu, -a** ‘ulua; garrasia’: *han agertu*  
*zuan ulua baten.* Sin. **txilixo**

**umel, -a** ‘umela; hezea’: *egun*  
*osuan kanpuan esegitta, eta*  
*umela jagok ondiño erropia*

**umeldu** ‘umeldu; hezetu’

**ume, -ia** ‘umea; haurra’. *Hitz*  
*eratorriak: umeterixa, umezain,*  
**umezale**

**urbuztan, -a** ‘urbuztana’ 1. *izaina.*  
Sin. **uzan,** 2. (*lag*) *gazt.*  
*chupasangre: argi ibilli hadi*  
*horrekin, urbuztan hutsa dok eta*

**urdaiazpiko, -ua** ‘urdaiazpikoa’.  
Sin. **urdaintzaki**

**urdaintzaki, -xa** (Dg)  
‘urdaintzakia’. Sin. **urdaiazpiko**

**urlixa** 'urlia; *gazt. fulano*': *urlixak esan dabela-eta, siñistu egin dok?* Ik. **berendixa**

**urrin** 'urrun'. *Sin. urruti*

**urruti** (Db) 'urruti'. *Sin. urrin*

**urtegun, -a** 'urteguna; urtebetetzea'. *Sin. egun*

**ustebako, -ua** 'uste gabekoa; ezustekoa': *ustebako galanta izan da zuen ezkontziarena*

**uzan, -a** 'uzana; izaina': *antziña, ospitaleetan erabiltzen jittuen uzanak, odola ataratzeko. Sin.*

**urbuztan**

## X

**xelebre, -ia** 'xelebrea; arlotea'. Ik. **zelebre**

**xelebrekerixa, -ia** 'xelebrekeria; arlotekeria'. *Sin. egittada*

**xuhur, -a** 'xuhurra; zikoitza'. *Sin. erkin, zeken, zimur*

## Z

**zabor, -a** ‘zaborra; hondakina’. *Sin.*

**zakar**

**zaborrerixa, -ia** ‘zaborreria’:  
*zaborrerixa galanta ei jagok Himalaia aldian, Alberto Iñurategik eta Jon Lazkanok esan dabenez*

**zahi, -xa** ‘zahia’ 1. laboreen azala, 2. *gazt.* caspa: *txanpu mota guztixak probau jittuat, baiña ezin ezetara be buruko zahixa kendu*

**zail, -a** ‘zaila’. *Sin.* **gaitz, gatx**

**zaildu** ‘zaildu; saiatu’: *zaildu zaittez, eta ia zeozer lortzen dozun.* *Sin.* **ahalegindu, ahalegiña egin**

**zakar, -a** ‘zakarra’ 1. latza, 2. hondakina. *Sin.* **zabor**, 3. itsusi. *Ald.* **zatar**

**zaldar, -a** ‘zaldarra’ 1. *gazt.* divieso, 2. *gazt.* espinilla: *zaldarrez beteta jaukat aurpegixa, eta azala garbitzera najoiak.* *Ald.* **zuldar**

**zaltagi, -xa** (Dg) ‘zaltagia; ukuilua’. *Sin.* **ittu, korta**

**zamau, -a** ‘zamaua; *gazt.* mantel’: *neure amamak egindakua da hau ehunezko zamauau*

**zan, -a** 1. ‘zena; *gazt.* el difunto’, 2. (Dg, De) ‘zaina’: *gure aitta zanak be baeukan hori ohitturiori / zana egokittu, eta sekulako odol jarixua izan dau*

**zankabe, -ia** ‘zankabea; belaunaren atzeko aldea’: *zankabeko miñaz nago*

**zapatu, -a** ‘zapatua; larunbata’

**zaplada, -ia** ‘zaplada; ukaldia’. *Sin.* **zoplasteko, zartateko**

**zoplasteko, -ua** ‘zoplastekoa; ukaldia’: *zoplasteko bat emoten badeuat, kenduko deudaz harro usaiñok.* *Sin.* **zaplada, zartateko**

**zapuztu, -a** ‘zapuztua; astindua’: *zapuztu bat bihar dok hik, artaburu galanta haiz eta*

**zarata, -ia** ‘zarata’ 1. hotsa, 2. zurrumurrua: *hauteskundiak aurrreratuko dittuen zaratia dabil*

**zare, -ia** ‘zarea; saskia’. *Sin.* **otzara**

**zarrada, -ia** ‘zarrada; zirrara’: *egundoko zarradia egin eustan harek bertsuak entzutiak.* *Sin.* **arrara**

**zarta, -ia** ‘zarta; pitzatua’: *zartia egin jako hormiari*

**zartada, -ia** ‘zartada’ 1. pitzadura, 2. (Iag) zoro haizea: *horrek jaukak eukitzeko zartadia!*

**zartateko, -ua** ‘zartatekoa; ukaldia’. *Sin.* **zaplada, zoplasteko**

**zartau** ‘zartatu; pitzatu’: *juan dan egunetako eurixekin, kamiñua zartau egin da.* *Sin.* **brintzau**

**zartau eragin** ‘zartatu eragin; eztanda eragin’: *ertzaiñak, badaezpada, zartau eragin jeutsek automobilari*

**zatar, -a** ‘zatarra; itsusia’. *Ald.* **zakar**

**zati, -xa** ‘zattia’ 1. zerbaiten osagarria. *Sin.* **pusketa**, 2. askozaz (‘*zatixa ...-ago*’ da

egitura; *gazt.* ‘mucho más’): *zure txamarria zatixa polittagua da niriaren aldian*

**zeken, -a** ‘zekena; zikoitza’. *Sin. erkin, xuhur, zimur*

**zela** ‘zela’. *Ald. zelan. Sin. nola*

**zelako, -ua** ‘zelako’: *ez dakizu ondo, zelako motorra erosi daben! Sin. nolako*

**zelan** ‘zelan’: *ondiño ez dogu erabagi zelan egin. Ald. zela. Sin. nola*

**zelebre, -ia** ‘zelebrea; umore onekoa’. *Ik. xelebre*

**zerren, -a** ‘zerrena; egurra jaten duen harra’: *piñu egurrez egindakuak ziran mahaixaren kajoiak, eta zerrenak jan dittu. Ik. sits*

**ziburu, -a** ‘ziburua’. *Sin. txintxaun, txintxoi, zimbili-zanbulu*

**zihar begiratu, -a** ‘zehir begiratu; *gazt.* mirada de rejo’: *horren zihar begiratuak ikaratu egitten najon*

**zihero** ‘zeharo; erabat’: *zihero argalduta ikusi junat Andoni. Sin. guztiz*

**zihetz** ‘zehatz; erabat’: *zihetz garbittu, gero, platera!*

**zihetz, -a** ‘zehatza’: *oso persona zihetza da: detallerik txikixenak be kontu haundiz hartzen dittu*

**zil, -a** ‘zila; zilborra’: *ez dok ona beti norberaren zillari begira egotia*

**zimur, -a** ‘zimurra’ 1. tolesa, 2. zikoitza. *Sin. erkin, xuhur, zeken: zimur asko dauka aurpegixan, baiña ez da hain zaharra. Esap. berbia harrua eta poltsikua zimurra*

**zimbili-zanbulu, -a** ‘zimbili-zanbulua’. *Sin. txintxaun, txintxoi, ziburu*

**zittal, -a** ‘zitala; jenio txar eta bizikoa’: *bihotz onekua da, baiña zittala*

**zizipaza, -ia** ‘zizipaza; s ordez, z esan’: *andaluza emoten dok, horrekin zizipaziorrekin*

**zoldu** ‘zoldu; zornatu’: *zaurixa zoldu egin jata*

**zorabixo, -ua** ‘zorabioa’. *Sin. ondoez*

**zoratu** ‘zoratu; erotu’ (NOR zein NOR-NORI erara jokatzen da): *hainbeste ikasi biharrekin, azkenian zoratu egin jako*

**zori(x)oneko, -ua** ‘zorionekoa; *gazt.* dichoso’: *zorixoneko eurua dala eta ez dala, badabil jua dan aspaldixan zaparradia! Sin. dontsu*

**zorne, -ia** ‘zornea’. *Sin. materixa, pasmo*

**zoro, -ua** ‘zoroa; eroa’

**zoroetxe, -ia** ‘zoroetxea; eroetxea’: *txarto jaguan, eta Santa Agedako zoroetxera eruan juen*

**zoro haixe, -ia** ‘zoro haizea; zoro usaina’

**zorribiztu, -a** ‘zorribiztua; *gazt.* piojo resucitado’: *zorribiztua danez, harrua be badok. Sin. aberats barri*

**zuldar, -a. Ik. zaldar**

**zurda, -ia** 'zurda; zuhaitzetan-eta egiten den izotza'. *Ald. zurdai. Sin. antzigar, lantxurda*

**zurdai, -xa.** lk. **zurda**

**zuri, -xa** 'zuria'. 1. kolorea, 2. alferra, 3. faltsua: *horrekin ez jaukat bape konfiantzarik, zurixa dok eta. Esap. zurikerixetan ibilli*

**zurittu** 'zuritu' 1. zuriz koloretu, 2. azala kendu: *zigorra jakin najuanian, aurpegixa be zurittu egin jatan / ordubete jaroiat patata zuritzen*

**zurrunga, -ia** 'zurrunga': *atzo majo edango heuan, ezta? Bart, behintzat, lehoi baten pare egin dok zurrunga. Sin. lokorros*

**zutunik** 'zutunik; zutik'. *Sin. tente*

**zuzendu** 'zuzendu' 1. arteztu, 2. lortu. *Sin. jirau: nundik edo handik motortxo bat zuzendu bihar juat oporretarako*

**zuztar, -a** 'zuztarra; erroa'. *Sin. sustrai*

## 7. UME BERBETIA

### OHARRAK

Hizkuntziak sendo eta osasuntsu irauteko, oiñarri-oiñarrizkua da transmisiñua, eta hori dala-eta, pertsoniaren bizitzako hasierako unetik bertatik zaindu bihar da hori alderdixori. Horrexegatik begittandu jaku ume berbetiak be bere lekua izan bihar ebala liburu honetan.

Geure inguruan bizirik dagozen berba batzuk ekarri dittugu hona, baiña berbak erakustiarekin batera, ume berbetiaren gaiñian ohar bat edo beste egin nahi dittugu.

Ezaugarri jakin batzuk dittue ume berbak:

1. Laburrak dira, pentsatzekua danez.
2. Esateko errazak dira, eta hori be begibistakua da. Gehixenbat, kontsonante eta bokala dira osagaixak. Nekez aurkittuko dittugu kontsonante bi jarraixan, salbuespenen bat edo beste gorabehera: *txipli-txapla*, *plausta*, esate baterako. Adibide bixetan, hain zuzen,

- *pl-* da kontsonante multzua.

3. Gehixen erabiltzen diran kontsonantiak *p*, *t*, *k*, *tx* eta *m* dira. Urrixago agertzen dira *n* eta *l*. Bokalak, ostera, danak erabiltzen dira, nahiz eta *a* eta *i* diran bostetan ugarixenak.
4. Sarrittan errepikatzen da silaba berbera: *lolo*, *pipi*, *pupu*, *mama*, *txatxa*, esate baterako.
5. Onomatopeiak be badauka bere lekua: *punba* eta *plausta*, 'jausi' esateko, *purrut*, 'uzkerra' esateko, *tas-tas*, 'jo' esateko, *uau-uau*, 'txakurra' esateko, eta abar.
6. Berbak artikulatu barik erabiltzen dira ixa beti.



Honetxek dira gure alderdiko ume berbetiaren ezaugarri nagusixak, eta, jakiña, kontuan izan bihar gendukez berba barrixak sortzeko orduan.

## A

**agur-agur esan.** Agurtzeko esaten da: *ia, esan agur-agur danei*

**aida-aida** 'behia': *han, ikusi, aida-aida dator*

**andi-andi juan.** Etxetik irteten denean esaten da. *Sin. apapa juan*

**apapa juan.** Etxetik irteten denean esaten da: *goazen apapa! Sin. andi-andi juan*

**apatx egin** 'jarri; jesarri': *ia apatx egin hamen, eta nanan egingo dozu*

**arre-arre ibilli.** Zaldi edo asto gainean ibili

**aupa-aupa.** Umea besoetan hartzerakoan esaten da: *etorri, aup-aupa eruango zaittut neuk*

## B

**bapo!** Jatekoa amaitu ondoren esaten da

**bekeke.** Bildots, ardi eta ahuntzak deitzen dira horrela

**bili-bili** 'ahatea': *han, ikusi bili-bili uretan*

**burrun-burrin.** Tren, automobil edo edozein motor zarata adierazteko erabiltzen da

## D

**dilin-dalan.** 1. sehaskari eragin, 2. kanpaia, 3. ziburua

## E

**et!** Zer edo zer debekatzeko esaten da. Errepikatu egiten da sarritan: **et, et, et** (Nagusien jardunean ere erabiltzen da)

## F

**fu!** Suak edo jateko beroak ez erretzeko esaten da

## G

**guau-guau.** lk. **uau-uau**

## H

**hotx!** Hotza den gauzaren batekin kontu izateko esaten da

## K

**kaka** 'zikinkeria': *ez ikutu hori, kaka da eta!*

**kiki.** Norbera ezkutatuta dagoela, egiten den deia. *Sin. kui, kuku*

**koko** 1. txokolatea. *Sin. kokole*, 2. umeak beldurtzeko aipatzen den izakia. *Sin. kokomarru, mamarrua, momo, momorrua*

**kokole** 'txokolatea'. *Sin. koko*

**kokomarru.** Umeak beldurtzeko aipatzen den izakia. *Sin. koko, mamarrua, momo, momorrua*

**kui.** Norbera ezkutatuta dagoela, egiten den deia. *Sin. kiki, kuku*

**kuku.** Norbera ezkutatuta dagoela, egiten den deia. *Sin. kiki, kui*

**kuttuna.** Maitasun hitza. *Sin. kuttuntxua, laztana, ponpontxua*

**kuttuntxua.** Maitasun hitza. *Sin. kuttuna, laztana, ponpontxua*

## L

**lasztana.** Maitasun hitza: *egizu lolo, laztana!* *Sin. kuttuna, kuttuntxua, ponpontxua*  
**lolo egin** 'lo egin'

## M

**ma.** lk. **pa**

**mañak egin** 'gezurrezko negarra egin': *ez mañarik egin, dana jan bihar dozu eta!*

**mama** 'ura'

**mamarrua.** Umeak beldurtzeko aipatzen den izakia. *Ald.*

**momorrua.** *Sin. koko, kokomarru, momo*

**mamelo** 'karameloa': *autsi mamelo, maittia*

**matxo.** lk. **pa**

**mitxina** 'katua'

**momo.** Umeak beldurtzeko aipatzen den izakia. *Sin. koko, kokomarru, mamarrua, momorrua*

**momorrua.** lk. **mamarrua**

## N

**nanan** 'jan': *egin apatx hamen, nanan egittek*

**nene** 'esnea'

## 8. ESAPIDIAK

### OHARRAK

Esaldi egiñak dira esapidiak. Gure alderdixan erabiltzen diran batzuk ekarri dittugu hona, Deba ibarreko euskaldunendako ez eze, beste alderdi batzuetakuendako be aberasgarri eta jakingarri izan daittezen.

Aurreko ataletan bezala, esapidiaren azalpena, edo gaiñerako euskaldunendako ezagunagua dan ordaiña ipiñi dogu aldamenian, eta adibideren bat jarraixan. Erderazko ordaiña be ipiñi dogu iñoiz.

Gauza berbera adierazteko esapide bat baiño gehixago dagoenian, *sin.* (sinonimua) laburduria erabilli dogu, eta argibidiak eta adibidiak behin bakarrik ipiñi dittugu: zabalduenaren edo berezixenaren ondoren, gehixenbat.

Esapidiak lagunarteko jardunekuak diranian, *lag.* laburduria erabilli dogu.

## A

**adar soñuan ibilli** 'txantxetan ibili; gazt. de cachondeo': *hori bertsolarixori adar soñuan ibiltzen don sarri. Sin. adarra jo, fiestan ibilli, harpia jo*

**adarkadia jaurti** 'ziria sartu': *serixo itxuria jaukan, baiña adarkada galantak jaurtitzen be bajakin*

**adarra jo** 'inoren kontura barre egin': *kontuz horrekin, ez egixozu adarrik jo, benetalarixa da eta. (Baztertzekoa erdaratik euskaratutako ulia hartu). Sin. adar soñuan ibilli, fiestan ibilli, harpia jo*

**aditza + biharra** 'zer edo zer egiteko grina': *zapatuan, Corte Inglesian izan gintzuzanan, eta, ha zunan ha, jentian erosi biharra! / buffeta jaukan hotelian, eta batzuen jan biharrak ez jaukan azkenik*

**adurra darixola egon** 'txundituta, beste ezertaz jabetzen ez dela': *hor jagok arratsalde osuan telebisiñuari begira, adurra darixola*

**afari / bazkari legia egin.** Jatordu arin samarra egiten denean esan ohi da: *egin dogu avari legia, eta ohera juateko moduan gagoz*

**ahobete hagiñekin laga** 'zeharo harrituta utzi': *Florenzian, Migel Angelen 'David' eskulturiak ahobete hagiñekin laga ninduan. Sin. zur eta lur geldittu*

**ahobizarra euki** (*lag*) 'aje ondorioak izan; gazt. tener la

*boca pastosa': naranjak jaten jiharduk, ahobizarra kentze aldera*

**ahopian berba egin** 'inork ezin entzuteko moduan jardun': *beti jihardun marmar baten danen kontra, baiña gauzak argiro esan biharran, ahopian berba egitten jon*

**ahotan hartu** 'berbetarako gaitzat hartu': *kazetari guztixak hartu juek ahotan Errealeko entrenatzailliak atzo esandakua*

**ahozabalik egon** 'liluratuta egon': *Iparraldeko ipuin kontalari bat etorri zuan atzo, eta ahozabalik egon gintzuzan danok berari entzuten*

**ahozabalka egon** 'aharrausika egon': *berbaldixa ez don, itxuria, interes haundikua, ahozabalka jagozan danak eta*

**ahua neurri** 'nahi adina, neurririk gabe, exageratua': *aurtengo Gabonetan angulen prezia, ahua neurri*

**aidian egin** (*lag*) 'berehalako batean egin': *eskolako biharrak aidian egitten dittu, kalekuak nekez. Sin. hegatzada baten egin / juan*

**aiko-maikueta ibilli** 'aitzakiak aurkitzen ahalegindu': *hara, ez hadi aiko-maikuekin etorri: errua heuria dok, eta kitto!*

**aintzakotzat hartu** 'kontuan hartu': *laguntze aldera geure burua eskaiñi, eta aintzakotzat be ez gaittu hartu, harroputz halakuak*

**aitzen emon** ‘zer edo zeren gainean argibideak eman; *gazt.* avisar, advertir’: *aldez aurretik aitzen emon jeustan zelako ugazaba zittala zan. Sin. jakiñaren gaiñian ipiñi*

**ajia euki.** *Sin. bixamona euki, ostia euki*

**albo kargia euki** (*lag*) ‘mozkortuta, ezin zuzen ibili’: *eskerrak andria aldamenian daroiana, bestela horren albo kargiakin laster joko juan behia*

**alde egin** ‘ihesi joan’: *hango ganoria ikusitta, alde egin genduan. Sin. hanka egin, ospa egin*

**aldez aurretik** ‘aurretiaz; *gazt.* de antemano’: *medikuangana juateko, aldez aurretik eskatu bihar dok txandia*

**aldi oneko / txarreko egon** ‘umore oneko edo txarreko egon’: *aldi oneko dagoela jirudik, eta berakin berba egittera juango gaittuk*

**aldian euki / eruan** ‘zer edo zer norberarekin eraman; *gazt.* llevar encima’: *kafia eta kopia hartuta gero konturatu naiz ez neukala dirurik aldian. Sin. soiñian euki / eruan*

**aldikona izan** (Dg). *Sin. aldixak izan*

**aldixak izan.** Aldakorrak direnez esaten da: *aldixak izaten dittu horrek, eta jenixo txarraz dagoenian, gaiztua da benetan. Sin. aldikona izan*

**alkar hartu** ‘bat egin, ondo konpondu; *gazt.* ser tal para cual’: *horrek bixok ondo alkar hartzen juek, eta bixen artian egitten juek biharra. Sin. bata bestiarekin uztartzeko modukuak izan, herri batekuak izan*

**alperrik galdu** ‘hondatu, usteldu; *gazt.* echarse a perder’: *okelia laster jaten ez badogu, alperrik galduko jaku*

**alperrik izan.** Ahalegin guztiek ezertarako ere ez dutela balio adierazten du; *gazt.* ser en balde: *egin juek, ba, makiña bat ahalegin seme gaztia droga girotik ataratziarren, baiña dana alperrik*

**arazua hartu** ‘zeregin txarra hartu’: *aitta gaixorik egon zanian, berak hartu juan ortuaz arduratzeko arazua. Sin. biharlekua hartu*

**argi ibilli** ‘kontuz ibili; *gazt.* andarse con ojo’: *argi ibilli hadi egitten duanarekin!*

**arnasa baten edan** ‘zurru bakarrean edan; *gazt.* de un trago’: *arnasa baten edan juat garagardo basokadia, freskua eta edarra jaguan eta*

**arrantza baten jardun** ‘negarrez gogor ekin’: *umiak arrantza baten jardun dau goiz osuan*

**arrapaik/n hori!** (*lag*). *Sin. heldu egixok/n horri!*

**arrapataka + aditza** ‘prisaka, itsututa ibili’: *txirriña entzun najuanian, arrapataka baten*

astegun buruzurixa izan

*gorde najittuan aldizkari pornuak,  
badaezpada be*

**ase eta bete** ‘bete arte jan eta edan’: *oso ederra gaurko bazkarixa: ase eta bete egin naiz. Sin. ok egin*

**asko izan** ‘ezustekoa gertatu’: *asko dok ba! Laurok ekarri juagu txanpana, eta iñork be ez ardaua. Sin. hau da hau!, haundixa izan, markia izan*

**astegun buruzurixa izan.** Egun arrunt-arrunta dela esateko: *astegun buruzurixa, eta goixeko hamarretan kalian?*

**asto biharrak / lanak egin.** Lan gogorak eta ordain txikikoak egin; *gazt. hacer el trabajo negro: makiña bat asto bihar egindakuak gaittuk geure gazte denporan!*

**aterik aiña maratilla euki** ‘edozertarako erantzuna edo aitzakia izan’: *alperrik dok horrekin errezoiak erabiltzia, aterik aiña maratilla jaukak eta*

**atzera mardo egin (lag).** Tabernetan-eta, ordaintzeko orduan atzean geratu. *Sin. beliarena egin, keiarena egin*

**atzian gelditzekua ez izan** ‘lotsatia eta koldarra ez izan’: *ez izan horren ardurarik, atzian gelditzekua ez da eta*

**aurre egin.** *Sin. hagiñak erakutsi*  
**aurrekalde ona egin** ‘berba onekin engainatu’: *amari aurrekalde ona egin, eta lortu dau baietza esatia*

**auskalo! (lag).** *Sin. batek jakin!*

**azak emon.** Maitasun hartu-eman eske datorrenari ezetza esan: *familixa aberatsekua, politta eta listua zala mutilla baiña, azak emon jeutsazan Itziarrek. Ik. kale emon*

**aziaren barreneko orrixa ez izan.** *Sin. bapeza ez izan*

**azken baten.** Ondorioaren bat erakuste aldera esan ohi den esapidea; *gazt. en definitiva: oso karu urten jeutsek jua-  
etorrixa, baiña, azken baten, haraxe juatia zuan euren ametsa*

**azpijanian ibilli.** Talde edo elkarte baten jarduna hondatzearen, barrutik isileko lana egin: *Alderdi barruan azpijanian ibilli, eta Alderdixa zatitzia lortu jua horrek*

**B**

“**bai-bai**” **jentia izan**. Agindutako edozer gauza egiteko prest dagoena, agintariarekin ondo gelditzearren (zentzu txarra dauka): *horrek irakasliorrek “bai-bai” jentia dau gogoko*

**bai, zera!** Zer edo zer gezurra dela esateko; *gazt. ¡qué va!, ¡ni por el forro!: nik egin dotela hori? Bai, zera!* lk. **ez, zera!** *Sin. ezta hurrik emon be!, iñundik iñora be ez!*

“**baiña**” **bakua izan** ‘aitzakiarik gabekoa izan, zuzena’: *“baiña” bako neskia dozu, gero, hori!* *Sin. barriketa bakua izan*

**baitta zera be!** ‘exagerazioa dela adierazteko’: *hotz haundixa egitten jok, eta jantzi egik jertse lodixa, abrigua, eta arkondariaren azpittik ipiñi egik kamisetia. —Baitta zera be!* *Sin. txakurraren putza!*

**baltza izan** ‘gogorra izan’: *baltza dok, gero, horren kontua: etxia ordaindu barik, eta lantegittik bota!*

**banenguan, ba, ni!** ‘ustea izan; *gazt. ya decía yo’:* *banenguan ba ni, hori neskiori nundik edo handik ezagutzen nebala*

**bapeza ez izan** ‘norbait izan, nortasuna eduki’: *kontuz horrekin, hori berori be ez dok bapeza eta!* *Sin. aziaren barreneko orrixa ez izan*

**bariak heldu.** *Sin. bariak oratu*

**bariak oratu.** Arineketan joan, eta

barean mina izaterakoan esaten da: *Elgoibarko krosa irabazteko faboritua zuan baiña, bariak oratu, eta ariñeketari laga egin bihar izan jeutsan.* *Sin. bariak heldu*

**barra-barra** ‘ugari, neurri gabe; *gazt. a punta pala’:* *edarixa eta jana, barra-barra ekarri eben mahaira.* lk. **firri-farra**

**barriketa bakua izan.** *Sin. “baiña” bakua izan*

**barriketa gitxikua izan** ‘serioa eta lehorra izan’: *kopla barik ibilli horrekin, barriketa gitxikua dok eta.* *Sin. benetalarixa izan*

**barriketan jardun** ‘kontu kontari egon; *gazt. estar de palique’:* *arratsalde osuan berriketan jardun juagu, eta konturatu orduko, dendak itxi*

**bat bihar eta bera be ez.** *Sin. bat esanda bera be ez*

**bat esanda bera be ez.** Ezereza indartzeko esan ohi da: *perretxiku mordua jaguan, baiña bat esanda bera be ez ona.* *Sin. bat bihar eta bera be ez*

**bata bestiarekin uztartzeko modukuak izan.** Lagun bi oso antzekoak direnean esaten da; *gazt. ser tal para cual: ez horren bixon ardurarik izan, bata bestiarekin uztartzeko modukuak dira eta.* *Sin. alkar hartu, herri batekuak izan*

**batek jakin!** Ziurtasun eza erakusteko esan ohi da: *batek jakin noizko amaittuko dan*

*Maltzaga-Urbina bidia!* Sin. **auskalo!**

**baztarrak nahastu** ‘gauzak hankaz gora ipini’: *hobeto al bait urriñen bajagok gogaikarriori, baztarrak nahastau baiño ez jittuk egitten eta*

**baztarrik andar ibilli** (*lag*). Sin. **firin-faran ibilli**

**begibistakua izan.** Sin. **ezagun izan, igarri-igarrixan egon**

**begikua izan** ‘gogokoa izan’: *oso begikua juat lñaki, zintzua eta jatorra dok eta*

**begittan hartu** ‘gorrotoa hartu; *gazt. coger manía*’: *honekin maixuonekin alperrik juat ikastia, begittan hartu najok eta*

**begittu bat emon** ‘gauza bat nola dagoen ikusi; *gazt. echar un vistazo*’: *emoixok lapikuari begittu bat, eta ikusi ia irakitten hasi dan*

**begittu baten.** Ik. **ikusi batera**

**begixa bete** ‘ikusitakoa gogoko izan’: *maillukixak begixa bete, eta kilo bat erosi juat*

**begixa jo** ‘pertsoneko edo gauzaren bat aukeratu’: *begixa jota jaukat horixe arkondariori, merkealdixak hasten diranerako*

**behia jo** ‘behera etorri, hondatu’: *istripua euki ebanetik, zihero behia jota dago*

**bekoki baltza ipiñi** ‘haserre aurpegia ipini’: *ez, gero, bekoki baltzik niri ipiñi, ez daukazu errezoirik eta!* Sin. **betozkua ipiñi**

**belarrixak makurtu** ‘baten bat apaldu eta isilarazi’: *kukurruku baten etorri zuan, baiña, azkenian, belarrixak ondo makurtuta juan zuan*

**beliarena egin** (*lag*) ‘desagertu (zentzu txarra dauka)’: *ordaintzia danian, beliarena egitten jok beti.* Sin. **atzera mardo egin, keiarena egin**

**benetalarixa izan** ‘gauza denak benetan hartu’: *ez jagok horrekin adar soiñuan ibiltzerik, benetalarixa dok eta.* Sin. **barriketa gitxikua izan**

**berakatzatza baiño fiñagua izan** ‘zintzoa eta zuzena izan’: *ez egik horrekin ardurarik izan, berakatzatza baiño fiñagua dok eta*

**berbakizuna ipiñi / emon** ‘hizpidea eman’: *errege-erregiñen ezkontziaren kontu horrek berbakizuna, behintzat, ipiñi dau.* Sin. **berbalekua ipiñi / emon, jarduna ipiñi / emon, zeresana emon**

**berbakua izan** ‘agindutakoa bete’: *politikan ibilli arren, berbako andria dok hori*

**berbalekua ipiñi / emon.** Sin. **berbakizuna ipiñi / emon, jarduna ipiñi / emon, zeresana emon**

**berban-berban** ‘sarri esan zer edo zer’: *berban-berban esaten jok guzurra.* Beste hitz batzuk errepikatuaz ere erabiltzen da egitura hau, NON kasuan beti: *etxian-etxian dagok Eibarren*



- eskopetia; lekuan-lekuan ikusten genduazen basurde arrastuak*
- berbia etorri** 'bere onera etorri': *jausi eta golpe gogorra hartu dau, baiña etorri jako berbia*
- berbia jan** 'agindutakoa bete ez': *lau urteko kontratua egin genduan, baiña berbia jan jok enpresiak*
- berbia kendu** 'isilarazi': *hitzaldi ostian berbetan eguala, berbia kendu jeutsan mahaiburuak*
- (bere) baten bizi** 'lasai, eroso, bakean bizi'. Edozein izenordain erabil daiteke: *neure baten, geure baten...: ez jok askorik irabazten, baiña bere baten bizi dok*
- bero-bero egin** 'jipoitu': *harro usaiñekin etorri zuan, eta bero-bero eginda bialdu juen etxera. Sin. egurra emon, lepua berotu, makilla saldia emon, pasadia emon, zopa saldia emon*
- bertako egin** 'etxekotu, leku batera egokitu; gazt. integrarse': *bertako eginda dagok hori, berbetia be Elgoibarkua jakak eta*
- bertan behera itxi / laga** 'zeharo utzi; gazt. abandonar': *familixia eta gauza danak bertan behera itxi, eta alde egin juan lantegixan oostutako diruekin*
- bertan Bilbo** 'gazt. hablando de Roma...': *Felipe ez duala ikusi, diñok? Hor, ba, bertan Bilbo*
- beruarena kendu** 'bero-beroan esandakoaren alderdi exageratua kendu': *euskeria dala mundu zabaleko berbetarik zaharrena? Bai zera! Beruarena kendu biharko jakok horri*
- besterik ezian** 'besterik ezean; gazt. si no hay más remedio': *besterik ezian, datorrela Ander*
- bete-betian** 'zeharo, oso-osoan': *bete-betian asmau dok zer gertau dan. Sin. goittik behera*
- betozkua ipiñi** 'haserre aurpegia eduki': *betozkuakin jabin, eta, badaezpada, bakian ixtia hoba. Sin. bekoki baltza ipiñi*
- bide batez** 'gauza bi aldi berean egin; gazt. de paso': *juan hadi arraindegira eta, bide batez, dozena bat arrautza be ekarri*
- biharlekua hartu. Sin. arazua hartu**
- biharrian urkatu** 'lan gehiegi egin; gazt. matarse trabajando'. Ezezko esaldietan erabiltzen da sarri, zentzu ironikoarekin: *ez izan horren errukirik, biharrian ez don urkatuko eta*
- bittarte bat hartu** 'zer edo zer egiteko astia hartu': *arratsaldian, bittarte bat hartu, eta josiko deuat botoia*
- bixamona euki.** Jai eta parranda ondorengo egunean izan ohi den gorputzaldi txarra: *gripia? Bai, zera! Bixamona jaukak horrek galanta! Sin. ajia euki, ostia euki*
- bizkarra jaso** 'jaramonik ez egin': *bizkarra jaso, eta ezer esan*

*barik alde egin junan. Sin. bizkarraundi egin, lepua jaso bizkarraundi egin. Sin. bizkarra jaso, lepua jaso*

**bolo-bolo ibilli** ‘denen hizketagai izan’: *jakingo ez juat, ba, bolo-bolo jabik eta? Sin. danen ahotan ibilli*

**bost ardura** ‘axolarik ez izan, inportantziarik ez eman; *gazt. importar un comino*’: *bost ardura jeustak niri horrek esaten dabena*

**buru bat egin (norbaitekin)** ‘baten batekin berdindu (zentzu txarra dauka)’: *zer ganora da zuria, umiakin buru bat eginda zabiz eta!*

**burua berotu** 1. ‘haserretu eragin; *gazt. calentar los cascós*’, 2. ‘adorea eman’. *Sin. haixia emon: ez egidazu holakorik aittatu be egin, burua berotzen deustazu eta / alkate aurkezteko burua berotu jeutsen lagunak*

**burua erakutsi** ‘nabarmendu nahia izan’: *jakinguria dabelako barik, bere burua erakustiarren egitten jittun galderak horrek*

**burua galdu** 1. ‘zoratu’. *Sin. burua juan, burutik egin*, 2. ‘harrokeriaz puztu’, 3. ‘senetik irten; *gazt. perder los papeles*’. *Sin. harixa ixo, onetik urten, txorittik urten: loterixiakin aberastu zanetik, zihero burua galduta dabil*

**burua jaso** ‘adorea hartu’: *aspaldi honetan burua jaso eziñik najabin*

**burua juan. Sin. burua galdu, burutik egin**

**buruan hartu** ‘gogoan hartu’: *hartu egik ondo buruan esango deudana*

**burutik egin** ‘zoratu’. *Sin. burua galdu, burua juan*

**dana biharrian ibilli** ‘ozta-ozta, nola edo hala ibili’: *zelan habil, ba? —Dana biharrian. Sin. guztia biharrian ibilli*

**D**

**dana dala** ‘dena dela’ (Deba ibarrean arrotza da *dena den*): *juan hadi nahi badok, baiña, dana dala, alperrik izango dok*

**danari emonda ibilli** ‘era guztietako gehiegikeriak egin’: *burua galdu jon, eta danari emonda jabin. Sin. edozeri emonda ibilli*

**danen ahotan ibilli.** *Sin. bolobolo ibilli*

**danen barregarri agertu** ‘gazt. hacer el ridículo’: *danen barregarri agertu gintzuazen geure erropa zaharrakin*

**daukanari darixo.** Zer edo zer daukanak ezagun izaten duela esan nahi du: *kriston BMWia erosi dau aldamenekuak. —Bai, ba, daukanari darixo*

**demandia ipiñi.** *Sin. drogia ipiñi / atara*

**demasak + aditza.** *Sin. demasekuak, diranak eta ez diranak, egundokuak, iñun diranak, kristonak, sekulakuak + aditza*

**demasekuak + aditza.** *Sin. demasak, diranak eta ez diranak, egundokuak, iñun diranak, kristonak, sekulakuak + aditza*

**diranak eta ez diranak + aditza.** *Sin. demasak, demasekuak, egundokuak, iñun diranak, kristonak, sekulakuak + aditza*

**drogia ipiñi / atara** ‘haserrea eta burruka sortu’: *horrek, apurren*

*bat edaten dabenian, drogia ipiñi besterik ez jon egitten. Sin.*

**demandia ipiñi**

**duangua izan** ‘inoren kontura, doan dabilena; gazt. gorrón’. *Sin. iñoren lepotik ibilli, jan txakurra izan*

## E

**ederra egin** ‘zer edo zer izorratu edo hondatu’: *ederra egin dok, ikusiko dok amak jakitten dabenian!*

**ederra sakatu** ‘ziria ondo sartu’: *ederra sakatu jeustak Mitxelek: loterixia tokau jakula geuri bixoi*

**edozeri emonda ibilli**. *Sin. danari emonda ibilli*

**egin ahalakuak egin** ‘sekulakoak egin’: *egin ahalakuak egin arren, ez genduen ezer lortu*

**egin egitte aldera** ‘arrazoi handirik gabe egin; *gazt.* hacer por hacer’. Edozein aditzekin osa daiteke esapidea, partizipioa lehenengo, eta aditz izena gero, ipiniaz: *ondo pentsau eta gero esan, ez esan esate aldera / botatze aldera bota juan harrixa, eta gizonezko bat jo juan bekoki erdi-erdixan*

**egittada bat egin** 1. ‘gauza handiren bat egin, balentria bat’, 2. ‘xelebrekeriaren bat egin’. *Sin. egittekoren bat egin*

**egittekoren bat egin** ‘okerkeria edo aldrebeskeriaren bat egin’: *oraintxe be egingo eban horrek egittekoren bat, ariñeketan ihesi doia eta. Sin. egittada bat egin*

**eguna zabaldu** ‘goizean eguna argitu’: *ez hadi hainbeste arduratu eta juan hadi ohera, bixar be eguna zabalduko jok eta*

**egundokuak + aditza**. *Sin. demasak, demasekuak, diranak eta ez diranak, iñun*

**diranak, kristonak, sekulakuak + aditza**

**egurra emon** (*lag*) ‘gogor jo; *gazt.* dar caña’: *ertzaiñak furgonetatik jaistiaz batera, egurra emoten hasi zittuan. Sin. bero-bero egin, lepua berotu, makilla saldia emon, pasadia emon, zopa saldia emon*

**eguzkixak pasau** ‘eguzki gehiegi hartu; *gazt.* sufrir una insolación’: *mendixan izan, eta eguzkixak pasauta najatok*

**Elorrixo ikusi** (*lag*). *Sin. gorrixak ikusi*

**Elorrixoko iturrixan ura edandakua izan** (*lag*).

Kaskarinez esan ohi da

**ene!** *Sin. ene ba!, ezta izango!*

**ene ba!** *Sin. ene!, ezta izango!*

**epela izan** ‘odolik ez izan’: *epel hutsa dok hori: kaka burutik behera egin arren be, ez jok ezer esango. Ald. txepela izan. Sin. ez gatz ez berakatz izan, ez ur ez ardau izan, ez ur ez salda izan, odolbakua izan*

**eruan onekua / txarrekua izan** ‘pazientzia handia / txikia izan’: *horrekin gizonorrekin bizi izateko, horraittio, eruan onekua izan bihar*

**esanak bete** ‘agindutakoa bete’: *beti esaten deuat esanak betetzeko dirala*

**esaneakua izan** ‘agindutakoa zintzo betetzen duena’: *ez horrekin arduratu, esaneko neskia dozu eta*

**eskua emon.** Lantegi baten-edo, ugazabak mendekoekin ardurak banatu: *oso neska argixa dok, eta ugazabak eskua emon jeutsak gauzak bere erara egin daixezan*

**esku onekua izan** ‘zer edo zertarako balio; gazt. ser un(a) manitas’: *oso esku onekua don gaixuekin eta adiñeko personekin*

**eskuzabala izan** ‘bihotz onekoa’: *oso eskuzabala zan lban: eukan dana emoten eban*

**estu hartu** ‘egoera zailean ipini; gazt. poner en un aprieto’: *estu hartu ninduan, eta, azkenian, gauzia zan moduan esan najeutsan*

**...eta bi.** Esandakoa indartzeko gehitzen da, esate baterako, *kristonak eta bi esan. Sin. ...eta bost*

**...eta bost.** *Sin. ...eta bi*

**etxekalte izan.** Dirua firri-farra gastatzen duenaz esan ohi da: *pelotia dala, idi probak dirala, beti jokuan, etxekalte hori*

**etxekoz etxeko egin** ‘etxekoen artean egin zer edo zer’: *etxekoz etxeko egin juek bidia*

**etxia jan** ‘hondamendia ekarri etxera’: *posturarik postura ibiltzen zan, eta, azkenian, etxia jan. lk. lantegixa jan*

**etxia jaso** ‘etxeko garbitasunak egin’: *lehenengo etxia jaso, eta gero plazara juango naiz*

**eukixan jaikixa.** Dirua dutelako-

edo, euren burua besteen gainetik ikusten dutenak: *hori be badon, ba, eukixan jaikixa: bera dala danak baiño gehixago uste jon*

**euli zurixa baiño raruagua izan.**

Pertsona bereziaz esan ohi da; gazt. ser un perro verde: *lagaixok horri bake-bakian, euli zurixa baiño raruagua dok eta*

**ez dakizu asko!** ‘gazt. no sabes bien!': *ez dakik asko zelan bizi diran andrazkuak arabien artian!*

**ez gatz ez berakatz izan.** *Sin. epela izan, ez ur ez ardau izan, ez ur ez salda izan, odolbakua izan*

**ez ur ez ardau izan.** *Sin. epela izan, ez gatz ez berakatz izan, ez ur ez salda izan, odolbakua izan*

**ez ur ez salda izan.** *Sin. epela izan, ez gatz ez berakatz izan, ez ur ez ardau izan, odolbakua izan*

**ez, zera!** Besteak esan duenaren aurkakoa indartzeko: *ezin dotela nik hori egin? Ez, zera! lk. bai, zera!*

**ezagun izan** ‘erraz asmatzen dena’ (ez dira nahastu behar *ezagun izan eta ezaguna izan*): *ezagun dok, bai, eskiatzen izan haizena. Nundik, bestela, hori koloriori? Sin. begibistakua izan, igarri-igarrixan egon*

**ezta hurrik emon be!** ‘pentsatu ere ez; gazt. ¡qué va!, ¡ni por el forro!': *Rominger Indurain*

*besteko ona izan zala? Bai, zera!*  
*Ezta hurrik emon be! Sin. bai*  
**zera!, iñundik iñora be ez!**  
**ezta izango!** Harridura erakusteko  
erabili ohi da: *Osasunak 5-0*  
*irabazi deutsa Real Madrilli.* —  
*Ezta izango! Sin. ene!, ene ba!*

## F

**fiestan ibilli** (*lag*) ‘txantxetan ibili’.

*Sin. adar soiñuan ibilli, adarra*  
**jo, harpia jo**

**firin-faran ibilli** ‘batetik bestera,  
denpora emate aldera ibili’: *ez*  
*dok, ez, etxian harrapauko; beti*  
*jabik firin-faran.* *Sin. baztarrik*  
**andar ibilli**

**firri-farra** ‘neurri gabe’: *San*  
*Fermiñetan, han ibilli giñan firri-*  
*farra, diru guztixak amaittu arte.*  
lk. **barra-barra**

## G

**Gabonetan keixak.** Ordainik izango ez duten mesedeez esaten da, gure alderdian Gabonetan ez dago gerezirik eta.

– Amak: *ekarridazu dendatik azukeria.* – Alabak: *Eta zer emongo dostazu?* – Amak: *Gabonetan keixak*

**gain hartu** ‘zer edo zerk norbera gainditu; *gazt.* desbordar’: *saltsa askotxotan sartuta eguan, eta, azkenian, lanak gain hartu deutsa.* lk. **gaiña hartu**

**gaiña hartu** ‘tontorrera iritsi’: *goixaldeko bostak aldera hartu juen Everesteko gaiña.* lk. **gain hartu**

**gaiñegurra emon** (*lag*) ‘*gazt.* poner a caldo’: *alde egin orduko, sekulako gaiñegurra emon jeutsagu*

**gaiñezka egin** ‘bere onetik irten; *gazt.* desbordarse’: *gaiñezka egin dau errekiak / jentia oso hasarre eguan, eta, azkenian, gaiñezka egin dau egoeriak*

**galbahian pasau** ‘galbahetik iragan, biribildu, zehaztu; *gazt.* pasar por el filtro, por el aro’: *horrek zure asmuok galbahian pasau bihar dira, ondiño be ez dagoz oso argi eta*

**garboztua bihar** (*lag*) ‘*gazt.* necesitar un hervor’. Sin. **irakiñalditxo bat bihar**

**gauza izan** ‘zer edo zertarako ahalmena eduki; *gazt.* ser capaz’: *ezkerreko eskuaz ez non*

*ezer egitteko gauza*

**gehixagoko barik.** Gauzak azalpen nahikorik eman gabe egiten direnean esaten da; *gazt.* sin más: *ezin dozu gehixagoko barik alde egin*

**gibelak euki** (*lag*). Sin. **gibelaundixa izan**

**gibelaundixa izan** (*lag*) ‘lasaiegia izan’: *lauretako trena hartu bihar, eta ondiño ohian? Hi haiz, hi, gibelaundixa!* Sin. **gibelak euki**

**giro ez izan.** Egoera atsegina ez denean esan ohi da: *hemen ez dok giro, danak jagozak bata bestiakin hasarre eta*

**goittik behera.** Sin. **bete-betian goixetik gabera** ‘une batetik bestera; *gazt.* de la noche a la mañana’: *goixetik gabera aldatu juan iritzixa*

**gorraixia euki** ‘gor samarra izan’. Zentzu ironikoan, ezentzun egin; *gazt.* hacerse el longuis: *zer, gorraixia daukak, ala? Ez dok entzun harrikua heuk egin bihar duala?*

**gorri egon / euki** ‘ezer gabe egon, hutsik’: *ordaindu egik heuk, poltsikua gorri jaukak eta / Naparruako Bardea aldiak gorri jagozak*

**gorrixak ikusi** ‘egoera larrian egon’: *gorrixak ikusi genduazen Gorbeixan, dana laiñua eta dana edurra, eta piperrik be ez genduan ikusten eta.* Sin.

**Elorrixo ikusi**

**guztia biharian ibilli.** Sin. **dana**

**biharrian ibilli**

**H**

**hagiñak bardinduta euki.** Ume ez direnak engainatzen zaila dela esan nahi du: *ez dok horrekin heuk nahi duan guztixa erraz egingo, hagiñak ondo bardinduta jaukazak eta. Sin. zilla osatuta euki*

**hagiñak erakutsi** 'haserretuta, norbaiti aurre egin': *gizajua zalakuan, baiña gaur ederto erakutsi jeutsazak hagiñak ugazabari. Sin. aurre egin*

**haixatuta ibilli.** *Sin. haixia erabilli, haixiakin ibilli*

**haixia emon** 'adorea eman': *lehen don hori harro samarra, eta emoixon, gaiñera, haixia. Sin. burua berotu*

**haixia erabilli.** *Sin. haixatuta ibilli, haixiakin ibilli*

**haixiakin ibilli** 1. 'zer edo zertarako gogoia izan', 2. 'harrotuta ibili'. *Sin. haixatuta ibilli, haixia erabilli: Noruegara motorrian juateko haixiakin jabik Unai jua dan aspaldixan / Jaurlaritzan biharrian diharduenetik, ez dakizu zelako haixiakin dabillen*

**hango + izena.** Ugaritasuna adierazten du; *gazt. ¡qué era aquello!: zer zuan hango zaratia eta hango kantua!*

**hanka egin (lag).** *Sin. alde egin, ospa egin*

**hanka jokua atara / izan (lag)** 'arinetan ihesi joan': *ertzaiñak azaldu zittuanian, zer zuan*



*hango hanka jokua!* Sin. **hanka jotia egin, perra hotsa atara hanka jotia egin.** Sin. **hanka jokua atara, perra hotsa atara harixa ixo** (*lag*). Berez, torloju batek haria apurtuta izatea. Zentzu figuratuan, burua galduta izatea; *gazt. pasarse de rosca: oso mutil argixa zuan, baiña, azkenian, harixa ixota amaittu jok.* Sin. **burua galdu, onetik urten, txorittik urten harpia jo.** Sin. **adar soiñuan ibilli, adarra jo, fiestan ibilli harra euki** 1. 'ardura eduki', 2. 'gorrotoa eduki'. Sin. **zapua euki:** *lorik be ezin juat egin, horixe harrori jaukat eta / ugazaba ezin dot ikusi be egin, harra barru-barrurairiño sartuta daukat eta harrak egin* 'usteldu': *okeliari harrak egin jakoz, eta bota egin biharko dogu harriabarra batu* 'hondamendia ekarri': *esan dittuen astokerixekin batuko jok, orainguan be, harriabarra, ahobero horrek hartzekuekin etorri* 'arrazoirik gabe protestan jardun; *gazt. venir con exigencias*': *aspaldi esan neuan sarrerak erosteko, eta ez orain nigana hartzekuekin etorri!* **hau da hau!** Ezustekoren bat gertatu denean esan ohi da (*hori da hori* ere berdin esaten da): *hau dok hau!* Behin etorriko hondartzara, eta kriston euri

*zaparradia bertan.* Sin. **asko izan, haundixa izan, markia izan haundixa izan.** Ezustekoren bat gertatzen denean esan ohi da: *Donostiaraiño juan karneta barriztatzera, eta buleguak itxitta topau. Haundixa dok, ba!* Sin. **asko izan, hau da hau!, markia izan hazurra eta azala geldittu** 'oso argal gelditu': *Carabanchelgo greban hazurra eta azala geldittu nintzuan hegatzada baten egin / juan.* Sin. **aidian egin heldu egixok/n horri!** 'harrapatzen edo berdintzen zaila izan': *hiru hillabeteko kruzera egin jon Ameriketara zihar; heldu egixon horri!* Sin. **arrapaik/n hori! herri batekuak izan.** Sin. **alkar hartu, bata bestiarekin uztartzeko modukuak izan hobe biharrez.** Sin. **on biharrez hor konpon (Maria Anton)!** (*lag*). Erantzukizunik nahi ez denean esan ohi da: *juan hadi nahi badok, baiña hor konpon, gero, aspertzen bahaiz hori dok eta!* (*lag*). Adorea emateko esapidea: *hori dok eta! Segi horrela, Igor, kilometro bat baiño ez daukak tontorrera eta!* **huts egin.** Sin. **kale egin hutsaren hurrengua izan** 'ezgauza, balio txikikoa izan': *euskeriandako diru asko emoten dabela diñok?* *Hutsaren*

*hurrengua, mutil!*

**I**

**ibil gonia jantzi** (*lag*) ‘etxetik kanpora irten, itzultzeko prisa gabe’: *jantzi dau horrek ibil gonia, eta batek jakin zer ordutan etxeratuko dan*

**igarri-igarrizan egon.** *Sin. begibistakua izan, ezagun izan ikusi batera* ‘ikusi arin bat eginez; *gazt. a simple vista*’: *ikusi batera, gauza erreza emoten jok. Sin. begittu baten*

**illetia jo / erabilli** ‘aiene eta aitzakia asko izan’: *ez egin jaramonik horri! Beti da illetia joten, eta belarrixetatik be dirua darixo*

**iñoren buztanarekin eulixak kendu** ‘inoren lanaz baliatu’

**iñoren lepotik ibilli** ‘inoren kontura bizi; *gazt. gorrón*’: *lotsabako galanta dok hori, iñoren lepotik beti. Sin. duangua izan, jan txakurra izan*

**iñun diranak + aditza** ‘gauza handiak esan, egin...’: *hasarretu zanian, iñun diran guztixak esan jeutsazan / iñun diranak egin jittuan soldautzatik libratziarren, baiña dana alperrik. Sin. demasak, demasekuak, diranak eta ez diranak, egundokuak, kristonak, sekulakuak + aditza*

**iñundik inora be ez!** ‘pentsatu ere ez; *gazt. ni hablar, ni por el forro*’: *zortzi milla pezeta ordaindu bihar dala papel zaharri! Iñundik iñora be ez egin, gero, holakorik!*

- Sin. bai zera!, ezta hurrik emon be!*
- iñuzente eragin** ‘engainatu’: *diru dana galdu juat, eta amorrurik haundixena emoten deustana, iñuzente eragin deustala, gaiñera*
- ipurdikua hartu** 1. ‘ipurdian min hartu’, 2. ‘atsekabea, hondamendia’: *diru asko sartu juan lantegixa egitteko, eta sekulako ipurdikua hartu jok*
- irakiñalditxo bat bihar.** Motel samarrak direnez esaten da; *gazt. faltar un hervor: ez jakixat, ba, zelako saltzaillia izango ete dan hori: irakiñalditxo bat bihar jok, nire iritzixan. Sin. garboztua bihar*
- irakitten ipiñi** ‘haserretu eragin; *gazt. poner a cien*’: *irakitten ipinten najok bere harrokerixak esaten hasten danian. Sin. sutan ipiñi*
- iritzira jardun.** Gauzak gutxi gorabehera esan edo egin; *gazt. al tuntún: horri ez egixon jaramon larregirik egin, iritzira jarduten jon eta*
- itxurak egin** ‘benetakoa gabe, alegiazkoa’: *egon hadi trankil, ez jagozak hasarretuta eta: itxurak egitten jiharduek*
- itxuria emon** ‘itxuratu’: *biharra ez juagu ondiño amaittu, baiña itxuria emon jeutsagu, behintzat*
- itxuriaren jabe izan** ‘itxuraz bezalakoa izan izatez ere’: *freskua emoten jok lebatzak;*
- gero ikusi bihar itxuriaren jabe dan ala ez*
- izanguan bizi** ‘sekula betetzen ez den esperantzarekin bizi’: *izarretan bizi don hori, izanguan beti*
- izatekua izan** ‘izaera harrigarri edo xelebrekoa izan’: *Azkoittitik Greziaraiño juan haiz bizikleta gaiñian? Hi haiz, hi, izatekua!*
- izena + amorratua.** Oso zaletasun handia daukanaz esan ohi da: *mendizale amorratua zuan Txomin*
- izena + eta abarra.** Ugaritasuna indartzen du: *bazuan tabernan kantua eta abarra!*
- izena + eta guzti.** Indartzeko erabiltzen den gehigarria: *patatak azal eta guzti jaten genduazen gerra denporan / bart, hotzaren hotzez, praka eta guzti sartu nintzuan ohera*
- izena + usaiña.** Ezaugarri jakin baten ukitua izan (zentzu txarra izan ohi du): *haundiki usaiñez beteta jabik Kaja Ahorrosian biharrian hasi danetik / ez hadi nigana lelo usaiñekin etorri!*
- izenordaina + buruaren jabe izan** ‘konturatu, zer egiten den jakin’: *juan dan aspaldixan ez naiz neure buruaren jabe*
- izenordaina + egin.** Oztopoak oztopo, norbere borondatea egin ohi duenaz esaten da: *beria egin barik, ez da hori konforme egongo*
- izenordaina + kautan** ‘nork bere

buruarekin jardun': *ez hadi horregaittik arduratu, bere kautan jihardun eta / nire kautan berbetan niharduen, konturatu be egin barik lagun batzuk egozela inguruan*

**izenordaina + praketan sartu.**  
Inoren gauzetan ez sartzeko esan nahi denean erabiltzen da: *sartu hadi heure praketan, eta lagaiguk guri bakian*

## J

**jai egon / euki** 'zereginik ez izan': *hori egitten bajuek zuzendari, jai jaukagu. Sin. X-enak egin*

**jakiñaren gaiñian ipiñi. Sin. aitzen emon**

**jan txakurra izan** 'ezer egin gabe, inoren kontura bizi; *gazt. gorrón*'.  
*Sin. duangua izan, iñoren leptik ibilli*

**jarduna ipiñi / emon. Sin. berbakizuna ipiñi / emon, berbalekua ipiñi / emon, zeresana emon**

**jaun eta jabe izan** 'goitik behera nagusitu, agintari bakarra izan; *gazt. ser el amo*': *Arrateko automobil lasterketan, Aitor Zabaleta izan zuan jaun eta jabe*  
**jausixa egon** 'burumakur edo osasunez makal egon': *ospittaletik etorri danetik, oso jausixa topau juat*

**jo batera eta jo bestera ibilli** 'galduta, noraezean egon': *jo batera eta jo bestera, eta dana alperrik: ez genduan iñun ezer topau. Sin. jo hona eta jo hara ibilli*

**jo daigun.** Konparazio bat egin nahi denean erabili ohi da; *orok. jo dezagun, eman dezagun: jo daigun zeu zarela alkatia, zer egingo zeunke, ba, hau konpontze aldera?*

**jo hona eta jo hara ibilli. Sin. jo batera eta jo bestera ibilli**

**jo ta ke (lag).** *Sin. jo ta su(a)*

**jo ta su(a) (lag)** 'adore biziz

jardun': *hor jabizak, jo ta su, Euskal Herriko gazte guztixak kartzelan sartu nahirik. Sin. jo ta ke*

**jota egon** (*lag*) 'burumakur egon, adore gabe': *neska laguna istripuan hil zanetik, jota jagok. Sin. lur jota egon*

**juan eta juan, eta bertan** (*lag*). Zer edo zer non den esan nahi ez denean: *oporretan nun izan naizen? Juan eta juan, eta bertan*

## K

**kaka burutik behera egin** (*lag*) 'gazt. reirse a la cara': *horixe dok, horraittio, kaka burutik behera egittia: neuri dirua kendu, eta gaiñera, neuri lapurra deittu*

**kaka-umia izan** (*lag*). Heldu izatera iristen ez diren gazteez esan ohi da; *gazt. ser un(a) crí@: edozein kaka-umek jaukazak gaur egun hirurogei urte (laurogeitaka urteko Txantioia eibartarrak aspaldi esandakoa). Sin. kakanarrua izan, umegorrixa izan, umemokua izan*

**kakanarrua izan. Sin. kaka-umia izan, umegorrixa izan, umemokua izan**

**kakatara bialdu** (*lag*). *Sin. Otxandixora bialdu, Pekiñera bialdu, pikutara bialdu, txakurraren salara bialdu*

**kale edo bale**. Asmatu edo ez, azken erabakia hartu behar denean esaten da: *bialdu dogu diskuaren maketia, eta diskoetxeak esango dabe kale edo bale*

**kale egin** (*lag*) 'asmatu ez; *gazt. fallar*': *heure txandia dok, nik kale egin juat eta. Sin. huts egin*

**kale emon** 'atzera bota': *lau lagunen artian egindako biharra aurkeztu genduan lehiaketara, eta kale emon jeuskuen. Ik. azak emon*

**kale gorrixan laga / egon / bota** 'kalera bota errukirik gabe': *hoge*

*urtian bertan biharrian jardun ondoren, kale gorrixan laga ninduan, indemnizaziño koxkor batekin*

**kale txakur ibilli** (*lag*) 'inolako aterpe eta babesik gabe egon': *andriagandik banandu, biharretik bota, eta kale txakur dabil orain*

**kanpolarrosia izan** 'kanpokoekin gozoa eta etxeokoekin zakarra': *kanpolarrosa ona hori be: kanpokuei agurra eta andriari egurra / kanpolarrosa etxe kardo galanta haiz hi!*

**kasketaldixa emon / euki** 'gogora etorritakoa nahitaez egin behar': *udan Egiptora juateko kasketaldixa jaukan, nahiz eta kriston berua egitten dabela jakin*

**kate motzian lotu** 'gertutik zaindu; gazt. atar en corto': *honek gaztiok kate motzian lotzia komeni dok*

**keiarena egin** (*lag*) 'desagertu, joan eta itzuli ez, kea bezala': *danok beraren argibidien zain, eta zer da kontua, eta keiarena egin juan. Sin. atzera mardo egin, beliarena egin*

**kili-kolo egon** 'ondoezik egon; gazt. estar pocho': *kili-kolo dago, eta etxian geratu da*

**kinkiña jo** 'botila hustu': *ekatzu beste botilla bete arda, honek kinkiña jo dau eta*

**-ko / -ren barri izan** 'jakin, ezagutu': *Bartzelonako barri ondo jakik horrek, bertan bizi izan zuan eta / aspaldixan ez*

*jaukat Mirenen barri*

**kokoteraiño egon** 'gogait eginda egon; gazt. estar hart@, hasta las narices': *hara, kokoteraiño nago zurekin bai, eta itxi naizu bake-bakian*

**kontrako ezarririk jua**n. Jatekoa edo edaria okerreko lekutik sartu; gazt. atragantarse: *ekarridak ura, sagar zatixa kontrako ezarririk jua jatak eta*

**koplekin etorri** 'aitzakiekin ibili; gazt. venir con cuentos': *atzoko amaittu bihar heuan, eta orain ez nigana koplekin etorri*

**kristonak + aditza** (*lag*). *Sin. demasak, demasekuak, diranak eta ez diranak, egundokuak, iñun diranak, sekulakuak + aditza*

**kukua entzun ez**. Hil zorian dagoenean esaten da: *ez jakixat aurten kukua entzungo doten*

**kukurruku baten etorri** (*lag*) 'harro usainekin etorri': *kukurruku baten etorri zuan, baiña, azkenian, belarrixak ondo makurtuta juan zuan*

**kukurrukua jo** (*lag*) 'desafioa bota': *jo dau kukurrukua Naparruko aizkolarixak*

## L

**lagunarteko tanboliña izan.** Taldea alaitzen duenaz esan ohi da: *bera zuan lagunarteko tanboliña, eta hil danetik, hutsune haundixa laga jok*

**lantegixa jan** 'hondamendia ekarri lantegira'. Ik. **etxia jan**

**larre motzian hazi** 'gaztetan bizimodu gogorra izan': *kopla gitxi jaukak horrek, larre motzian hazittakua dok eta*

**larri ibilli** 'estu ibili': *apurka-apurka egittia hoba, dana azkenerako itxi ezkeru, larri ibilliko gaittuk eta*

**lehengo lepotik / samatik euki burua** 'beti bezala jarraitu': *makiña bat bider esan jakok, ba, hori ez egitteko, baiña alperrik: lehengo lepotik beti burua*

**lekutan + aditza** 'oso urrun; gazt. en el quinto pino': *lekutan jagok Araotz Oñatittik oiñez juateko! / lekutara juan dittuk bizi izatera, nora eta Guadalajadara*

**lepua berotu** 'egurra jaso': *Elgoibarrera foballa ikustera juan, jokua galdu, eta, gaiñera, lepua majo berotuta etorri gintzuazan Eibarrera. Sin. **berobero egin, egurra emon, makilla saldia emon, pasadia emon, zopa saldia emon***

**lepua jaso.** Ik. **bizkarra jaso**

**lokan ipiñi** 'gazt. poner en punto muerto': *automobilla garbitzeko, lokan ipintzia onena*

**lotsarixa pasau** 'lotsatu': *lotsari galanta pasau jok, semia itxura*

*haretan ikusitta*

**lur jota egon. Sin. jota egon**

## M

**mahaibe egin** 'berandu heldu, eta janik gabe geratu': *tabernarik taberna berandu arte ibilli, eta etxera nintzarian, mahaibe egin bihar*

**makilla saldia emon.** *Sin. bero-bero egin, egurra emon, lepua berotu, pasadia emon, zopa saldia emon*

**markia izan / egin / bota:** *horrek bota jon markia horrek: lantegiko diru dana hartu, eta hanka egin!*  
*Sin. asko izan, hau da hau!, haundixa izan*

**markia ondu** 'gazt. batir el record': *Elgoibarko krosian sari berezixa dago markia ontzen dabenarendako*

**mehe hartu** 'gutxietsi': *mehe hartu najuan, eta sekulako egurra emon jeustan gero*

**moskanak kendu** 'harro edo tonto usainak kendu': *ibilli hadi harrokerixekin frontoian, da laster kenduko deuez moskanok*

## N

**nagixak atara** 'gorputza luzatu, suspertze aldera': *ohetik altzau barri hago ala, holan nagixak ataratzen jarduteko?*

**nahikua eta larregi** 'gehiegi; gazt. más que suficiente': *nahikua eta larregi sufridu genduan gerra denporan*

**narru sendua euki** 'lotsarik ez izan': *ez da hori galduko, narru sendua dauka eta*

**narrutik ordaindu** 1. 'karua izan', 2. 'mendeku gogorra izan': *Ameriketako klinika baten egon zuan, eta narrutik ordaindu jua operaziñua / harro samar jua gintzuazan, eta narrutik ordaindu genduan gero*

**nekian jardun** 'baldintza txarreko lanean jardun; gazt. trabajo basura': *hamabost egungarrenerako alde egin najuan, han biharra egittia nekian jardutia zuan eta*

**(noiz) halako baten** 'oso berandu': *danok afaltzeko zain, eta han agertu zittuan noiz halako baten*



## O

**odol berokua izan** 'jenio bizikoa':

*odol berokua da, baiña persona ona*

**odolbakua izan.** *Sin. epela izan, ez gatz ez berakatz izan, ez ur ez ardau izan, ez ur ez salda izan*

**oilloipurdixa egin.** *Sin. oillonarrua egin / urten*

**oillonarrua egin / urten** 'hotzez, zirrarez edo beldurrez gorputzeko azala zimurtu': *konturatu barik hotzittu, eta oillonarrua egin jatzu zuri / hori kantuari entzuten dotenian, oillonarrua egitten jatak.* *Sin. oilloipurdixa egin*

**ok egin.** *Sin. ase eta bete*

**on biharrez** 'ustez on egiten delakoan': *on biharrez esan najeutsan, eta txartzat hartu jua berak.* *Sin. hobe biharrez*

**on billa, on billa, bonbilla.** Ondo aukeratzen ahalegindu, eta asmatu ez. Honen antzekoa da beste alderdi batzuetako aukeraren maukera, azkenean okerra

**ondo baiño hobeto** 'oso ondo': *ondo baiño hobeto jakik, lotsabakuorrek, zer egin bihar daben*

**onenak emonda egon** 'zahartuta edo makalduta egon; gazt. estar para el arrastre': *hobeto dau horrek be alde egittia, onenak emonda dago eta*

**onera etorri** 'lasaitu, zentzatu': *jarri*

*hadi apur baten, eta ia heure onera etortzen haizen*

**onetik urten.** *Sin. burua galdu, harixa ixo, txorittik urten*

**orain dala** 'badira': *orain dala bost hillabete apurtu najuan besua* (Deba ibarrean arrotza da *duela*)

**oraintxe eta oraintxe be** 'oraintxe bertan ere': *oraintxe ta oraintxe be, pelotan edozeiñi aurre egitteko mo-duan jagok Retegi*

**orbela letxe egon** 'oso ugari egon; gazt. a punta pala': *telefono mobilla gaur egun orbela letxe jagok*

**orraztua emon** 'gauzak zehatz begiratu': *perretxikutara jua, eta orraztu ederra emon geuntsan pagadixari*

**osahunakin urratu!** Arropa berria estreinakoz janzten duenari esaten zaio; *gazt. ¡que rompas con salud!*

**oso-osokua izan.** Gauzak diren bezala, ezer gorde gabe esan: *gertatu jakona, dana zihetz kontau dau, oso-osokua da eta*

**ospa egin (lag).** *Sin. alde egin, hanka egin*

**ostatu truke egon.** *Sin. tripa truke egon*

**ostia euki.** *Sin. ajia euki, bixamona euki*

**Otxandixora bialdu (lag).** *Sin. kakatara bialdu, Pekiñera bialdu, pikutara bialdu, txakurraren salara bialdu*

## P

**parra izan** ‘bost ardura’ (NOR-NORI-NORK erara jokatzen da):  
*zuk esaten dozunak parra deusta niri*

**pasadia emon** (*lag*) 1. ‘egurra eman’, 2. ‘begiratu zorrotza eman’:  
*juan dan domekan kriston pasadia emon jeutsan Olaizolak Goñiri Astelenan / perretxikutara juan eta pasada edarra emon geuntsan pagadixari*

**pasadia hartu** (*lag*) ‘nekatu’:  
*goiz osuan ortuan jardun, eta sekulako pasadia hartu dot*

**Pekiñera bialdu** (*lag*). *Sin.*  
**kakatara bialdu, Otxandixora bialdu, pikutara bialdu, txakurraren salara bialdu**

**perra hotsa atara** (*lag*). *Sin.* **hanka jokua atara, hanka jotia egin**

**pikutara bialdu** ‘norbait gaitzetsi’:  
*hartu egik hori gitarra zaharori eta juan hadi pikutara hemendik, dundurixua besterik ez dok ataratzen eta / pikutara bialdu egin hori mutillori, harrokerixia besterik ez jaukan eta. Sin.*  
**kakatara bialdu, Otxandixora bialdu, Pekiñera bialdu, txakurraren salara bialdu**

**pipertuta egon** (*lag*) ‘haserre egon’:  
*zittal hutsa don ugazaba, beti jagon pipertuta*

**praketan kabidu eziñik ibilli** ‘zeharo harrotuta egon’:  
*literatura sarixori irabazi dabenetik, bere praketan kabidu eziñik dabil*

## S

**sasoian egon** ‘gorputzaldi oneko egon; gazt. estar en forma’:  
*oraintxe nago sasoi betian, eta ia neure markia ontzen doten*

**sekulakuak + aditza.** *Sin.*  
**demasak, demasekuak, diranak eta ez diranak, egundokuak, iñun diranak, kristonak + aditza**

**soiñian euki / eruan.** *Sin.* **aldian euki / eruan**

**suak hartuta ibilli.** *Sin.* **txinpartak darixola ibilli**

**sutan ipiñi.** *Sin.* **irakitten ipiñi**

**T**

**tripa truke egon** 'jan-edanaren truke inoren etxean egon; *fr.* au pair': *Irlandako familixa batekin egon nok udan, euren tabernan bihar apur bat egin, eta tripa truke.* *Sin.* **ostatu truke egon**

**tripak jaten egon** (*lag*) 'haserre bizian, arduratuta egon; *gazt.* estar a punto de un ataque': *bostetan hartu bihar abioia eta kriston automobil illeria, eta hantxe geldi egon bihar: tripak jaten nenguan!*

**tripazorrixak euki / entzun.** Gosea denean esan ohi da: *jan egin biharko junat zeozer, tripazorrixak entzuten jittunat eta*

**TX**

**txakur zaharra izan.** *Sin.* **ur haundiko arraiña izan**

**txakurrak ortozik ibilli.** Itxurak itxura, gauzak bazter guztietan direla berdintsu adierazten du: *Ameriketa dala paraisua diñok, baiña han be txakurrak ortozik jabizak*

**txakurraren putza!** (*lag*) 'gazt. ¡y un jamón!' *Sin.* **baitta zera be!**

**txakurraren salara bialdu** (*lag*). *Sin.* **kakatara bialdu, Otxandixora bialdu, Pekiñera bialdu, pikutara bialdu**

**txepela izan.** *Ik.* **epela izan**

**txinpartak darixola ibilli** 'oso haserre, sutan egon': *baten batek automobilari erreixak egin deutzazela-eta, hor jabin txinpartak darixola.* *Sin.* **suak hartuta ibilli**

**txorittik urten** (*lag*). *Sin.* **burua galdu, onetik urten, harixa ixo**

## 9. BIBLIOGRAFIXIA

- Altube, Sebero. 1960. "Eibartarrak eta euskera". *Euskera* 5: 61-65.
- Antxia, J. & A. Loidi & J. Sarasua. 1995. *Aretxabaletarako idazkera liburutxoa*. Aretxabaleta: Loramendi Euskara Elkarte.
- Aranberri, Fernando. 1996. *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermua: Ermuko Udala.
- Aranzadi Zientzia Elkarte. 1984-1990. *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (EAEL)* (2 liburuki). Donostia.
- Arexolaleiba, Julen. 1994. "Nazio eta herri mailako barietateen erabilera normalizazioranzko prozesuan Arrasaten". In R. Gomez & J. A. Lakarra, arg., *Euskal Dialektologiako Kongresua*: 367-395. ASJU-ren gehigarriak, 28. zb. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Argoitia, J. A. & N. Azkarate & X. Gezuraga. 1995. *Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk*. Eibar: Eibarko Udala.
- Arrieta, Jose Agustin. 1974. *Un estudio sobre el habla vasca de Motrico*. Deustuko Unibertsitateko Lizenziatura tesina argitara gabea.
- Bähr, Gerhard. 1926-1935. "Estudio sobre el verbo guipuzcoano". *RIEV* 17 eta hh.
- Bereicua, Ramon. 1972. "A Survey of Linguistic Variables in the Central Zone of the Deva River Valley". *ASJU* 6: 20-28.
- Eibarko Euskara Batzordea. 1997. *Eibarreraz idazteko oiñarrizko erizpidiak*. Eibar: Eibarko Udala.
- Eibarko Udala. 1995. *Eibarko hiri-toponimia*. Euskaltzaindia,

*Onomasticon Vasconiae-13*. Bilbo

----- 1998. *Eibarko aditza*. Eibar.

Elexpuru, Juan Martin. 1996. *Bergara aldeko lexikoa*. EHU-ko Doktoradutza Tesi argitara gabea.

Elortza, Jerardo. 1994. "Aditzaren izen-formak Deba Garaian eta Araba aldean". In R. Gomez & J. A. Lakarra, arg., *Euskal Dialektologiako Kongresua*: 465-477. ASJU-ren gehigarriak, 28. zb. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Elortza, Jerardo & Jose Luis Ormaetxea. 1994. "EAEL eta Arrasateko hizkera". In R. Gomez & J. A. Lakarra, arg., *Euskal Dialektologiako Kongresua*: 479-493. ASJU-ren gehigarriak, 28. zb. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Elortza, J. & E. Garro & J. L. Ormaetxea & J. M. Garai & E. Plazaola. 1999. *Arrasateko euskara*. Arrasate: Arrasateko Udala.

Erostarbe, Amaia. 1994. "Aditz izenak Oñatiko hizkeran". In R. Gomez & J. A. Lakarra, arg., *Euskal Dialektologiako Kongresua*: 495-517. ASJU-ren gehigarriak, 28. zb. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Etxaide, Ana M. 1984. *Erizkizundi Irukoitza*. Euskaltzaindia, *Iker-3* (2 liburuki). Bilbo.

Etxebarria, Toribio. 1963-1964. "Flexiones verbales de Eibar". *Euskera* 8-9: 53-130.

-----1965. *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. Euskaltzaindia, *Euskera* 10-11. Berrarg. 1986.

Gaminde, Iñaki. 1985. *Aditza bizkaieraz* (3 liburuki). Iruñea: UEU.

----- 1988. *Ahozko bizkaieraz*. Bilbo: Bizkaiko AEK.

----- 1992. "Bizkaieraren esaldi denborazkoez". *FLV* 24: 405-430.

- Hualde, José Ignacio. 1997. *Euskararen azentuerak*. ASJU-ren gehigarriak, 42. zb. Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & EHU.
- Irizar, Pedro. 1981. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (2 liburuki). Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- 1991. *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* (2 liburuki). Bilbo: Euskaltzaindia.
- 1992. *Morfología del verbo auxiliar vizcaino* (2 liburuki). Bilbo: Euskaltzaindia & BBK.
- Isazelaia, Jaione. 1997. *Linua, ehuna, artilea*. Bergara: Bergarako Udala.
- Izagirre, Kandido. 1956. "Oiñatiko liñagin-iztegitxo". *Euskera* 1: 174-182.
- 1965. "Iztegirako gaiak". *BAP* 21: 197-211.
- 1968. "Notas lexicográficas". *ASJU* 2: 49-71.
- 1970. *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes*. ASJU-ren gehigarriak, 7. zb. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. Berrarg. 1994.
- Larrañaga, Jone. 1998. *Antzuolako hizkera*. Antzuola: Antzuolako Udala.
- Laspiur, Imanol. 1979. "Azentu diakritikoa Eibarko euskarán". *Euskera* 24-1: 175-268.
- 1999. *Eibarrera jatorraren bidetik*. Eibar: ... *eta kitto!* Euskara Elkarteá.
- 1999b. *Eibarko euskeriaren deklinabidia eta entonaziñua*. Eibar: Eibarko Udala.

- Maiz, Eneka & Iñaki Mundiñano. 1998. *Etxarrietatik Sakanerara*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Narbaiza, Anaje. 2001. *Zura: arotzak eta etxegileak*. Bergara: Bergarako Udala.
- Narbaiza, Antxon. 1998. *Eibarko euskara: gutxiespenaren historia*. Eibar: Eibarko Udala.
- 1990. *Eibarko gatzizenak*. Eibar: Eibarko Udala.
- Olañeta, Amaia & Argiñe Urkiola. 1998. *Txondorrak, karobiak, elurzuloak*. Bergara: Bergarako Udala.
- Ormaetxea, Jose Luis. 1996. *Arrasateko toponimia*. Euskaltzaindia, *Onomasticon Vasconiae-15*. Bilbo.
- San Martin, Juan. 1958. "Burdin laneko zenbait tekniku itz". *Euzkogoa* 9-1: 39-51.
- 1958b. "Eibar'en erabiltzen diran burdin langintzako itz teknikuak". *Euskera* 3: 141-158.
- 1959. "Eibar'en teknika gaietan egin dan eboluziñoari buruz". *Euskera* 4: 127-139.
- 1981. "Eibarko aditz-laguntzailearen paradigmak". Euskaltzaindia, *Iker-1*: 331-342. Iruñea.
- 1990. "Botanika lexikoa Eibarren eta Toribio Etxebarriaren *Lexicon* lanari gehigarriak". *Euskera* 35-2: 337-365.
- 2000. "Toribio Etxebarriaren *Lexicón*-i gehigarriak". *Euskera* 45-3: 1001-1020.
- 2000b. *Eibar eta Elgetako toponomastika*. Euskaltzaindia, *Onomasticon Vasconiae-21*. Bilbo

Sangroniz, Mikel. 2001. *Eibarko euskeriaren unidate didaktikua*. Eibar: Eibarko Udala.

Sarasua, Asier. 1996. *Eibarko hegaztiak*. Eibar: Eibarko Udala.

UNED. 1988. *Bergarako Euskera*. Bergara.

Urkiza, Julen (arg). 1995. *Aita Gabirel Jauregi Uribarren (1895-1945)*. Bilbo: Ediciones El Carmen.

Villasante, Luis. 1968. "Oñatiko Euskera". *Egan* 27: 80-94.

Zuazo, Koldo. 1999. *Deba ibarreko euskera*. Eibar: Deba ibarreko udalak.

----- 2000. *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.



Azken urtiotan asko aurreratu dogu Euskera Batuari esker: a) leku urriñetako euskaldunak batzerakuan, ez daukagu batak bestiari aditzeko arazo haundirik; b) idazterakuan, edozein gairen inguruan dihardugula, geroz eta erosuago gabiz; c) asko ugaritu dira euskaldun barrixak; d) leku erdeldunetara, eta baita atzerrira be, zabaldu da euskeria; e) Ipar Euskal Herrixa eta Hego Euskal Herrixa hurreratu egin dira: euskaldun guztiona egin dogu Euskera Batua; f) euskeria prestigixoko berbetia egin da: berbeta txikixa da, baiña "berbetia" da.

Hori guztiori lortu dogu Euskera Batuari esker, eta lortu doguna urre gorrixa letxe gorde bihar dogu.

Baiña euskeria ez da bakarrik zuberotarrekin eta naparrekin erabiltzeko; euskeria ez da bakarrik gai jasuetaz eta kultura-mailla haundikuetaz jarduteko. Geure herrixan eta inguruetan erabiltzeko be bada, eta geure eguneroko kontutxuak esateko be bada. Eta horretarako, Euskera Batuaren aldian egokixagua da geure betiko berbetia.

Beste alde batetik, "Euskera Batuaren" izenian oso euskera berezixa erabili izan dogu jua dan aspaldixan, geure eguneroko berbetatik asko aldentzen zana. Hori dala-eta, geuria txarra zalakuan, gutariko askok ez deutsegu geure seme-alabei erakutsi.

Orain hasi gara horren guztiorren ondorena ikusten: gazterixiak egitten daben euskeria ez da nahi bezain ona. Gaztiei eurei be pobria eta indar bakua begittantzen jakue, eta erderara jotzen dabe sarri. Lagunarterako berbeta bizixaguaren premiña daukagu.

Eta hauxe da kontua: berbetak erabiltzeko dirala, eta erabillixaz, gozatzeko eta eroso egoteko. Nahittanahiez aldaketa batzuk egin biharko dittugu hori helburuori lortzeko. Ibiltzeko bide luzia daukagu, baiña BADIHARDUGU!

